EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# 1995eko Azterketak

# IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

.361(079.1)

44
Euskara Zerbitzua
Glotodidaktika-lanak

ehma
katalogoa
Eibarko Hezkuntza Esparrua
943.20.27.48
20600 EIBAR

# IRAKASLEEN
# HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

## 1995eko AZTERKETAK

20600 EIBAR

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1995

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 1995eko abendua |
| Ale-kopurua: | 3.000 ale |


| | |
|---|---|
| © | Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa<br>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila |


| | |
|---|---|
| Fotokonposizioa: | Didot, S.A.<br>Nerbioi kalea, 3 - 48001 Bilbao |
| Inprimaketa: | Boan, S.A.<br>Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao |
| ISBN: | 84-457-0665-9 |
| Lege-gordailua: | BI-2622-95 |

# AURKIBIDEA

HITZAURREA ........ 7

I. 1995eko DEIALDI IREKIA ........ 9

I.1. Deialdi irekia: HE1eko azterketa ........ 11
I.2. Deialdi irekia: HE2ko azterketa ........ 41

II. 1995eko 1.DEIALDI ITXIA ........ 61

II.1. Lehen Deialdi itxia: HE1eko azterketa ........ 63
II.2. Lehen Deialdi itxia HE2ko azterketa ........ 73

III. 1995eko 2.DEIALDI ITXIA ........ 81

III.1. Bigarren Deialdi itxia: HE1eko azterketa ........ 83
III.2. Bigarren Deialdi itxia: HE2ko azterketa ........ 83

IV. AHOZKO AZTERKETAK ........ 85

IV.1. Ahozko azterketak: HE1 ........ 87
IV.2. Ahozko azterketak: HE2 ........ 92

V. ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK ........ 95

V.1. Kalifikazio-sistemaren azalpena ........ 97
V.2. Idazlana ........ 101
V.3. Ahozko proba ........ 108
V.4. Probak baloratzeko irizpideen laburpena ........ 114
V.5. Akatsak ........ 116
V.6. Idazlanetarako eta ahozko probetarako baremoak ........ 120

VI. ERANTZUNAK .................................................. 125

VI.1. Deialdi irekiko erantzunak .......................................... 127
VI.2. Lehen deialdi itxiko erantzunak .................................. 129
VI.3. Bigarren deialdi itxiko erantzunak ................................ 129

VII. ERASKINAK .................................................. 131

VII.1. Estatistika-laburpena .................................. 133
VII.2. Arauzko erabakiak .................................. 134

# HITZAURREA

Honako honekin hirugarren urtez argitara ematen dira irakasleen hizkuntz eskakizunen azterketak. Azterketari izango diren irakasleengan pentsaturik argitaratzen dugu liburuska hau. Izan ere, etorkizuneko azterketari horiei baliagarri izango zaie benetako azterketak ezagutzea.

1995ean zehar hizkuntz eskakizunen hiru deialdi egin dira: horietariko bat irekia izan da eta beste bi itxiak, azken hauek IRALEn liberatuta egon diren irakasleentzat eratuak. Deialdi irekia eta 2. deialdi itxia egun beretsuetan egin ziren eta, zatiz, azterketa-material berberak erabili ziren.

Ohi den bezala aurtengo liburua bi material-mota desberdinez osatua dago:

a) Azterketa-materialak: deialdi irekiko zein itxietako azterketa idatziak aurki daitezke hemen nagusiki, ahozko azterketen adibide batzuekin batera.

b) Zuzenketarako irizpideak: azterketak zuzentzeko erabili diren irizpide eta baremoak biltzen dira atal honetan. Aztertzaileek eskueran izan dituzten txostenak dira beraz.

Azken atalean azterketaldi bakoitzean izan diren emaitzen laburpen estatistiko txiki bat eskaintzen zaizue; eta, horrekin batera, hizkuntz eskakizunen inguruko arauzko erabakien estraktu bat.

Liburuska honek bere baitan biltzen dituen ebaluazio-materialek aurtengo azterketak zer-nolakoak izan diren eta nolako irizpideez zuzendu diren erakutsi nahi dute ahalik gardenen. Bilduma hau lagungarri izango zaizuelakoan gaude.

**Edurne Gumuzio Añibarro**
Pedagogi Berrikuntzarako zuzendaria

# I. 1995eko DEIALDI IREKIA

# I.1. DEIALDI IREKIA: HE 1eko AZTERKETA

## IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

**HE1**
**Eredua: D**

**1. PROBA**

**1995eko ekainaren 17a**

**1. deitura:** ..........................................................

**2. deitura:** ..........................................................

**Izena:** ...............................................................

**NAN zkia.:**

## OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. Atera ezazu suelto dagoen erantzun-orria koaderno honetatik.
3. Konproba ezazu koadernoa eta erantzun-orria eredu berekoak direla.
4. Konprobatu azterketa honek 12 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
5. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak erantzun-orrian eta koaderno honetan.
6. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
7. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
8. Gelan ezin da erre.
9. Amaitzen duzunean, ez mugitu aulkitik arduradunek azterketa-materialak jaso arte.

# ARRETAZ IRAKURRI

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 40 asmatu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun egokiena aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Koaderno honetan **EZ** idatzi.
- Erantzun okerrengatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira ekainaren 22an.
- Gainditzen dutenek ekainaren 28an izango dute HE1eko 2. proba, Ordezkaritzan agertuko diren leku eta orduetan.
- Bigarren proba horretan, HE1ean, **idazlanak** egiteko hiztegi bat ekarri ahal izango duzu.

01.-*Hitzaldia Almodovarren azken filmearen ........ izan da.*

a) gain
b) buruz
c) gainean
d) buruaz

02.-*Hainbat ........ egona da.*

a) familitan
b) familiatan
c) familietan
d) familian

03.-*Ez zara ........ izan gure etxean.*

a) sekulako
b) inoiz ez
c) batez ere
d) sekula santan

04.-*Haiei kirola gustatzen zaie eta ........ futbola.*

a) gainera
b) geroztik
c) batez ere
d) jadanik

05.-*Zazpi egunen ........ itzuliko naiz.*

a) buruz
b) behintzat
c) bukaeran
d) buruan

06.-*Espainiako ........ telebistan agertu dira, zubi bat inauguratzen.*

a) erregeak
b) errege-erreginak
c) erregeak-erreginak
d) erregeek

07.-*Dendara noa ........ erostera*

a) patata kilo bat
b) kilo bat patatak
c) patata kilo bete
d) kilo bat patata

08.-*Egizu ondo, ....*

a) bestela errepikatu egin beharko duzu.
b) berriz ez dizut erosiko.
c) behintzat hemen geratuko zara.
d) bestela esanda behintzat ez dugu presarik.

09.-*Karmen triste dago, ....*

a) jadanik heldu da.
b) orduan egin behar du.
c) zu, ostera, ez hainbeste.
d) haren geroztik ez.

10.-*Hau amaitu dut; ....*

a) ordea, prest dago.
b) dena dela, itxoin apur bat.
c) agian, ez dakit balioa.
d) gainera ez nago pozik.

11.-*Haiek ........ tratatu naute*

a) tonto modura
b) anaitzat
c) familitzat
d) animali gisa

12.-*Batzarrean ........ grabatuta daukat.*

a) esan dituzunak
b) esandakoak
c) esan duzunak
d) esandakoa

13.-*Filmea ........ lokartu zinen.*

a) amaitzen bitartean
b) amaitu baizik
c) amaitu orduko
d) amaitzen ondoren

14.-*Bide ........ falta da heltzeko.*

a) luzea
b) asko
c) handia
d) askoa

15.-*Edonork ....... zuk baino hobeto.*

a) aukeratu luke
b) aukeratuko zezakeen
c) aukeratuko zuen
d) aukeratuko dezake

16.-*Gaur ........ da, larunbata.*

a) ekainaren 3a
b) ekainak 3a
c) ekaina 3
d) ekainak 3k

17.-*Gure ........ zaharrak ........ handiak egiten ditu.*

a) anai / tontakeri
b) anaia / tontakeria
c) anaia / tontakeri
d) anai / tontakeria

18.-*Gure mutikoa eskolan agindutako ....*

a) liburua irakurtzera hasi da.
b) liburua irakurtzen hasi da.
c) liburua hasi du.
d) liburua irakurtzen hasi du.

19.-*Etxean dauzkazun ........ daude.*

a) liburu gehienak apurturik
b) liburu gehienek apurtuta
c) liburuen gehienak apurturik
d) liburu gehienak apurtutak

20.- *Nik zuek atzo arratsaldean ikusi ....*

a) nizuen.
b) ninduzuen.
c) zintudan.
d) zintuztedan.

21.-*Lapurreta hori bart gauean burutu ....*

a) behar izan dute.
b) izan behar zuten.
c) beharko dute.
d) izan behar dute.

22.-*Agindutakoa egingo bazenu, ez ........ zigortuko*

a) zintuzkete
b) zintuzten
c) zintuzketen
d) lizukete

23.-*Arratsaldeko lanak ........ bukatu ditudanez, egunkaria irakurtzeko astia izan dut.*

a) honez gero
b) lehenbailehen
c) dagoeneko
d) garaiz

24.-*Ikasle onek ez dizute buruhausterik emango; bai, ........, arazoak dituzten koittaduek.*

a) ordez
b) bestela
c) ordea
d) horrela

25.-*Datorren astean ez dugu ikaslerik izango; ........*

a) zeren eta ikasketa-bidaia dutelako.
b) izan ere, ikasketa-bidaia dute.
c) harik eta ikasketa-bidaia dute.
d) ikasketa-bidaia dutenez.

26.-*Ostiralean jai dugu; ....*

a) beraz, ostegunean egin dezakegu afaria.
b) ostegunean afaria egin baitezakegu.
c) hartara jarrita, ostegunean egin dezakegu afaria.
d) ostegunean egin dezakegunez afaria.

27.-*Atzoko lana nork egin ........ esan didate.*

a) duenentz
b) duen
c) duena
d) du

28.-*Ez dut uste ....*

a) zerbait gertatu zaienik.
b) halako bat gertatu zaienik.
c) ezer ez gertatu zaienik.
d) ezer gertatu zaienik.

29.-*Taberna horretan kartetan dirutza handia ........ dute.*

a) jolasten
b) jostatzen
c) jokatzen
d) apustutzen

30.-*Euskara ikasteko gogoa ........ garrantzitsua da denbora izatea.*

a) hain
b) adina
c) bezain
d) adinako

31.-*Marariri lau milioi tokatu zitzaizkion, bonolotoan ........ baitzuen.*

a) aurkitu
b) bilatu
c) asmatu
d) egokitu

32.-*Atzo arratsaldean mutil gazte ....*

a) bat leihotik bota zen.
b) batek bere buruaz beste bat egin zuen.
c) batek bere burua bota zuen leihotik.
d) batek haren burua bota zuen leihotik.

33.-*Gaurko greba deialdia ........ utzi dute.*

a) berehalako
b) horretarako
c) horrela
d) bertan behera

34.-Bilatu baliokiderik hurbilena: *Iaz oso testuliburu eskasak erabili genituen. Aurtengoak ez dira hobeak*

a) Iaz beste liburu txar ditugu aurten.
b) Aurtengo liburuak hobexeak dira iazkoen aldean.
c) Aurtengo liburuak, iazkoak bezala, txarrak dira.
d) Iazkoak baino liburu txarragoak ditugu aurten.

35.-*Azken metodoa ekarri ........, orain bi urtekoa ekarri du.*

a) beharrean
b) hots
c) hala ere
d) berriz

36.-*Lanak bukatu ........ , zigortuta geratuko zara.*

a) ordez
b) ezean
c) ez ezik
d) ostera

37.-*Deitu nizun, baina ez ....... erantzun.*

a) zenidan
b) zidazun
c) ninduzun
d) didazun

38.-*Ez dakit bihar ....*

a) hasteko den.
b) hasiko den.
c) hasiko dela.
d) hasten denik.

39.-*Hark esan zigun ....*

a) ez joatea hobe zenik.
b) hobeto dela ez joatea.
c) hobe zela ez joatea.
d) hobeto zela ez joatea.

40.-*Zeinek lagun diezadake ariketa hauek egiten?*

a) Ziortzak daki horretan inork baino hobeto.
b) Horretan ez daki Ziortzak inork baino hobeto.
c) Ziortzak daki horretan inor baino hobeto.
d) Inork daki horretan Ziortzak baino hobeto.

41.-*Non ibili zara hain berandu arte?*

a) Mendiaren zehar ibili naiz.
b) Menditik ibili naiz.
c) Mendiatik zehar ibili naiz.
d) Mendian zehar ibili naiz.

42.-*Zer egiten dugu gelan zer giro dagoen jakin nahi dugunean?*

a) Gelako giroaren buruz galdetzen dugu.
b) Gelako giroz galdetzen dugu.
c) Gelako giro gainean galdetzen dugu.
d) Gelako giroaz galdetzen dugu.

43.-*Zer aholkatu dio irakasleak Aitorri kaligrafia hobetzeko?*

a) Zehatz-mehatz idatz dezala.
b) Axola gabe, baina barra-barra idatz dezala.
c) Poliki-poliki idatz dezala.
d) Boligrafo gorri-gorria erabil dezala.

44.-*Zer ordutan helduko da aita bazkaltzera?*

a) Ordu bi t'erdietan.
b) Hirurak hogei gutxi.
c) Ordu biak eta laurden.
d) Ordu biak eta erdian.

45.-*Zein ari da lanean?*

a) Lanean geu ari gara eta Irene ere bai.
b) Lanean geu ari gara, eta Irene baita.
c) Lanean geu ari gara, baita Irene.
d) Lanean geu ari gara eta Irene ere.

46.-*Zein da gizon hori?*

a) Guk atzo erosita liburu hau idatzitako idazlea.
b) Guk atzo erositako liburua idatzi duena.
c) Guk atzo erositako liburua idatzi duenak.
d) Guk atzo erositako liburua idatzita duena.

47.-*Nola hartu duzu halako zartakoa, bizikletan ibiltzen ahaztu zaizu ala?*

a) Ez zait ahaztu bizikletan ibiltzen, baina bai eskuinera begiratzea.
b) Ez zait ahaztu bizikletan ibiltzea, baina bai eskuinera begiratzea.
c) Ez zait ahaztu bizikletan ibiltzen, baina bai eskuinera begiratzen.
d) Ez zait ahaztu bizikletan ibiltzea, eskuinera begiratzea baizik.

48.-*Noiz ikusiko dugu elkar?*

a) Bost egun arte.
b) Bost egun buruan.
c) Bost egunean.
d) Bost egun barru.

49.-*Zenbat eman diezu?*

a) Lau milana pezeta.
b) Lau mila pezetana.
c) Launa mila pezeta.
d) Lau mila pezeta bakoitzana.

50.-*Gaur zure lagun horrek ere ekarri du ardoa?*

a) Bai, ardoa ere ekarri du gaur Koldok.
b) Bai, gaur Koldok ere ekarri du ardoa.
c) Bai, gaur ere Koldok ekarri du ardoa.
d) Gaur ardoa Koldok ere bai ekarri

51.-*Zenbat liburu duzu?*

a) Nik horrek beste liburuak dauzkat.
b) Nik horren beste liburu daukat.
c) Nik hori beste liburu dauzkat.
d) Nik horrek beste liburu daukat.

52.-Esaldi bakar bat da gramatikalki zuzena. Zein?

a) Hondartzan eguzkitan bero-bero egoten naiz.
b) Hondartzan eguzkietan bero-bero egoten naiz.
c) Hondartzan eguzkian aurrean bero-bero egoten naiz.
d) Hondartzan eguzkian bero-bero egoten naiz.

53.-Esaldi bakar bat da gramatikalki zuzena. Zein?

a) Bukatu duzu lanakin?
b) Amaitu duzu lanaz?
c) Burutu duzu lanaz?
d) Bukatu duzu lana?

54.-Esaldi bakar bat da gramatikalki zuzena. Zein?

a) Hau lan ederra egin duzula!
b) Zein lan ederra egin duzuna!
c) Hau lan ederra egin duzuna!
d) Bai lan ederra egin duzu!

55.-Esaldi bakar bat da gramatikalki zuzena. Zein?

a) Bilbo Gasteiztik hirurogei kilometroetara dago.
b) Bilbo Gasteiztik hirurogei kilometrora dago.
c) Bilbo eta Gasteiz hirurogei kilometroetara daude.
d) Bilbotik Gasteizera hirurogei kilometroak daude.

56.-Aukera ezazu honen parekoa: *Iñigok bi liburu erosi ditu eta Paulak beste bi.*

a) Iñigok eta Paulak bina liburu erosi ditu.
b) Iñigok eta Paulak bina liburu erosi dituzte.
c) Iñigo eta Paula bakoitzak bina liburu erosi dituzte, hain zuzen ere.
d) Iñigo eta Paularen artean bi liburu erosi dituzte.

57.-Aukera ezazu honen parekoa: *Neu joango naiz bilerara Elenaren ordez.*

a) Elena ezin izango da joan bilerara; ni, ordea, bai.
b) Elenaren lekuan neu joango naiz bilerara.
c) Neu joango naiz bilerara Elenaren truke.
d) Elena joan beharrean beste bat joango da bilerara.

58.-Aukera ezazu honen parekoa: *Nahiz eta egia esan ez dizute sinestuko.*

a) Egia esaten badiezu, ordea, ez dizute sinestuko.
b) Egia esaten badiezu, ez dizute sinestuko.
c) Egia esatearren, ez dizute sinestuko.
d) Egia esaten badiezu ere, ez dizute sinestuko.

59.-Aukera ezazu honen parekoa: *Ez nago oso ziur bihar euskarari buruzko hitzaldia izango dugun.*

a) Baliteke bihar guk euskarari buruzko hitzaldia izatea.
b) Bihar euskarari buruzko hitzaldia izango ote dugu.
c) Egia esan ez nago ziur zeri buruzkoa izango den biharko hitzaldia.
d) Noski, bihar hitzaldia izango dugu.

60.-Aukera ezazu honen parekoa: *Gelan askotan aritzen gara gai horretaz.*

a) Gelan inoiz aritzen gara gai horri buruz.
b) Gelan egundo aritzen gara gai horretaz.
c) Gelan sarritan aritzen gara gai horri buruz.
d) Gelan batzuetan aritzen gara gai horretaz.

61.-Aukera ezazu honen parekoa: *Neuk behintzat ez nuke horrela egingo.*

a) Hala ere, neuk ez nuke horrela egingo.
b) Neuk behinik behin ez nuke horrela egingo.
c) Neuk bereziki ez nuke horrela egingo.
d) Neuk behin ere ez nuke horrela egingo.

62.-Aukera ezazu honen parekoa: *Lurrera bota zuen mutikoa eta astindu ederra eman zion.*

a) Mutikoari lurrera bota zion eta astindu ederra eman zion.
b) Lurrera bota zuen mutikoa eta astindu ederrak eman zion.
c) Lurrera bota zuen mutikoa eta bertan astindu ederra eman ere bai.
d) Mutikoa lurrera bota eta astindu zion.

63.-Aukera ezazu honen parekoa: *Kattalin zenak jenio bizia zuen.*

a) Kattalinek izena aldatu du eta jenio bizia du.
b) Kattalin kanpoan da eta jenio bizia du.
c) Kattalinek, bizi zenean, jenio bizia zuen.
d) Kattalinek aurreko egunetan jenio bizia erakutsi du.

64.-Zein esalditan kokatuko zenuke *hezkidetza* hitza?

a) Gure eskolara ......... handia etortzen da.
b) Gurasoek eskatutako ........ eman zuen zuzendariak.
c) ........ poliki-poliki aurrera doa gure eskoletan.
d) Talde horretako haurrek oso ........ ona jaso dute.

65.-*Peru: Mila esker!* Eman ezazu esaldi horri dagokion erantzun zuzena.

a) Baita zuri ere.
b) Pozten naiz.
c) Ondo ibili.
d) Lasai, ez da ezer.

66.-Amali: *Amak badaki etorriko zarela?*. Benito: *Zer esan duzu?* Amaliren erantzuna: ........

a) Ea amak badaki etorriko zarela.
b) Ea amak dakien etorriko zaren.
c) Ea amak dakiela etorriko zaren.
d) Ea amak badakien etorriko zarela.

67.-Zer esan nahi du azpimarratuta dagoenak? *Lotsa ematen dit esku hutsik joateak.*

a) ezer barik
b) eskuak garbi
c) eskularru barik
d) poltsa barik

68.-Diru pila adierazteko:

a) Aberatsa
b) Diruduna
c) Dirutsua
d) Dirutza

69.-*El otro día, elkar ikusi genuenean, zinemara joan ginen.*

a) Beste egunean, ....
b) Beste egun batean, ....
c) Lehengo egunean, ....
d) Lehenengo egunean, ....

70.-*Este niño es como el tuyo*. Aurkitu euskarazko baliokidea.

a) Haur hau zure modukoa da.
b) Haur hau zurearen modukoa da.
c) Haur hau zurearen bezala da.
d) Haur hau zure bezala da.

# IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

**HE1**
**Eredua: A**

**2. PROBA**

**1995eko ekainaren 28a**

**1. deitura:** .......................................................
**2. deitura:** .......................................................
**Izena:** ..............................................................
**NAN zkia.:**

## OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. Konproba ezazu azterketa honek 11 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
7. Azterketa-material guztiak entregatu behar dira amaieran.

# ARRETAZ IRAKURRI

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena 2) Irakurmena 3) Idazlan laburra 4) Idazlan luzea
- Denbora: **3 ordu.**
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira uztailaren 3an.
- Gainditzen dutenek **ahozko proba** izango dute, Ordezkaritzan agertuko diren leku, egun eta orduetan (uztailaren 6tik 11ra bitartean)
- Ahozko probara doazenei proba hori zintan grabatzeko aukera emango zaie. Erantzun mesedez ondoko galderari gurutzetxo batez (erantzuten ez bada grabaziorik ez dela nahi ulertuko da).

| | BAI | EZ |
|---|---|---|
| **NAHI DUZU ZURE AHOZKO PROBA GRABA DADIN?** | ☐ | ☐ |

# AHOZKOAREN ULERMENA: TRASKRIBAKETA

Ariketa honetarako *Euskadi Irratian* egindako elkarrizketa bat erabili zen. Jarraian grabazioaren transkribaketa ematen da.

### Angiozarko eskola

### Sarrera

**Irrat-1:** Hogei minutu hamaiketarako. Beatriz Zabaleta gaur Angiozarko eskola unitarioan da.
Aizu, Beatriz, honezkero bertako txikienak ere iritsiko ziren, ezta?

**Irrat-2:** Ba, egunon!
Hemen ari ginen komentatzen zer egin behar dugun eta zer kontatu behar dugun eta nola egingo dugun eta ... Hemen badira hamar bat ume batetik bestera txoko ezberdinetan banatuta, batzuk ariketak egiten, beste batzuk jolasean; zenbatzen batzuk; irakurketan besteak. Eta hori guztia kontatzen ahaleginduko gara: eskola honetan zer egiten den, zer moduz pasatzen duten, zer-nolakoa den Angiozar. Eta gauza guzti horiek kontatzeko bi lagun: Lierni ikaslea eta Koldo irakaslea.

### 1. zatia: Lierni

**Irrat-2:** Egunon!

**Lierni:** Egunon!

**Irrat-2:** Lierni, kontaidazu. Ni etorri naizenean hor ari zinen erosketa batzuk bezala egiten edo; zertan aritu zara gaur goizean?

**Lierni:** *Baga-Biga* egiten, matematika-ariketak eta.

**Irrat-2:** Eta erosten bezala egon zara, ezta? Nik horrela ikusi zaitut, gauzak erosten eta beraien txarteltxoetan prezioak apuntatzen eta ... Asko gastatu al duzu goiz guztian?

**Lierni:** Bai.

**Irrat-2:** Eta gero hamarretan liburutegian sartu zara. Zer egiten duzue liburutegian?

**Lierni:** Ipuin-laburpena. Ba, ipuin bat hartu eta irakurri ondoren koadernoan laburpena egiten dut. Eta gero gutunak: Gutun bat egin eta izebari edo nahi duzunari bidaltzen diozu, bera pozteko. Eta gero ipuin asmatuak ere egiten ditut: zuk asmatzen duzu istorio bat eta gero jarraitzen duzu ..., eta hola.

**Irrat-2:** Eta horretaz gain, hor fitxero batzuk ikusi ditut nik.

**Lierni:** Ba, horiek egiten ditugun lanak apuntatzeko dira, eta jakiteko maisuak zenbat lan egin ditudan.

**Irrat-2:** Lierni, zuk egunero apuntatzen duzu, ezta?, zer egin duzun: hor badaukazu zerrenda bat eta gaur hau egin dut eta bihar hau egingo dut, apuntatu egiten duzu, ezta?

**Lierni:** Bai, baina ez badut bukatzen ez; hori bakarrik bukatzen dugunean jartzen dugu.

**Irrat-2:** Eta errepikatu dezakezu asko gustatzen zaizuna, edo beti jarraitu egin behar izaten duzu?

**Lierni:** Beti jarraitu egin behar izaten dut lerroka; ze, bestela, beti kiniela-edo egiten badut, azkenean ez daukat. Eta hobe da denetarik egitea, horrela beti daukat gustatzen zaidana egiteko.

**Irrat-2:** Aizu, Lierni, ipuin asmatuak egiten dituzuela esan didazu, eta Mirenek bat asmatu du, ezta?

**Lierni:** Bai, eta *Mutiko galdua* du izena.

**Irrat-2:** Beno, Lierni, orain Koldoren bila joango gara. Gero arte.

## 2. zatia: Koldo

**Irrat-2:** Koldo Lekunberri, Egunon!

**Koldo:** Kaixo, egunon!

**Irrat-2:** Beno, Koldo, ikaragarrizko gozamena izan behar du horrelako haurrekin lan egitea, nola egiten duten lan ikusita; jarrera hori eta hain irekiak izatea.

**Koldo:** Bai, bai, niretzat behintzat oso pozgarria da eta ni harrituta nago gaur zer lasai dabiltzan haurrak. Pentsatzen nuen: beno, hainbeste jende eta tramankulu eta ikusita nerbioso egongo zirela; eta ez, ikusten dut lasai daudela, zurekin ere bai; oso ondo konpondu direla, primeran dabilela dena.

**Irrat-2:** Koldo, ni benetan harritzen nauena zera da: nire garaiko eskola gogoratzen dut -eta batez ere, haur hauen adinean- horrelako gela handi bat, guztiak esertzen ginen lurrean, eta bertan ez zegoen ezer. Eta hemen gela txokotan banatuta duzue. Gu orain, horrela sukalde antzeko zerbaitetan gaude, baduzu denda estiloko zer bat, haur txikienek ere lan egiteko leku bat, lehen Liernik esplikatu digun liburutegia ... Hori guzti hori, zergatik?

**Koldo:** Beno, alde batetik beharrezkoa da nire kasuan. Edade ezberdinetako haurrak daudenez, ezinezkoa da dena batera eramatea. Orduan, hobe da umeak taldeka ipini eta bakoitza bere aldetik joatea. Alde batetik, beno, beti daukat talde bat nirekin saio intentsiboa egiten eta besteak libre ibiltzen dira, bakoitza bere txokoan lan ezberdinak egiten. Gero, beste aldetik, haurrek bere kasa ibilita autonomia gehiago hartzen dute. Eta, beste aldetik, beno ba, pozgarriagoa dela -haurrentzat ere bai- horrela lan egitea -gauza batzuk jolasak dira: etxetxoan egotea, jolastokian aritzea, antzerkia egitea, ...-. Lana dira, nolabait, matematikako gauzak, zenbakien txokoan egiten dena edo *Baga-Biga* egiten dutenean, edo hizkuntza; baina beno, nahastuta daude, nolabait, jolasa eta lana.

**Irrat-2:** Bestela, ba al dute gero ... —hemen egongo dira zortzi-bederatzi urte arte, oso oker ez banago— inolako eragozpenik edo, ba ez dakit hogeita bost haur dagoen gela batean jarraitzeko?

**Koldo:** Ez, ez, printzipioz behintzat ez, hemendik oso ondo prestatuta doaz. Problemak sortzen dira, igual, giroagatik. Giro ezberdinak dira: Hemen giro lasaia edukitzen dute eta gero Bergaran-edo giroa askoz mugituago izaten da, agresiboagoa edo. Hemen Angiozarren dagoen pakea gero ez dute topatzen. Haur asko egoteagatik ez dute problemarik. Batzuetan elkartzen gara beste eskola unitarioekin eta talde handiak ere sortzen dira, eta oso ondo konpontzen dira taldeetan.

**Irrat-2:** Beno, Koldo, gaurkoz ez dugu beste galderarik, eskerrik asko eta hurrengo baterarte.

**Koldo:** Eskerrak zuei, eta hurrengo batean ere hemen izango gara. Agur!

# 1. AHOZKOAREN ULERMENA

- **Orain ahoz emandako adierazpen bat entzungo duzu birritan.**
- **Erantzun egokiena aukeratu eta atzeko koadroetan idatzi.**

**1.-Zer ordutan hasten dira eskolak Angiozarren?**

**a** Bederatzietan.

**b** Hamar t'erdietan.

**c** Hamarretan.

**d** Entzundakoaren arabera ezin dugu esan zer ordutan hasten diren.

**2.-Aurkezleak dioenez, zeren berri izango dugu?**

**a** Angiozarren zenbat ikasle dauden.

**b** Angiozarko eskolan zer egiten den, zelan pasatzen den, herria bera zelakoa den.

**c** Angiozar zelakoa den.

**d** Zelako ariketak egiten dituzten.

**3.-Zer egin du Liernik elkarrizketa aurretik?**

**a** Hamarrak arte liburutegiko lana egin du.

**b** Erosketak eta gainera ipuina asmatu du.

**c** Liburutegira joan baino lehen matematika ariketak egin ditu.

**d** Ipuin laburra eta gutuna idatzi.

**4.-Zertarako da fitxeroa?**

**a** Egindako ariketak apuntatzeko, irakasleak lanaren berri izateko.

**b** Eskolan gertatzen diren gauza guztiak apuntatzeko.

**c** Maisuak egindako lana apuntatzeko.

**d** Eskolan egindako erosketak apuntatzeko.

**5.-Zer egin du Mirenek?**

a) Erosketak egin eta ipuin bat asmatu.

b) Ipuin bat asmatu du.

c) Ipuin bat irakurri du.

d) Ipuina kontatu ondoren Koldoren bila joan da.

**6.-Zer dio Koldok sortu den egoeraz?**

a) Hainbeste jende eta tramankulu ikusita ikasleak harrituta daudela.

b) Harrituta dagoela hainbeste

c) Ikasleak oso lasai daudela.

d) Ikasleak oso nerbioso daudela.

**7.-Zerk harritzen du kazetaria?**

a) Ikasgelan dendak egoteak.

b) Ikasleak eserita lasai-lasai ikusteak.

c) Eskola txokotan banatuta egoteak.

d) Ikasgela hutsik egoteak.

**8.-Zer dio Koldok haurrez?**

a) Haurrak hasiera-hasieratik oso autonomoak direla.

b) Adin ezberdinetako haurrak dituela.

c) Taldeak ariketa intentsiboak egiten dituela.

d) Ikasleek beren aldetik ibiltzeko joera dutela.

**9.-Noiz arte egoten dira haurrak Angiozarko eskolan?**

a) Haur Hezkuntza amaitu arte.

b) Bergarako eskola konpondu arte.

c) Bigarren Hezkuntza arte.

d) Zortzi-bederatzi urte arte.

**10.-Ikasleek eskola hau utzi behar dutenean zer arazo izan dezakete?**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **a** | Giro ezberdinera moldatzea. | **c** | Prestakuntza falta. |
| **b** | Beste umeen agresibitatea. | **d** | Talde haunditan ibiltzeko ohitura eza. |

## 2. IRAKURMENA

- **Erantzun egokiena aukeratu eta amaierako koadroetan idatzi.**

### Elkarrizketa Abraham Olanorekin

Aurtengo denboraldi hasieran egon gara Abraham Olano anoetarrarekin. Iaz Asturiasen irabazi, Tourrean eta Munduko txapelketan lan ona egin, Espainiako bi txapelketa eskuratu... Karmele Zubillagarekin eta «Motz» zakurrarekin bizi da Altzon.

**Konta iezaguzu: nola hasi zinen txirrindularitzan eta zein da orain arte egin duzun ibilbidea?** Tolosako eskolarteko olinpiadetan izan zen lehen karrera. Tolosa eta Anoeta arteko errepidean. Bederatzi urterekin, eta irabazi egin genuen. Aurreko urtean anaia atera eta hirugarren gelditu zen. Animatu egin nintzen. Gustatu egin zitzaidan, eta benjaminetan hasi eta maila guztiak pasatu genituen. Gure anaia Andoni (orain Euskadi taldeko masajista da) eta aita afizionatuetan ibiliak dira. Aita, Oriako txirrindulari eskolako lehendakaria da orain. Beragandik jaso nuen zaletasuna. Jubeniletara arte, eskola horretan aritu nintzen. Afizionatuetan *Kaiku-Gurelesa*, *Espainiako selekzioa* eta *Avsa* taldeak, hirurak, ezagutu nituen. Profesionaletan *CHCS* taldearekin hasi nintzen, baina talde hura desagertu egin zen eta afizionatuetara itzuli nintzen *Kaikurekin*. Lasterketa batzuk egin eta profesionaletan bukatu nuen denboraldia, *Lotusekin*. Hurrengo urtean *Clas-Cajasturrera* pasa nintzen. Talde hori iaz *Mapei-Clas* deitu zen eta aurten *Mapei-GB*, erabat italiarra. Aurten laugarren denboraldia hasiko dut profesional gisa, baina lehenengo hura erdibana egin nuen afizionatuetan eta profesionaletan.

**Zer moduzko prestakuntza egin duzu denboraldi honetarako?** Lehen Iñaki Arratibel sendagile tolosarrarekin aritzen nintzen. Orain Michele Ferrari italiarrarekin hasi naiz eta San Diegon (Kalifornian) 26 egun pasatu ditut test batzuk eginez. Nola entrenatzen dudan, entrenamenduak nola asimilatzen ditudan ikusteko eta ni aztertzeko aukera izan du. Batzuek entrenamendu gutxirekin errendimendu gehiago ateratzen dute, beste batzuek gehiago entrenatu behar izaten dugu; bakoitzaren gorputz-egitura eta entrenatzeko modua desberdinak dira. Entrenamendua normala izan da, etxekoa bezalakoa: errepidean ibili eta astean bi egun-edo gimnasia. Baina han eguraldiaren abantaila izan dugu. Talde desberdinetako hamar txirrindulari izan gara: Rominger, Cipollini, Berzin, Konixev, Lelli... Nire lehenengo aldia zen. Elite horretan sartu nahiko nuke.

**Denboraldi honetan zein izango dira zure egutegiko une hoberenak?** Sasoi onean egon nahi nuke Euskal Herriko Itzulian, nire indarren %95ean ibili nahi nuke.

Gero atsedena hartu nahi dut, lasterketak utzi gabe, Tourrerako berriro ondo egoteko, eta, azkenik, Espainiako Itzulirako punturik hoberenean egon nahi nuke; aurten Itzulia denboraldi-bukaeran izanik, zaila izango da hori, baina guztion arazoa izango da hori.

**Erraz onartzen al duzue taldeko disziplina?** Normalean asimilatu egiten duzu zure lana. Badakizu zure momentua iritsiko dela, ihesaldi bat edo. Normalean ez da istilurik egoten.

**Zer moduko giroa izaten duzue tropelean zoaztenean?** Denak izaten gara lagunak, baina une jakin batean etsaiak ere bai. Gure kirola halakoa da. Nahiz eta oso laguna izan, lagunaren unerik kritikoenean eraso egingo diozu. Lagun handiena taldean daukat, Manuel Fernandez Gines, granadarra. Normalean gela berean izaten gara. Aitor Garmendia, Mikel Zarrabeitia ere lagun onak ditut. Atzerritarren artean Claudio Chiapucci, Bugno, Cipollini oso jatorrak dira. Indurainekin beste guztiekin bezala hitz egiten dut; beti zer edo zer izaten da hitz egiteko, gai askotaz hitz egiten dugu. Rominger da, niretzat, onena, nire maisua da eta pertsona bezala primerakoa.

**Txirrindularitzan ez da gertatu goi mailan zebilen batek, nazkatuta, kirola uztea, Iñaki Alaba futbolariak bezala, nahiz eta gero Realera itzuli?** Normalean profesionaletara iristerako, okerrena pasatua duzu. Ordurako ez baduzu utzi, gero ez duzu utziko. Afizionatuetan, sosik kobratu gabe, dedikazio ia osoa eskaintzen diozu. Entrenamendua gero eta gogorragoa izaten da. Nire emazteak esaten du futbolariak gaizki ohituta daudela, entrenamendu gutxi, jai asko...; egunero 5-6 orduko entrenamendua egiten jarriko lituzkeela

**Kirolaren aldetik, orokorrean, nola ikusten duzu Euskal Herria?** Potentzia da Estatuan. Bi selekzioak lehiatuz gero, Euskal Herriak irabaziko luke.

**Nola ikusten duzu egoera ekonomikoa?** Hobetzen, baina oso gaizki egon da orain dela urtebete. Gure lanean ere badu eragina: dirurik ez badago, ez dago babeslerik. Baina, dirudienez, buelta ematen ari da. Lehen egon den presioa ez da nabari orain. Orain ez doa beherantza, geldituta dago. Lehen hemengo txirrindulari-talde gehiago zegoen. Afizionatuen mailan ere nabari da beherakada hori, oso talde gutxi daude. Diru gutxiago dago eta, saltsatan sartu baino lehen, bi aldiz pentsatzen dira gauzak.

**Ezkonberria zara. Seme-alabaren bat izateko aukerarik ba al duzue txirrindulariek?** *(Karmelek protesta egin du, oso gaztea dela argudiatuz)* Nik ezin dut umea hazi, urte erdia kanpoan egiten dudalako. Txirrindulariek, edo oso gazterik edo bukaeran edukitzen dituzte. Emaztearekin, lasterketak ikustera joaten denean baino ez naiz egoten, kontzentratuta egoten garenean ere ezin sartu izaten dira. Meritu handia dute txirrindularien emazteek.

## GALDERAK

**1.-Esango didazu non eta noiz hasi zen Abraham Olano txirrindularitzan korritzen?**

a) Tolosa inguruko errepideetan hamar urte bete barik.
b) Anaiarekin batera Tolosako eskolan.
c) Jubeniletan eta Oria bailaran.
d) Benjaminetan, *Kaikurekin*.

**2.-Zelan prestatu du aurtengo denboraldia?**

a) Iñaki Arratibelen laguntza izan du.
b) Hilabete pasa eman du prestaketa berezia egiten.
c) Eliteko txirrindulari batzuekin batera.
d) Bere taldeko txirrindulariekin San Diegon egon da.

**3.-Zein helburu du aurtengo?**

a) Espainiako Itzulian bere sasoirik hoberenean egotea.
b) Tourra irabaztea.
c) Euskal Herriko Itzulian bere liderrari laguntzea.
d) Iaz bezala, egutegi barik, ondo ibiltzea.

**4.-Non korrituko du aurten?**

a) *Mapei-Clasen*.
b) Giroan.
c) Talde italiar batean.
d) Voltan.

**5.-Zelan moldatzen da ekipoan?**

a) Rominger du bere lagunik onena.
b) Arazorik gabe betetzen ditu taldearen beharrak.
c) Errepidean Indurain du bere kontseilari.
d) Ez du lagun askorik txirrindularien artean.

**6.-Zer uste du Abrahamek bere kirolaz?**

a) Behin profesionaletara helduta errazagoa dela.
b) Entrenamendu gutxi eta jai asko dutela.
c) Goi mailan aritzea sarritan nazkantea dela.
d) Afizionatuetan diru gehiago ordaindu beharko luketela.

**7.-Nongoa dugu Abraham?**

a) Tolosakoa.
b) Altzotarra.
c) Nafarra.
d) Anoetakoa.

**8.-Zelan ikusten ditu Euskal Herriko txirrindulari-taldeak?**

a) Babesle asko dituztela.
b) Afizionatuetan talde gutxi dagoela.
c) Selekzioa Estatukoa bezain ona dela.
d) Hobetzen ari direla.

**9.-Zelan joaten zaio denboraldia?**

a) Hainbat hilabete etxetik kanpo ematen ditu.
b) Egun osoan entrenatzen.
c) Ia urte osoa kontzentratua.
d) Suertea du, emaztearekin batera egoteko aukera baitu.

**10.-Zer egin zuen iaz?**

a) Denboraldi osoan geldi egon.
b) *Clas-Cajasturren* korritu zuen.
c) Beren ume bakarra izan zuten.
d) Asturiasen garaile gertatu zen.

# 3. IDAZLAN LABURRA

**Idazlan honek 100 hitz inguru izan behar ditu**

Euskadi Irratiko «Maritxu Berritsu» haur-saioan parte hartzeko nahia azaldu dute zure ikasleek. Horretarako, zenbait ideia aurkeztu dituzte ikasleek beraiek (bertsoak kantatu, txisteak kontatu, ipuin bat asmatu edo antzeztu...). Ez dakite, ordea, zein bide erabili horretarako.

Idatz ezazu eskutitz bat irratira, zure ikasleen nahia azalduz eta parte hartzeko argibideak eskatuz.

# 4. IDAZLAN LUZEA

**Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta 200 hitz inguruko idazlana osatu behar duzu.**

**1.**-Duela egun batzuk Diputazioko Gazteria eta Kirol Departamentuak udalekuei buruzko informazioa bidali dizue eskolara. Urtero bezala, fotokopiak atera eta gurasoei bidaltzeko asmoa duzu. Aurten iragarkiarekin batera gurasoei haurrak udalekuetara bidaltzeko aholkua eman nahi diezu, besteak beste, euskara lantzeko aukera paregabea eskaintzen dutelako udalekuok.

Hona hemen gurasoei aholkuak eman ahal izateko iragarkiak zekarren oinarrizko informazioa:

| ADINAK | IRAUPENA | TOKIA | PREZIOA |
|---|---|---|---|
| **6-8 urte** | Uztailaren 1etik-10era | Orio | 13.500 |
| | Uztailaren 11tik-20ra | Zuaza Irla | 14.500 |
| | Abuztuaren 1etik-10era | Zornotza | 14.000 |
| **9-13 urte** | Uztailaren 1etik-15era | Zuaza irla | 14.500 |
| | Uztailaren 16tik-30era | Zornotza | 14.000 |
| | Abuztuaren 15etik-30era | Orio | 13.500 |
| **14-18 urte** | Uztailaren 15etik-30era | Zornotza | 14.000 |
| | Abuztuaren 1etik-15era | Orio | 13.500 |
| | Abuztuaren 15etik-30era | Zuaza irla | 14.500 |

**EDO**

**2.**-Duela gutxi autopista-zerbitzua hobetzeko asmoz edo, ondoko inkesta hau eman zizuten eta honelaxe bete zenuen:

| | Ongi | Gaizki |
|---|---|---|
| **Peajea** | | |
| Ordaintzeko sistema | | |
| Prezioa | | |
| **Zerbitzu-guneak** | | |
| Pertsonalaren harrera eta tratua | | |
| Areto eta komunen garbitasuna | | |
| Atseden-guneen segurtasuna | | |
| **Autopista** | | |
| Zoruaren egoera | | |
| Sarrera-irteeren seinalizazioa | | |

Bestalde, eta horretarako aukera eman zitzaizunez, alde batetik zure esperientziaren berri eman nahi duzu (iladak, izandako istilu edo gorabeheraren bat, zerbitzuen desegokitasuna...), eta bestetik, hobetzeko proposamenak egiteko aprobetxatu. Egizu idatzia bi puntu horiek kontuan hartuta.

# I.2. DEIALDI IREKIA: HE2ko AZTERKETA

## IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

**HE2**
**Eredua: D**

**1. PROBA**

**1995eko ekainaren 17a**

**1. deitura:** ..........................................................

**2. deitura:** ..........................................................

**Izena:** ................................................................

**NAN zkia.:**

## OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. Atera ezazu suelto dagoen erantzun-orria koaderno honetatik.
3. Konproba ezazu koadernoa eta erantzun-orria eredu berekoak direla.
4. Konprobatu azterketa honek 12 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
5. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak erantzun-orrian eta koaderno honetan.
6. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
7. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
8. Gelan ezin da erre.
9. Amaitzen duzunean, ez mugitu aulkitik arduradunek azterketa-materialak jaso arte.

# ARRETAZ IRAKURRI

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 40 asmatu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Koaderno honetan **EZ** idatzi.
- Erantzun okerrengatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira ekainaren 22an.
- Gainditzen dutenek ekainaren 29an izango dute HE2ko 2. proba, Ordezkaritzan agertuko diren leku eta orduetan.

01.-*Arantzak bere senarraren ama ..................... du.*

a) suhia
b) erraina
c) amaginarreba
d) aitaginarreba

02.-*Ikusitakoak ............., alferrik zen ezer egitea.*

a) ikusita
b) ikusitakoan
c) ikusia
d) ikusitakoa

03.-*Biltokira iritsi gara eta inor ez dago: berandu iritsi......... seinale.*

a) garela
b) garen
c) garelaren
d) garenen

04.-*Damu dut gaztetan gehiago .................... .*

a) ez ikastea
b) ez ikasia
c) ez ikastearena
d) ez ikasi arren

05.-*.............. izendatu nindutenetik, ................... gainezka nabil.*

a) Ordezkari / lanez
b) Ordezkarirentzat / lanez
c) Ordezkaria / lanez
d) Ordezkaritzat / lanaz

06.-*Horrela ibili nahi badu, eskubide guztia du; ........................ nahi duena.*

a) egin dezala
b) egiteko
c) egin dezan
d) egin dadila

07.-*Ixil ............, ez baitut ezer ganorakorik esaten!*

a) nadin
b) dadila
c) nadila
d) bedi

08.-*Zein zoroa ........ bizitza!*

a) da
b) dela
c) den
d) denik

09.-*Zuk ez duzu...................horretan. Gure kontua da.*

a) zer esanik
b) ezer esanik
c) zer esaterik
d) ezer esana

10.-*Gonbidatzen zaituen hurrengoan .......................... zerbait!*

a) daramazu
b) eraman dezazun
c) eukazu
d) eramazu

11.-*Baietz esan ..................... , baina ez zitzaidan egokia iruditu.*

a) niezaiokeen
b) nioke
c) niezaioke
d) nenkioke

12.-*Taxi bat hartzeko esan izan bagenio, lehenago ......................... atzoko hitzaldira*

a) helduko litzateke
b) helduko zen
c) hel liteke
d) hel zezakeen

13.-*Neska batzuk agurtu ditut zu ezagutzen ...................... .*

a) zaituztela
b) zaituzten
c) dituzunak
d) zaituztenak

14.-.........*jardunaldiak hilaren .........................hasiko direla entzun dut.*

a) Otsailako.......hamaikean
b) Otsailako ......hamaikan
c) Otsaileko .......hamaikean
d) Otsaileko .......hamaikan

15.-*Bai ederki gelditzen ............ belarritako horiek!*

a) zaizkizu
b) zaizkizun
c) zaizun
d) zaizkizula

16.-*Zuk esandakoak .............. eman zidan.*

a) pentsatzeari
b) ezer pentsatzeko
c) zer pentsatua
d) ezer pentsatua

17.-*Bidali txosten hauek bilerakide guztiei, begiratu bat eman .............. .*

a) diezaieten
b) dakizkien
c) ditzatela
d) diezazkien

18.-*Saiatu naiz, baina ez .............. gauzak argitzerik izan.*

a) dut
b) dago
c) dizkiot
d) ditut

19.-*Ez ............... ezertarako balio izan zuk lagatako ................. .*

a) zait / materiala
b) dit / materialak
c) dit / materiala
d) dizkit / materialak

20.-*Balkoi bakoitzak bere filigrana zeukan, ...................... bihurriagoa.*

a) zein baino zein
b) areago
c) ahalik eta
d) albait eta

21.-*Nire ustez gai hau dagoen bezala utzi behar...........*

a) dela
b) da
c) den
d) litzatekeela

22.-*Zure osasunerako hoberena .................. da.*

a) tabakoaz lagatzea
b) tabakoa uzteari
c) tabakoa uztea
d) tabakoa utzi

23.-*Xelebreak dira bi horiek: beti ................ihesi eta beti ..........segika ibiltzen dira.*

a) elkarrengandik ..................elkarri
b) elkarren............................elkarren
c) elkarrengandik..................elkarren
d) elkar.................................elkar

24.-*...........batera etorri zen aterpe .......... herriraino.*

a) Nerekin....batetatik
b) Nirekin.....batetik
c) Nerekin.....batetik
d) Nirekin......batetatik

25.-*Edozein gauza egingo nuke nik .......................*

a) familiatikan.
b) familiagandik.
c) familiarengatik.
d) familiarengandik.

26.-*Ez daukazu zertan ................... erlojurik; pila aldatzea aski duzu.*

a) erostea
b) erosia
c) erosi behar
d) erosi

27.-*Makina hori ez da bakarrik hondatu: ...............ukituko zuen.*

a) nork edo nor
b) edonork
c) baten batek
d) nornahik

28.-*Egin ezazu ...................... gustatzen zaizuna.*

a) gehien
b) gehitxo
c) gehienen
d) gehiengoz

29.-*Hegoaldeko .................. gehienek ................. bizi-mailara iritsi nahi lukete.*

a) europatar .............................. amerikarren
b) europar ................................ amerikarren
c) europatar .............................. amerikatarren
d) europar ................................ amerikatarren

30.-*Hutsaren hurrengoak ...................... hartu gintuzten.*

a) baiginateke
b) ginatekeen bezala
c) bagina bezala
d) bagina bezalakoak

31.-*Bide bakarra dago. Beraz, iaz egindako bide .................... joango gara aurten ere.*

a) bertan
b) beretik
c) bertatik
d) berdinetik

32.-*Hor aurrean ikusten duzun andere hori da lanetik bota...........*

a) ninduela
b) ninduenak
c) ninduenekoa
d) ninduena

33.-*Korrika joan zen ......... punta batetik .............. ..*

a) Bizkaiko ........... Donostiraino
b) Bizkaiko ........... Donostiaraino
c) Bizkaiako........... Donostiraino
d) Bizkaiako........... Donostiaraino

34.-*Diru mordoa .................... ez da zoriontsua.*

a) edukiagatik ere
b) badauka ere
c) edukiz
d) nahiz eta eduki

35.-*Ezin .................... bere laguna konbentzitu.*

a) omen izan du
b) izan omen du
c) izan du omen
d) omen du izan

36.-*Zeregin hori zuek .................. nahiago genuke guk.*

a) egitea
b) egiteak
c) eginik
d) egin

37.-*Eskolako aldizkarian artikulua idatzi ..............., iritziz aldatu naiz.*

a) zenuen eta gero
b) zenuen geroztik
c) zenuenez hona
d) zenuenez geroztik

38.-*Hara non datorren, .......................*

a) egunkaria besapean eta makila eskuan duela.
b) egunkaria besapean eta makila eskuan eramaten.
c) egunkariaz besapean eta makilaz eskuan.
d) egunkariarekin besapean eta makilarekin eskuan.

39.-*Andoni da nire lagunik onena. Bera da ................. ezagutzen nauena.*

a) hobeki
b) hobeto
c) ondoen
d) hoberen

40.-*Oso ondo eman ziguten ........... jatetxe hartan.*

a) jaten
b) jateaz
c) jatea
d) jatean

41.-*Zer galdetu didazu, ea Gorkarekin .......................................?*

a) topo egiten badudan, esango al diodala?
b) topo eginez gero esango al diodala?
c) topo eginez gero esango al diodan?
d) topo egiten badudala esango al diodan?

42.-*Oso txarrak dira ikasten; ..................... oso jatorrak.*

a) gainerantzean
b) bestela behintzat
c) behinik behin
d) bestela esanda

43.-*Zuk ere izango zenuke aukera; ez duzu horretarako gogorik, ......... .*

a) bestalde
b) izan ere
c) ordea
d) behintzat

44.-*Ez da zuk diozun bezain zaharra, asko ...................... 65 urte ditu.*

a) izanik
b) bezala
c) emanda
d) jota

45.-*Ahalik eta denbora gutxien ematen du etxean. Izan ere,................*

a) ez dauka etxean egoteko astirik.
b) gehiago egotea gustatuko litzaioke.
c) hain du giro txarra etxean!
d) hain ondo pasatzen du bertan!

46.-*Kanpokoek bakarrik ez, ...................literatur lan onak ditugu.*

a) euskaldunok baita
b) euskaldunok ere bai
c) euskaldunok ere
d) baita euskaldunok

47.-*Tortila frantsesa egiteko, lehenengo arraultzak ........................ behar dira.*

a) irabiatu
b) zorabiatu
c) xaxatu
d) errun

48.-*Ume hori lotsati .................. da.*

a) erabat
b) askoa
c) osoa
d) demasa

49.-*Azken gola arbitroak emandako sei minutuko ............... lortu zuen gure ekipoak.*

a) luzaketan
b) luzaeran
c) luzeran
d) luzapenean

50.-*Idatzita dagoen zerbait interpretatzen ez dakigunean, hoberena testua idatzi ........... galdetzea da.*

a) duenari berari
b) duen berari
c) duena berari
d) duena berberari

51.-*Zuzen nagoen ala ez, bestek esan beza; garbi dago, ... , ez ginela hura eta ni iritzi batekoak.*

a) beraz
b) ondorioz
c) nolanahi ere
d) hala nola

52.-*Ez nuen bertan ezer ikusi, lau traste zahar ................... .*

a) izan ezik
b) ez ezik
c) baino gehiago
d) ez baziren

53.-*Mesedez, ez nazazue .............. utz.*

a) lotsagarriz
b) barregarritan
c) barregarri
d) lotsagarria

54.-*Erabat etsita, .............. nengoenean, zuen laguntza aurkitu dut.*

a) uztekoan
b) uzterakoan
c) uztekotan
d) uzteagatik

55.-*Zeinekin joango zinateke oporretan?* Aukeratu erantzunik egokiena.

a) Ez nintzateke inorekin ere ez joango.
b) Ez nintzateke ezta inorekin joango.
c) Ez nintzateke inorekin joango.
d) Inorekin joango nintzateke.

56.-*Zertan ari zara?*. Aukeratu erantzunik egokiena.

a) Ezertan.
b) Ezertan ere.
c) Ezer ere ez.
d) Ezertan ere ez.

57.-«*Ondo pentsatu eta datorren astean erantzun*». Zer esan zion?

a) Ondo pentsa lezan eta hurrengo astean erantzungo ziola.
b) Ondo pentsatu eta hurrengo astean erantzun zekiola.
c) Ondo pentsatzeko eta hurrengo astean erantzuteko.
d) Ondo pentsa zezala eta hurrengo astean erantzun zekiola.

58.-«*Astirik izanez gero egingo dut*». Zer esan zuen?

a) Astirik baldin bazuen egingo zukeela.
b) Astirik baldin bazuen egingo zuela.
c) Astirik baldin balu egingo zuela.
d) Astia duenez, egingo duela.

59.-Ondokoetatik zein **ez** da gorputz-atala?

a) garondoa
b) hestea
c) zila
d) garoa

60.-Ondokoetatik bat **ez** da landarea. Zein da?

a) arbia
b) zumea
c) gorua
d) txilarra

61.-Ondokoetatik zein **ez** da arbola?

a) urkia
b) zumarra
c) haltza
d) ezkurra

62.-*Elenak ahaleginak egin zituen, baina ezin izan zuen.* Bilatu baliokiderik hurbilena.

a) Elenak, ahaleginak egitearren, ezin izan zuen.
b) Elenak, ahaleginak eginagatik, ezin izan zuen.
c) Elenak, ahaleginak egiteagatik, ezin izan zuen.
d) Elenak, ahaleginduta arren, ezin izan zuen.

63.-*Aspaldiko partez gaur kantatu egingo dugu klasean.* Bilatu baliokiderik hurbilena.

a) Aspalditik egiten den bezala, gaur kantatu egingo dugu klasean.
b) Aspaldiko ohitura den bezanbatean, gaur kantatu egingo dugu klasean.
c) Denbora asko da klasean kantatzen ez dela eta gaur hori egingo dugu.
d) Inoiz egin ez den bezala, gaur kantatu egingo dugu klasean.

64.-*Aurki izango duzue espero duzuen erregalua.* Bilatu baliokiderik hurbilena.

a) Laster izango duzue espero duzuen erregalua.
b) Hurbil izango duzue espero duzuen erregalua.
c) Urrun izango duzue espero duzuen erregalua.
d) Inguru honetan izango duzue espero duzuen erregalua.

65.-*Ogi gogorrari, hagin zorrotza.* Zein da esaera honen esanahia?

a) Gogortasunak zorroztasuna dakar.
b) Egoera larri baten aurrean zorrotza izan behar da.
c) Egoera larri baten aurrean ez da etsi behar
d) Egoera larri baten aurrean ez da gogor jokatu behar.

66.-*Gero dioenak bego dio.* Zein da esaera honen esanahia?

a) «Gero» eta «bego» sinonimoak dira
b) Begok gero zerbait esango dio.
c) Gerorako uzten dena hor gelditzen da.
d) Konfidantza izan behar dela geroan, gauzak konponduko baitira.

67.-*Jaun Beltzak zalditik* **jauzi egin** eta aurrera jarraitu zuen oinez. Bilatu *jauzi egin*-en baliokidea.

a) salto egin
b) erori
c) irrintzi egin
d) jaurtiki

68.-*Hark esan dit. Horregatik dakit.* Bilatu baliokiderik hurbilena.

a) Harengatik esanda dakit.
b) Hark esana dakit.
c) Harengandik esanda dakit.
d) Hark esanda dakit.

69.-*Egoera horien aurrean ez dut asmatzen zer esan, ez nora begiratu.* Bilatu baliokiderik hurbilena.

a) Zer esaten eta nora begiratzen ez dakidala gelditzen naiz.
b) Zer esan eta nora begiratu ez dakidala gelditzen naiz.
c) Zer esan eta nora begiratu ez jakiten gelditzen naiz.
d) Zer esan eta nora begiraturik jakin gabe gelditzen naiz.

70.-*Aita aspaldi hil zen arren, semeak ....*

a) oraingoz ez zekien ezer.
b) jadanik ez zekien ezer.
c) zegoeneko ez zekien ezer.
d) artean ez zekien ezer.

# IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

**HE2**
**Eredua: A**

**2. PROBA**

**1995eko ekainaren 29a**

**1. deitura:** ..........................................................
**2. deitura:** ..........................................................
**Izena:** ..........................................................
**NAN zkia.:**

## OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. Konproba ezazu azterketa honek 11 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
7. Azterketa-material guztiak entregatu behar dira amaieran.

# ARRETAZ IRAKURRI

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Irakurmena 2) Idazlan laburra 3) Idazlan luzea.
- Denbora: **3 ordu**.
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira uztailaren 4an.
- Gainditzen dutenek **ahozko proba** izango dute, Ordezkaritzan agertuko diren leku, egun eta orduetan (uztailaren 6tik 11ra bitartean).
- Ahozko probara doazenei proba hori zintan grabatzeko aukera emango zaie. Erantzun mesedez ondoko galderari gurutzetxo batez (erantzuten ez bada grabaziorik ez dela nahi ulertuko da):

| | BAI | EZ |
|---|---|---|
| **NAHI DUZU ZURE AHOZKO PROBA GRABA DADIN?** | ☐ | ☐ |

# 1. IRAKURMENA

- **Erantzun egokiena aukeratu eta amaierako koadroetan idatzi.**

### Arma, tiro, pun!

Iraila eta urria ere joanak ditugu honez gero, eta berauekin batera, hainbat ......(1)...... urtero burutzen duten hegoalderanzko migrazioa ere ......(2)...... azkenetan da gure herriko zeruetan barrena, eta uso, usapal eta gainerakoak urruntzen doazkigun ......(3)......, azken asteotan gure mendi eta haranak astindu dituzten tiro-andana atsekabe horiek ere behera egingo dute pixkanaka. Baina ehiza-sasoia ez da oraindik bukatu, otsailera arte ......(4)...... baita gutxienez; eta hori bertako administrazioek «kontrapasa» izenaz ezagun den udaberriko saioa baimentzeari uko egiten badiote.

Orain artekoa irakurrita, «ehiza ez - ehiza bai» eztabaida antzuaren beste atal bati hasiera eman ......(5)...... ote nabilen pentsa dezake irakurleak, edota «ekologisten» eta «ehiztarien» kontrapasaren inguruko norgehiagoka amaigabeari eutsi nahi ......(6)...... akaso. Ez da hori, inondik ere, nire asmoa. Ez dut inor horrenbesteraino aspertu nahi!

Aitzitik, ehizaren kontrako erabateko jarrerak pixkanaka bazterreratuak izan ......(7)...... nago talde ekologisten artean, eta ikuspuntu kontserbazionistari eutsiz, eta lurraldeak eskaintzen dizkigun baliabide naturalen ustiapena ingurunearen balio naturalen babesarekin ......(8)...... nahian, behar bezala kudeaturiko iharduera zinegetikoa irtenbide egokia eta interesgarria izan daitekeen ustea gero eta gehiago ari da zabaltzen. Nekazaritza eta abelzaintzak atzera egiten duten aro honetan, ehiza baliabide probetxugarria suerta ......(9)...... hainbat eskualdetan etekin ekonomikoa lortzeko, eta zenbait eremu ehizaren kudeaketarako bidean lantzeak hauek kontserbazio-egoera onean mantentzea eskatuko luke, ingurunearen kalitate naturalistikoa hobetzea ere ......(10).......

Planteamendu hauek bideragarri izan ......(11)......, alabaina, «kudeaketa» dugu hitz gakoa zalantzarik ......(12)....... Edo bestela esanda, ehiza baliabide interesgarritzat jotzeak ez du inondik ere esan nahi gehiago ehizatu behar denik, edota ehiztariek nahi duten moduan joka dezaketenik, ez eta kontrakorik ere. Ikerketa zorrotzen ondorioz aurrikusi behar dugu zer ehiza daitekeen eta zer ez, non eta noiz, zenbat eta nola, zenbat ar, zenbat eme, zenbat gazte, zein espezie sar daitekeen eta zein ez, sartzapenak nola ......(13)......, nondik ekarrita...

Eta gai hauei dagokienean ere talde ekologistek eta ehiztariek ......(14)...... egiteko ordua iritsia da jadanik. ......(15)......, behar bezalako kudeaketaren emaitzak guztiontzat bailirateke mesedegarri. Zenbat eta kudeaketa hobea burutu, ......(16)...... eta ehiza ugariagoa izan genezake datozen urteotan, eta lurralde ge-

hiago erabili ahal izango dugu erreserba gisa, ehizean gehiago aritzeko eta bertako balio naturalak ......(17)...... bideak eskainiz. Ekologisten artean makina bat hasia da jadanik bide honetan. Ehiztarien elkarteei dagokie orain erronkari ......(18)....... Prest ote daude, plangintza zientifiko zorrotzei atxikiz, zenbait urtez presio zinegetikoa murrizteko, etorkizunean ehiza gehiago izateko bidean? Prest al daude datu objektibotan oinarritutako plangintza zehatzak bultzatu, bideratu, eta euren defentsaren lidergoa hartuz betearazteko? Ni ......(19)...... nago. Tamalez, «nik botatzen ez badiat aldamenekoak botako dik!» eta «dagoenean bonbon eta ez dagoenean hor ......(20)......!» bezalakoak dira oraindik nagusi ehiztarien artean, eta horrela ez da kudeaketarik, ez etorkizunik izanen ez ehizarentzat, ez eta naturarentzat ere.

Joxerra Aihartza, ELHUYAR aldizkaria

| **(1)** | **(2)** | **(3)** | **(4)** | **(5)** |
|---|---|---|---|---|
| A) hegaztik | A) bere | A) bezala | A) amaituko | A) beharrean |
| B) hegaztiak | B) beren | B) mailan | B) iraungo | B) diezaiodan |
| C) hegaztiek | C) haien | C) modura | C) joango | C) nahian |
| D) hegazti | D) haren | D) neurrian | D) luzatuko | D) nakion |
| **(6)** | **(7)** | **(8)** | **(9)** | **(10)** |
| A) diezaioten | A) direla | A) zaindu | A) dadin | A) bideratu |
| B) diodala | B) direlakoan | B) segitu | B) daiteke | B) bideratuz |
| C) diodan | C) diren | C) uztartu | C) dezake | C) bideratu arren |
| D) dudala | D) ez ote diren | D) bideratu | D) zedin | D) bideratzen |
| **(11)** | **(12)** | **(13)** | **(14)** | **(15)** |
| A) daitezela | A) ez | A) burutu | A) bat | A) Aitzitik |
| B) daitezen | B) eza | B) burututa | B) batean | B) Beraz |
| C) daitezke | C) gabe | C) burutuz | C) elkar | C) Hala ere |
| D) ditzagula | D) txikiena | D) burutzea | D) elkarrekin | D) Izan ere |
| **(16)** | **(17)** | **(18)** | **(19)** | **(20)** |
| A) hainbat | A) hoberako | A) deitzea | A) baiezkoan | A) dago |
| B) hala | B) hobetuz | B) erantzutea | B) ezezkoan | B) egon |
| C) zenbait | C) hobetzean | C) galdetzea | C) horretan | C) gogor |
| D) zenbat | D) hobetzeko | D) laguntzea | D) seguru | D) konpon |

## 2. IDAZLAN LABURRA

**Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta garatu behar duzu.**
**Luzera: 200 hitz inguru idatzi behar dituzu.**

**1.**-Ikasturte bukaeran, urtero bezala, hiru eguneko egonaldia egiteko asmoa duzu zure ikasleekin batera aterpetxe batean. Bertan egingo dituzun ekintzen artean inguruko pertsona batekin egoteko aukera aztertzen ari zara. Halakoetan normalean ikasleek idatzi ohi diote pertsona horri, baina aurretiaz zeuk idaztea erabaki duzu zenbait kontu zehazteko asmotan. Hona hemen lagungarri gerta dakizukeen zenbait puntu:

— Zein zaren.
— Taldea nongoa den: herria/hiria, ikastetxea...
— Haurren ezaugarriak: adina, euskara ezagupenak, interesak...
— Taldearen egonaldiari buruzko zehaztasunak: non, noiz, zertarako...
— Ikasleek idatziko dioten gutunaren berri.
— Etab.

Lana burutzeko kontuan har ditzakezun pertsonaia posible batzuk: herriko alkatea edo pertsonaia xelebreren bat, aktoreak, kantariak, bertsolariak, kirolariak, idazleak, txiste kontalariak, euskaltzainak...

**EDO**

**2.**-Irakasle talde batek aldizkari (edo irrati) bat sortzea eskolarako onuragarria litzatekeela uste duzue. Ideia hori hurrengo klaustroan proposatu nahi duzue eta, horretarako, zuen ideiak biltzen dituen txosten moduko bat idaztea bururatu zaizue. Honako hauek aipatu nahi dituzue.

— Zergatik den onuragarria.
— Nola txertatu ikastetxearen hezkuntza-proiektuan.
— Antolamendua: arduradunak, nola jaso lanak, zer argitaratu aldizkarian (edo igorri irratiz)...
— Beharrizanak: baliabide ekonomikoak, tresnak, lekua...

# 3. IDAZLAN LUZEA

**Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta garatu behar duzu.**
**Luzera: 350 hitz inguruko idazlana egin behar duzu.**

**1.**-Hona hemen ikasturte hasieran eskola-kontseiluko bilera batean entzundakoak:

> *«Gaurko gazteek ideiak adierazteko zailtasun handiak dituzte eta erabiltzen duten hiztegia oso eskasa da, ortografia zer esanik ez»*
>
> *«Haurrek eta gazteek eskolan ikasitakoak ez du zerikusirik gerorako beharko dutenarekin»*
>
> *«Ikasleek ez dute ikasteko batere motibaziorik eta hori gurasoen errua da. Dena den, irakasleek ere metodologia eta ekintza erakargarriagoak erabili beharko lituzkete»*

Irakasle eta gurasoen artean antzemandako etsipen giro **horrek eskolako aldizkarirako iritzi artikulu bat** idaztera bultzatu zaitu, giroa suspertzeko asmotan. Hona hemen hori bideratzeko zenbait puntu: hezkuntz sistemak izan ditzakeen alde onak, akatsak eta konponbideak. Horrez gain, zer jarrera izan beharko luketen gurasoek eta profesionalek -irakasleek- gauzak ahalik eta hobekien ateratzeko aurrera.

**EDO**

**2.**-Gazteen egoeraz hitz egiten denean, askotan drogen kontsumoa izaten da aipatutako gai bat. Izan ere, adituek diotenaren arabera, alkohol, tabako, kokaina eta droga sintetikoen kontsumoak gora egin du azken bolada honetan.

Auzoko aldizkariaren arduradunak, gazteengan arazo honek izan dezakeen eraginak kezkaturik, iritzi-artikulu bat idaztea eskatu dizu, gazteen artean zabiltzan irakaslea baitzara. Besteak beste, honako hauek aztertzen ahalegintzeko eskatu dizu:

- — Kontsumoaren arrazoiak: famili arazoak, balore falta, langabezia...
- — Ondorioak: osasunean, eskola-errendimenduan, auzoko eta eskolako elkarbizitzan....
- — Zer egin daitekeen eskolatik: prebentzioa, familiarekin harremanak...

# II. 1995eko LEHEN DEIALDI ITXIA

## II.1. LEHEN DEIALDI ITXIA: HE1eko AZTERKETA

### IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

**HE1**
**Eredua: A**

**IDATZIZKO PROBA**

**1995eko urtarrilaren 31a**

**NAN:** .........................................................................

**Euskaltegia:** ................................................................

**Taldea:** .....................................................................

### OHARRAK

1. Konprobatu azterketa honek 9 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
2. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
3. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
4. Irten baino lehen, azterketa-materialak entregatu behar dira.

# AHOZKOAREN ULERMENA: TRASKRIBAKETA

Ariketa honetarako *Euskadi Irrati*an egindako elkarrizketa bat erabili zen. Jarraian grabazioaren transkribaketa ematen da.

### Baserria eskoletan

Gauza asko erakusten dituzte gaur egun eskoletan baina ume eta gaztetxo askok; beno hain gaztetxo ez garenok ere, hor nonbait, baserri munduaren arrasto handiegirik ez dute umeek eta, oinarri oinarrizko diren gauza asko eta asko falta zaizkie euren jakituria osatzeko.

Beti kontatu izan da Estatu Batuetako eskola-umeei oilaskoa marrazteko eskatu eta labetik erreta ateratako oilaskoa egin zutela gehienek. Beharbada, oilaskoa aniamalia bizia denik ere ez dute jakingo eta nolako den ere ez.

Esnea nondik eta nora lortzen den galdetutakoan tetra-bricketik erantzun ohi dute bakarren batzuk.

Exajeratu xamarrak dira bi adibide horiek, bai, baina gertatzen ari denaren ispilu izan daitezke. Kezka horrekin ari dira ugaltzen gure artean baserri-eskolak eta eskoletan baratzeak jartzeko asmoak.

Baserri-eskola izeneko etxe horietara joaten dira umeak egun pasa edo egonaldi batzuk egitera baserri mundu hori gertuagotik ezagutzeko.

Eta orain bertan Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak Euskal Autonomi Elkarteko laurogeita bi eskolari diru-laguntzak ematea onartu du eskoletan baratzeak jar ditzaten.

Zerbaiten seinale izango da guzti hau, jakina, eta gauza beretsua gertatzen da itsaso eta arrantza munduan ere. Lekeition ari dira ahaleginetan bertako umeek arrainak ezberdintzen ikas dezaten gutxienez-gutxienez.

Eta barazkiak eta zuhaitzak eta animaliak eta zein zer den asmatzen lanak izango lituzkete gaur gaztetxo askok eta lehen ere esan dugu hain gaztetxo ez garenoi ere kontuz galdetu orokorrean ari baita galtzen ezagutza eta kultura hori.

Zer pentsa jartzeko moduko kontua eta halaxe jarri gaitu gu ere, beraz, gai hauxe jorratuko dugu gaur.

Busturialdean, Ajangizen, baserri-eskola ireki berri xamarra dute. Eskola umeei, bada, mundu hori erakusteko.

— Olga Erezuma, kaixo, egunon!
— Bai?
— Zer erakutsi behar diezu umeei zuen baserri-eskola horretan, Ajangizen?

— Beno, ba, lehenengo eta behin; beno, guk lau lan-proiektu lantzen ditugu. Batetik baserri mailan lan egiten dugu, bestetik basoan, errekan eta gero marisma aldea apurtxo bat.

— Zenbaterainokoa dela uste duzu kultura horren eza edo falta?

— Beno, ba, nahikoa. Gaur egun ikusten da ... Erreforma Edukatiboan, bada, behintzat zertxobait sartzen ari dela eskoletan. Baina, horren falta handia dago oraindik. Eta ez bakarrik eskoletako umeekin, baizik eta nagusietan ere falta handia ikusten dugu.

— Non dago eten hori, zenbat urtetik beherakoek dute ezjakintasunik handiena?

— Beno, zenbat urtetik beherakoetatik dinozu?

— Ba, ez dakit, nik ikusten dut txikiek ere, beno, gaur egungo kultura ikusita, bada, beno denak ikusten dute eta gauzak ikusten dituzte, ba telebistan bezala, ezta. Arraultzak nondik datozen ez dakite. Esnea nondik datorren? Ba Tetra-briketik uste dute datorrela. Eta orduan hori dena erakutsi behar zaie eta ez bakarrik erakutsi, bada, bertara etorri eta ekintzen bidez konturatu daitezen.

— Hasi zarete, jada?, ala oraindik ireki berria duzue eta umeak hor daude?

— Bai taldetxo batzuk izan ditugu, baina, beno, demanda gehiena udaberri alderako izaten da.

— Zenbat umerentzako duzue lekua?

— Tokia laurogei umerentzat.

— Eta nongo umeak joango dira, batez ere, zuen etxera?

— Ba, beno Bizkaia aldetik gehien bat, ezta? Baina bai Nafarroa aldetik eta Gipuzkoa aldetik ere etortzen dira.

— Eta hor lan eginez ikasten dute?; bertan, ortuan, eta lan eginez?

— Bai, beraiek hartzen dute parte, bai baserriko animaliekin eta lan egiten, ba, garbitzen oheak eta jaten ematen eta ortuan ere eurek egiten dute lan. Gero basora ere halako irteeratxo batzuk egiten ditugu; bertako baso ezberdinen konparazioak eginez eta berezitasunak ikusteko.

— Bada, Olga Erezuma Ajangizko baserri-eskolako berri emateagatik, eskerrik asko!

— Mila esker, zuei!

# 1. AHOZKOAREN ULERMENA

**Orain ahozko testu bat entzungo duzu bi aldiz.**
**Erantzun zuzenei borobil bat egin.**

GALDERAK

**1.-Zer gertatzen da baserri-munduarekin?**

**a** Baserri-munduaren gauza asko falta zaizkigu gure jakituria osatzeko.

**b** Gehienok ez dugu arrastorik ere baserriak non diren.

**c** Baserritarrei asko falta zaie bere jakituria osatzeko.

**d** Gaztetxoek eta zenbait helduk baserri-munduko ezagupen urria dute.

**2.-Zer gertatu da Estatu Batuetan umeei oilaskoaren marrazkia egiteko eskatzerakoan?**

**a** Gehienek labetik ateratako oilasko errea egiten dute.

**b** Ume bakar batzuek oilasko errea baino ez dute ezagutzen.

**c** Ez dakite nolakoa den eta ez dute somatzen ere animalia bizia dela.

**d** Gehienek labean erretakoa baino ez dute ezagutzen.

**3.-Amerikar umeen ustez nondik ateratzen da esnea?**

**a** Gehienen ustez tetra-briketik ateratzen da.

**b** Bada tetra-briketik datorrela erantzun duenik.

**c** Gehienek ez dakite zer erantzun galdera horren aurrean.

**d** Bakarren batek ez du uste tetra-briketik datorrela.

**4.-Zer egiten da ezagupen urri hori konpontzeko?**

a Baserrietan egonaldiak egin eta eskoletan ortuak jarri.

b Baserri-eskoletan baratzeak jarri.

c Eskola batzuk baserri bihurtu dira.

d Eskoletan barazkiak landatu, baserrietara joan behar ez izateko.

**5.-Zer dela eta ematen du dirua Nekazaritza Sailak?**

a Eskola batzuetan ortua jartzeko.

b Eskola batzuetan baserriaren azterketa egin dezaten.

c 82 eskolatan barazkiak erosteko.

d Haurrak baserri eskoletara joateko.

**6.-Zein helburu du Lekeitioko ahaleginak?**

a Lekeitio eta inguruak ezagutzea.

b Itsasoan arrainak direla jakitea.

c Bertako umeek ezagutzen ez dituzten abereak ezagutzea.

d Arrain-motak bereizten ikastea.

**7.-Zeintzuk dira baserri-eskola honetan lantzen diren diren proiektuak?**

a Baserria eta basoa bereziki.

b 4 proiektu dituzte, baina ez ditu zehazten.

c Baserria, basoa, itsasoa eta marisma.

d Baserria, basoa, erreka eta marisma.

**8.-Zertarako hasi dira baserri-eskolak ugaltzen?**

| | | | |
|---|---|---|---|
| a | Erreformari erantzuteko. | c | Telebistak sortzen dituen uste faltsuak zuzentzeko. |
| b | Umeek esnea nondik datorren jakin dezaten. | d | Nekazal kulturarekin kontaktua berreskuratzeko. |

**9.-Nongo umeak joaten dira baserri-eskola honetara?**

| | | | |
|---|---|---|---|
| a | Gehien batean Bizkaitik joaten dira. | c | Oraindik ez da inor joan ireki berria baita. |
| b | Nafarroa eta Gipuzkoatik joaten dira. | d | Euskal Herri guztitik. |

**10.-Zeintzuk dira aipatzen diren lau ekintzak? Borobilak egin letrei.**

| | |
|---|---|
| a | Basora irteerak antolatzea. |
| b | Animaliei oheak garbitzea. |
| c | Baratzean lan egitea. |
| d | Baserri ezberdinen konparazioa egitea. |
| e | Animaliei jaten ematea. |
| f | Baserriko bizimodua aztertzea. |

## 2. IRAKURRIARENN ULERMENA

- **Irakurri arretaz ondo testu hau, erantzuten hasi aurretik.**
- **Zenbaki bakoitzak hitz bat kendu dela adierazten du.**
- **Aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza eta erantzunen koadroan markatu**

### Idazleak Ikastetxeetara

Irakurlea eta idazlea lagun izan arren, askotan elkar ezagutzen ez duten bi mundu dira, eta irakurle hori haur edo gaztetxo denean distantzia hori are eta handiagoa izan ohi dela esan daiteke. Idazleok, eskola batera edo bestera joateko deituak izaten garenean, irakurle ezezagun horiekin topo egiteko .............(1).............. izaten dugu eta normalki, oso esperientzia ........(2)............... eta interesgarria gertatzen da, bai idazlearentzat ........(3)......irakurle gaztetxoarentzat.

Hasteko, haur irakurle gehiengoari ez zaio sekula burutik pasa irakurri duten ipuinak edo liburuak ............(4).............. bat duenik, istorio hori norbaitek asmatu duenik eta, horrelakorik pentsatu badute .........(5).........., idazle hori hilik dagoela uste dute. Biziki harritzen dira, beraz, emakumezko edo gizonezko arrunt baten aurrean aurkitzen direnean...

Hasieran oso tente eta erne egoten dira idazle delako pertsona horren ...........(6)............., eta hark agurtzeko hitz goxo batzuk esan arte ez dira erlajatzen, ez dira beren aulkietatik gehiegi ............(7)......... ausartzen... Une horretan, kupidarik gabe ...............(8)........... dute eskolara joan zaien pertsonaia ezezagun horren aurpegia, bere jazkera, bere jarrera, ea «idazletasun» famatu hori xehetasun estrafalario batean antzematen duten, ea zerbait .............(9).............. eta liluragarria duen... Eta besterik ezean, idazle horri bere obrari buruzko ..............(10).......... galdera egitera prestatzen dira.

Ia beti, koaderno bat dute lagun. Eta hantxe barruan, galdekizun batzuk idatzita, kostata idatziak, asko pentsatutako galderak baitira: «noiz hasi zinen ipuinak ..........(11)........?... Asko gustatzen al zaizu idaztea? Zein da idatzitako ipuinen .......(12)....... gehien gustatzen zaizuna? Nola idazten da ipuin bat?...

Galdera ................(13)............ dira, ia aukera guztietan errepikatzen direnak, bankete baten aurrean hartzen diren aperitiboen .........(14)............ Zeren, ............(15)............., ditxosozko koaderno horiek ahaztuta, beren galderak gero eta ..........(16)..............., bihurriago, bilakatzen baitira: Zergatik izar hori berdea zen eta ez gorria? Non ikusi duzu nigar egiten duen perretxikorik? Eta zergatik Txan fantasmak ez zuen Karmentxu arraroetxetik askatu?...

Badaude haur irakurle horien artean, idazlearen kontu korronteaz ..........(17).............. direnak, «asko irabazten al duzu ipuinak asmatzen?, baita bihotzaren .............(18).......... kezkatzen direnak ere: «nobiorik ba al duzu?»... Hau da, gutxien espero denean galdera ............(19)............. bat edo beste zuzenduko diote idazle gaixoari, haurrak pentsatzen dugun baino ..............(20).......... baitira.

**Mariasun Landa**, TANTAK aldizkaria, 6. zenb. 1991 (moldatua)

| (1) | (2) | (3) | (4) | (5) |
|---|---|---|---|---|
| A) denbora | A) liraina | A) nola | A) protagonista | A) ere |
| B) aukera | B) jostagarria | B) eta | B) egile | B) orduan |
| C) bidea | C) aberatsa | C) ere | C) bukaera | C) ordea |
| D) arriskua | D) zoroa | D) bai | D) irakurle | D) arren |

| (6) | (7) | (8) | (9) | (10) |
|---|---|---|---|---|
| A) baitan | A) atzeratzera | A) aztertzen | A) lotsagarria | A) zenbait |
| B) inguruan | B) mugitzera | B) nabaritzen | B) ona | B) nolako |
| C) jarreran | C) moldatzera | C) ikusten | C) berezia | C) zerbait |
| D) atzean | D) eseritzera | D) desiatzen | D) elementala | D) zenbat |

| (11) | (12) | (13) | (14) | (15) |
|---|---|---|---|---|
| A) esaten | A) bat | A) ebitaezinak | A) bezalakoak | A) ordea |
| B) asmatzen | B) artean | B) sinestezinak | B) atzera | B) horretarako |
| C) antolatzen | C) atzean | C) ulertezinak | C) antzera | C) lehenago |
| D) ausnartzen | D) artekoa | D) erantzunezinak | D) bezala | D) geroxeago |

| (16) | (17) | (18) | (19) | (20) |
|---|---|---|---|---|
| A) zehatzago | A) hitzegiten | A) mugimenduez | A) gogorren | A) zorrotzagoak |
| B) okerrago | B) galdetzen | B) kalteez | B) ixilen | B) goxoagoak |
| C) ilunago | C) arduratzen | C) taupadez | C) harrigarriren | C) gaiztoagoak |
| D) urduriago | D) ahazten | D) gorabeherez | D) errazen | D) astunagoak |

# IDAZLAN LABURRA

**Idazlan honek 100 hitz inguru izan behar ditu**

Ikastetxeko idazkaria zara. Aurten ere «Xagu». argitaletxekoek abisua pasa dio eskolari halako entziklopedia interesgarri bat atera dutela eta irakasleei honen berri eman nahi dietela. Klaustroak, ordea, erabakia du ez duela horrelako libururik erosteko asmorik.

Idatz iezaiozu argitaletxeari gutuna, zuen erabakiaren berri emanez eta egindako bisitengatik eskerrak emanez.

# IDAZLAN LUZEA

**Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta 200 hitz inguruko idazlana osatu behar duzu.**

*Talde baten tutore/irakaslea zara. Problematika berezi bat duen ikasle bat duzu taldean eta ez dakizu nola heldu arazoari. PATeko psikologoari idatzi egoeraren berri emanez:*

- Ikasle berezi honen ezaugarriak.
- Bere jarrera: irakaslearen aurrean, beste ikasleekin, beste ikasleek honekiko,e.a.
- Zure ezintasuna egoeraren aurrean: ez dakizu nola jokatu, ez duzu tarterik aurkitzen berarekin lan pertsonala egiteko,...
- Problematikaren eragina taldearen martxan.
- Laguntza eskatzen duzu: aholkuak, bisitak sarriago egitea...

**EDO**

*Gaurko ikasleek beren eguna oso beteta daukate eta aste guztiko lanak energia dexente eskatzen die. Zauden ikastetxean ikastalde bateko tutore zara. Badakizu zure ikasleak sarritan berandu oheratzen direla telebista ikusteagatik.*

*Zure ustez ikasle baten bizitza beste modu batez antolatu behar litzateke bai ekintza-motari dagokionez, bai ordutegian.. Azal ezazu zer-nolako eguna behar litzatekeen.*

Hona hemen, adibide gisa, gaurko gaztetxo baten ordutegia:

7.45 Jaiki, garbitu eta gosaldu
8.30 Autobusa hartu.
9.00 Klaseak hasi.
11.00 Atsedenaldia.
11.20 Berriro klasera
12.30 Bazkaltzeko ordua.
15.00 Arratsaldeko klaseak hasi.
17.00 Klaseen amaiera.
17.30 Etxera heltzen da eta merienda hartu.
17.45 Telebista ikusi.
18.30 Ingelesa edota piszina, egunaren arabera.
20.00 Eskolako lanak egiteari ekiten dio.
21.00 Afaria.
21.30 Telebista ikusi.
23.00 Oheratu.

## II.2. LEHEN DEIALDI ITXIA: HE2ko AZTERKETA

**IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK**

**HE2**
**Eredua: A**

**IDATZIZKO PROBA**

**1995eko urtarrilaren 30a**

**NAN:** ..........................................................................

**2. deitura:** ...................................................................

**Izena:** ........................................................................

**NAN zkia.:** ...................................................................

**OHARRAK**

1. Konprobatu azterketa honek 9 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
2. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
3. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
4. Irten baino lehen, azterketa-materialak entregatu behar dira.

**Hiru ordu dituzu ondoko hiru ariketak egiteko**

# 1. IRAKURMENA

**Ondoko bi testuak arretaz irakurri eta ondoko galderei erantzun.**

## 1. TESTUA: Argitalpen uholdea

Lehengo batean Bartzelonako unibertsitateetako bateko biologi ikasle bati honelako zerbait irakurri nion prentsan: «Beraientzat irakaskuntza bigarren mailakoa da ikerketaren aurrean.» Sarritan, unibertsitatean diharduten nire lagunekin ikerketa versus irakaskuntza borrokaz eztabaidatu dut. Beren lanean ikerketen Curriculumak irakaskuntzak baino lehentasun handiagoa duela aitortu didate.

Arrazoirik ez zaie falta. Unibertsitatean irauteko curriculum egokia osatu behar da; horretarako, argitaratu egin behar eta, artikuluak idazteko, ikerketak emandako datuak behar. Beraz, gure unibertsitateetako irakasleak urteko produkzioari beren ikasleen beharrei baino jaramon handiagoa egitea ez da harritzekoa.

Egoera horretan irakasle asko deseroso sentitzen da. Ikerketa da haientzako neurri ia bakarra. (Bestelako lanak ez dira baloratzen).

Estatu espainolean behinik behin, ikerlari-bokaziokoek, beren nahia ase nahi badute, nekez aurki dezakete lanposturik unibertsitatetik kanpo. Beraz, unibertsitate-irakasle bihurtzen dira ikerketa egin ahal izateko; ondorioz, beren irakaskuntzaren kalitatea, irakasle-bokaziorik ezean, ez da espero daitekeen bezain ona.

Ikerlari baten maila bere argitalpen-ugaritasunarekin lotzea ez da gure unibertsitatearen ajea soilik, munduan nahiko barreiatua dagoen zerbait baizik. John Maddox, *Nature* aldizkariaren zuzendaria, horretaz kexu zen duela gutxi. Ikerlari askok batera sinatutako artikuluei buruzko egilekidetasuna aipatzen zuen batez ere eta egile bakoitzaren ekarpena zein den jakitea nekeza dela azpimarratzen zuen.

Ikerkelariok egilekidetasunaren atzean ezkutatzen diren praktikak ezagutzen ditugu. Adibidez Estatu espainolean Erresonantzia Magnetiko Nuklearrezko espektrometro banaka batzuk zeudenean, Madrilgo CSICeko ikerlari bat ospetsua zen kimikari organikoon artean, bere espektrometroan analisirako laginak pasatzeagatik artikuluaren egileen artean agertzea eskatzen zuelako.

Arazoak ez dauka irtenbide errazik. Maddoxek, besteak beste, argitalpen-kopuruaren eta ikerlariaren arrakastaren arteko lotura ahultzea proposatzen zuen. Horrek ikerlarien lana neurtzeko beste tresna baten beharra eskatzen du, halabeharrez.

Azken urteotan, aipamenaren bidea zabaltzen ari da. Munduan zehar literaturan argitaratzen diren artikuluak beste zientzilariek zenbat aldiz aipatzen dituzten neurtzen duten erakundeak daude. Aipamen-kopuruak artikuluak komunitate zientifikoan egin duen inpaktua neurtzen du: lanaren kalitatea juzkatzen du, hain justu. Aipamenak egokiagoa dirudi, tranpak asmatzen ez diren bitartean behintzat.

Haserako puntura itzulita, argitalpen edo aipamen-kopuruak izan behar al du unibertsitate-irakasleen lanaren neurri ia bakarra? Ezezkoa izango litzateke erantzuna. Alabaina, praktikan bestela egiten da . Ez al da gogoetari ekiteko unea heldu?

**Iñaki Irazabalbeitia** JAKIN 83. zkia. (1994) Laburtua eta moldatua.

## GALDERAK

**1.-Artikulugilearen iritziz, unibertsitateko irakasleek ikerketa irakaskuntzaren aurretik jartzeko duten jarrera**

a) onartezina da.
b) pozgarria da.
c) konprenigarria da.
d) bultzatu beharreko zerbait da.

**2.-Artikuluak dakarrena kontuan harturik, estatu espainolean**

a) ikerlari askoren lanak ez dira espero zitekeen bezain onak.
b) ikerkuntzan aritu nahi dutenen lan merkatua unibertsitatera mugatzen da hein handi batean.
c) ikerlariak, irakasle-bokaziorik ez dutenez, ez dira izan ohi hain irakasle on.
d) ikerlari gehienek unibertsitate irakasle ere grinatsu nahi izaten dute izan.

**3. John Maddoxen iritziz,**

a) ikerlari baten maila ez da baloratu behar beraren izenpea daramaten argitalpenen kopuruaren arabera soilik.
b) egile bakoitzaren ekarpena zein den jakiteko, berari dagozkion artikulu zatiak azpimarratu behar dira.
c) egile askoren artean egindako lanetan, bakoitzaren ekarpena aipatu behar da.
d) bidezkoa da ikerlari jakin baten maila argitaratzen duen lan-kopuruari atxikitzea.

**4. Zer esaten da garai bateko CSICeko ikerlari batez?**

a) Ospetsua zela kimika organikoaren alorrean egindako ikerketengatik.
b) Ospetsua zela bere eskuzabaltasunagatik.
c) Laginak eskatzen zizkiela bere ikerlariei bere espektometroan erabiltzeko.
d) Bere espektrometroa erabiltzearen truke artikuluaren egileen artean azaltzea eskatzen zuela.

**5. «Nature» aldizkariaren bidez ezagutarazitako aipamen sistema berria**

a) munduan nahiko barreiatua dagoen sistema da, Espainian oraindik gutxi erabilia.
b) ikerlari batek zenbat aipamen egiten dituen zenbatzean datza.
c) lan batek komunitate zientifikoan eragindako inpaktoan oinarritzen da; horretarako, zenbat aldiz aipatua izan den beste zientzilarien aldetik neurtzen da.
d) komunitate zientifikoan eragindako inpaktoa neurtzean baino gehiago, lanaren kalitatea neurtzean datza.

## 2. TESTUA: Zurietan zuriena

Telebistako detergente-iragarki ospetsu baten oihartzuna dago, noski, gure leloan.

Zurietan zuriena eta leunetan leunena lortu nahi horretan detergenteen gerra piztu da *Omo* eta *Persil* egiten dituen Unilever konpainiaren eta *Ariel* egiten duen Procter & Gamble konpainiaren artean.

Joan den maiatzean Unileverrek katalizatzaile berria duen detergente-sorta kaleratu du. Katalizatzaile berriak orbanak azkarrago eta tenperatura bajuagotan garbitzen omen ditu. Unileverrek 2.000 milioi pezeta gastatu ei ditu katalizatzaile berria garatzen.

Procter & Gamble-ren erantzuna berehalakoa izan da. Konpetentziaren produktuak kaleratu bezain laster, katalizatzaile berriak, baldintza batzuetan, erropa hondatzen duela aldarrikatu du. Unileverrek Procter & Gamble tribunaletan salatu du.

Arazoak zertan bukatuko ez dit axola. Zurietan zuriena bilatze horretan xahutzen den milioi mordoa eta ea horrek benetan merezi ote duen da niretzat kezkagarriena.

Ikerketan inbertitutako dirua ondo erabilia iruditu zait beti. Alabaina, kasu honetan Unileverrek bere detergenteak eraginkorrago egiteko gastatu duen zifra irakurtzeak tripako mina ematen dit. Zati handi batean alferrik xahututakoa deritzot eta hainbat galdera sortzen zaizkit.

Marketinga nagusi denean, lehiakideak baino gehiago saldu behar denean, merkatuaren arrazoia beste guztiei nagusitzen zaie eta, halabeharrez, 1994ko *Ariel*k 1993koak baino eraginkorrago garbitu behar du. Zentzurik ez du horrek. Eraginkortasunaz landa, bestelako arrazoiak ere eman litezke produktu berria kaleratzeko.

Dakusagun: Unileverrek bere detergente berria aurrekoak baino ekologikoagoa dela dio, garbiketarako ur gutxiago eta tenperatura txikiagoa behar omen delako. Auskalo! Hori egia izanik ere, tranpa egon liteke guzti horren atzean. Edozein prozesu teknologiko aurrekoa baino ekologikoagoa dela baieztatzeko, prozesua osotasunean kuantifikatu behar da eta ez zati batean bakarrik. Gure kasuan, detergentea egiteko eta erabiltzeko behar diren urrats guztien energi eta hondakin-balantzea banan bana egin behar da. Horietako urrats batzuk ekologikoki onuragarriago izango dira, beste batzuk aurrekoen pareko eta kaltegarriago ere izan daitezke. Azkenik, emaitzen batuketa egin eta baturak esango digu benetan ekologikoagoa den ala ez. Besteak, atso-kontuak baino ez dira. Izan ere, ea zeinek segurtatzen duen, besteak beste, detergente berriarekin erabiltzaileak ikuzketa-ziklo laburragoak eta tenperatura bajuagoak erabiliko dituen!

Hobe lukete Unileverrek eta beste detergente-fabrikatzaileek, zurietan zuriena eta leunetan leunena bilatze horretan xahututako dirutzak, aurreko belaunaldiko detergente fosfatatuek, besteak beste, eragindako eutrofikazio-arazoak ikertzeko erabiltzea.

**Iñaki Irazabalbeitia**, JAKIN 83. zkia. (1994) Laburtua eta moldatua.

## GALDERAK

**6.-Zer uste du artikulugileak ikerketa hauei eta beren eraginkortasunari buruz?**

a) Ez dutela funtsezko aldaketarik ekartzen.
b) Ezer argitu baino gehiago, galderak sortzen dituztela.
c) Horrela ibiltzea, neurri handi batean, alferkeria hutsa dela.
d) Beren benetako helburua telebistan denbora luze eta era egokian agertzea dutela.

**7. Zergatik dago auzi hau tribunaletan?**

a) Unileverrek sortutako produktuak baldintza jakin batzuetan arropa hondatzen duelako.
b) Unileverrek Procter & Gambleren jokabidea obartzen ez duelako.
c) Procter & Gamblek Europako zenbait laborategitako azterketak erakutsi dituelako.
d) Bi konpainiek elkarri salaketa jarri diotelako.

**8.-Zergatik jartzen da zalantzatan Unileverren detergentearen ekologikotasuna?**

a) Detergente berriaren ekoizpenerako behar diren urrats guztiak kontuan hartzen ez direlako.
b) Garbiketarako ur eta energia gutxiago behar duela ziurtatzen ez delako.
c) Detergentearen ekoizpenerako energia gehiegi gastatzen delako eta hondakin balantzea negatiboa delako.
d) Faktore garrantzitsu bi erabiltzaileen esku geratzen direlako.

**9. Zein izan beharko litzateke detergente-fabrikatzaileen ikerkuntzen helburua?**

a) Zurietan zuriena bilatzeaz gain, leunetan leunena bilatzea.
b) Orain arteko detergenteek sortutako zenbait arazo konpontzen ahalegintzea.
c) Garbitzeko ahalmena hobetzeaz gain, ekologia ere zaintzea.
d) Aurreko belaunaldiengan sortutako arazoak konpontzea.

**10.-Zein litzateke artikulu honen egilearen helburua?**

a) Zenbait enpresak kontsumitzailea engainatzeko erabiltzen dituen trikimailuak salatzea.
b) Ikerketa zentzugabeetan diru gehiegi gastatzen dela salatzea.
c) Garbikarien munduan erabiltzen diren argudio faltsuak hankaz gora botatzea.
d) Ekologiaren aldeko kanpaina bat bultzatzea.

## 2. IDAZLAN LABURRA

**Idazlan hau egiteko, behean agertzen zaizun egoerari erantzun behar diozu modu diskurtsiboan. Luzera: 200 hitz inguru idatzi behar dituzu.**

Badirudi komenigarria dela seme-alabek etxeko lanetan ere parte hartzea ondorengo arrazoiengatik:

- Lan honek elkar-bizitzako arauak erakusten ditu.
- Lan hau egiteak norberaren autonomia garatzen laguntzen omen du.
- Norberak lan egitean, besteena apreziatzen ikasten omen da.

Aurreko ideaiak kontuan hartuz, idatz iezaiezu gutun bat gurasoei arlo hau landu nahi duzula esanez eta beren laguntza eta kolaborazioa eskatuz.

## 3. IDAZLAN LUZEA

**Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta garatu behar duzu.**
**Luzera: 350 hitz inguruko idazlana egin behar duzu.**

Populazio-hazkundea eta garapen teknologiko zein industriala alderantziz proportzionalak dira neurri batean. Beste hitz batzuk erabiliz, garapen teknologiko handia duten herrietan demografi hazkundea txikia da eta aldiz, garatu gabeko herrietan demografi hazkundea handia da. Munduko estatuen artean garapen-diferentziak izaugarriak dira; are eta gehiago, estatu garatuetan ere, bertako zonalde batzuek besteak baino garapen-maila handiagoa dute. Hortaz, hain modan dagoen iparra versus hegoa ez da munduko estatuen artean bakarrik aplikagarri, baita estatu bakoitzaren barnean ere.

*Egizu Hegoa eta Iparrari buruzko artikulu bat eskolako aldizkarirako.*

**EDO**

Seme-alabentzat onena nahi izaten da, etorkizunean estatus soziala eta arrakasta segurtatuta izan dezaten. Komunikabideetatik eredu hori ematen zaigu etengabe: formazio handiko gaztea, hizkuntzak menperatzen dituena, itxura osasuntsu eta onekoa,...

- Hau al da gure umeentzako eredurik onena?
- Bestalde, erreforman honako kontzeptu hauek azaltzen dira: curriculum egokitzapen indibiduala, aniztasunaren trataera, giza baloreak,...
- Nola lotu bi planteamendu hauek?

*Idatz ezazu gai honen inguruko idazlana.*

# III. 1995eko BIGARREN DEIALDI ITXIA

## III.1. BIGARREN DEIALDI ITXIA: HE1eko AZTERKETA

Idatzizko azterketa deialdi irekiarekin batera egin zen eta azterketa bera izan zen (ikus deialdi irekiko HE1eko 2. proba liburu honen I.1 atalean).

## III.2. BIGARREN DEIALDI ITXIA: HE2ko AZTERKETA

Idatzizko azterketa deialdi irekiarekin batera egin zen eta azterketa bera izan zen (ikus deialdi irekiko HE2ko 2. proba liburu honen I.2 atalean).

# IV. AHOZKO AZTERKETAK

# IV.1. HE1eko AHOZKO AZTERKETAK

HE1eko ahozko azterketak bi zati ditu:

**Albiste laburrak:** Orri batean ematen zaizkion bi albiste laburren artean bat aukeratu eta prestatu beharko du azterketariak 20 bat minutuan, gero aztertzaileen aurrean azaltzeko bospasei minututan.

**Elkarrizketa:** Albiste laburraren azalpenaren ondotik, aztertzaileek gai bat proposatuko diote eta horren inguruan hitz egingo dute azterketariak eta aztertzaileek beste bospasei minututan.

## ALBISTE LABURRAK

**OHARRA: Bi albiste labur eskaintzen dizkizugu, bakoitza bere gai bereziarekin. Nahi duzuna aukera dezakezu zure azalpenerako. Garatu zuk aukeratutako gaia. Lehendik duzun esperientzia, ezaguera eta iritzia erabil dezakezu horretarako.**

**1.**

**Estresaren Arerioa.** Gehientsuok, oporren oroimena ahantzita dugunean, estresaren arerioari egin behar diogu aurre. Harridura sortzen badu ere, gizarte garatuetan bizi garenok ez gara gaixotasun hau jasaten dugun bakarrak: herrialde afrikarretako ospitaletan egindako inkesta baten arabera, biztanlegoaren %90ak ultzera, hipertentsio arteriala, buruko mina edo ansiedadeak eragiten dituen hainbat gaitz jasaten ditu.

Kafeinadun edariak, zarata edo beste pertsona batzuen estresa dira, arrazoiak bilatzeko orduan, arruntenak. Badira beste batzuk bitxiagoak, esate baterako, berriak irakurtzea, entzutea ala ikustea.

**Badakizu zergatik diren berdeak dolarrak?** EEBBetan paperezko bilete guztiak kolore berdekoak dira. Munduko beste kasuekin konparatuz, kasu bitxia da hau eta honen zergatia ezagutzeko 1850. urterarte abiatu beharko genuke. Urte honetan Tracy R. Edson izeneko iparamerikarrak bileteei kolorea emateko tinta ezin hobea asmatu zuen: disolbaezina zen kolore berdeko tinta. Tinta hau erabiliz, bileteak faltsutzea ia ezinezkoa bihurtu da. Tinta hau asmatu baino lehen dolarrak faltsutzea oso erraza zen, ez baitzuten inolako berezitasunik.

2.

**Badakizu plastikoak egiteko osagai kimiko oso arriskutsuak erabiltzen dituztela?** «Plastics Environmental Action Foundation» izeneko elkarteak indutrian erabilitako osagai kimiko kutsagarrienen zerrenda egin du. Hogei elementu zehaztu ditu zerrenda honetan. Plastikoak egiten dituzten industriek zerrenda honetan agertzen diren lehenengo bost osagaiak erabiltzen dituzte, arriskutsuenak beraz.

osagai: componente

**Kotoi-landare urdina bakeroentzat.** Kotoi zuri-zuria urdindu egin behar da bakeroak egiteko. Tinta urdina milioika litro erabiltzen da horretarako. Hondarrak, jakina, ibaietara joaten dira, eta ura kutsatzen dute. Bi enpresa amerikarrek laburtu egin nahi dute bakeroen bidea. Bioteknologiaren bitartez, landareak berak kotoi urdina emango luke. Eta egingo dute. Askori kolorea galdutako bakeroak gustatzen zaizkie. A ze zoritxarra!

kotoi: algodón

3.

**Badakizu noiz jaurtiki zen lehenengo leherkaria?** Chinako Pien-King hirian, Tungkian-kang-king izeneko enperadoreak historiako lehenengo leherkaria botatzeko agindua eman zuen, mongoliarren aurka, hain zuzen ere. Leherkaria «yo» izeneko substantzia batez osaturik zegoen (gezala, nafta eta erretxina nahastuz). Sutan jarriz gero, lehertu egiten zen eta «chin-tie'n-liu» izena jarri zioten.

jaurtiki: lanzar
lehergailu: bomba
gezal: salitre
erretxina: resina

**Umeen propina.** Hamar urtetik beherako haurren %70ek ez dute asteko pagarik jasotzen; %22,9k 250 pezeta baino gutxiago. %3,5ek 250 eta 500 pezeta artean eta 2,6k 500 pezetatik gora. Jaurlaritzak zabaldutako datuak dira horiek. Pagarekin goxokiak erosten dituzte neurri handi batean, eta neurri txikiagoan jostailuak eta aldizkariak. %5,7k zinemara joateko erabiltzen dute.

4.

**Badakizu Yamato-hiko printzearen sekitokoak bizirik lurperatu zituztela?** Printzea hil zenean (2. urtean K.A:) enperadoreak bere anaiaren zerbitzurako zeuden gizon eta emakume guztiak lurperatzea erabaki zuen. Printzearen gorpuarekin batera sekitoko guztiak bizirik lurperatu zituzten. Gau eta egunez entzuten ziren lurperatutakoen oihuak. Enperadoreak hurrengorako, pertsonen ordez, harriz egindako irudiak lurperatzea erabaki zuen. Beranduegi damutu zen.

K.A.: Kristo aurretik
damutu: arrepentirse

**Bergarakoen duintasunezko «Miserableak» obra.** Nazioarteko antzerki Jaialdian estreinatu zuen, arrakasta handiz, «Miserableak» obra Bergarako Musika Eskolak.

Ekimen herritar handia, bi urteko lana eman dio muntaiak Musika Eskolari. Kantari eta antzezle amateurrak denak, Victor Hugoren antzerkirako egokitzapen ezagunaren euskarazko bertsio ederra eskaini zuten.

Gipuzkoako hainbat herritan aurkeztu eta gero, Donostia, Bilbo eta Gasteiza ere eraman dute obra.

5.

**Lapur gizagaixoak.** Umore beltzeko txistea ematen du, baina egia hutsa da. Bartzelonako laborategi batean HIESa ikertzen ari dira. Odol kutsatua behar dutela eta, langile bat bidali dute Sevillara, odolaren bila. Gizonak, lana bukatuta, Sevillan aparkatu du kotxea, odol kutsatua barruan utzita.

Handik gutxira, lapurrak etorri eta, kanpoko matrikula ikusi bezain laster, atea bortxatu dute. Kotxeko kutxa misteriotsuak hartu eta presaka ihes egin dute gizarajoek. Ez dakite zer nolako altxorra daramaten. Agian, drogaren bat zela pentsatuko zuten.

Orain denbora asko ez dela, antzeko zerbait gertatu zen maleta erradiaktibo batekin. Lapurretan aritzeak, hortaz, badu arriskurik.

HIES: SIDA

**Emakumea telebistako publizitatearen erregina.** Iruñeako Informazio-Zientzien Fakultatean TVEren lehen kateko mila zazpiehun iragarki aztertu dituzte. Hona hemen ikerketa horren ondorioak. Iragarkien %56an azaltzen da emakumea. Baina, besteetan ere sarri aipatzen da emakumea, irudietan emakumerik azaltzen ez bada ere.

Emakumearen edertasuna azpimarratzen da batik bat. Bestelako ezaugarriak, amatasuna, maitasuna eta abar, ozta-ozta ageri dira. Gaztetasuna ere maiz erabiltzen da publizitatean. Iragarkien %76an, hain zuzen ere, hamabost eta hogeitahamabost urte bitarteko emakumeak agertzen dira.

ozta-ozta: juxtu-juxtu

6.

**Kakaoaren zoramena edo telebistaren eraginaren froga.** Italian gertatutakoa da hau. Renzo Arbore musikari, showman eta telebistako aurkezleak parodia moduko saioa egiten du astelehenetik ostiralera RAIko bigarren katean. Publizitaterik sartu nahi ez eta, sasi-iragarki bat erabiltzen du bere saio horretan, kakao marka, berak asmatua, erabiliz.

Delako iragarkiak sekulako arrakasta izan du, jendea multzoka joan baita dendetara, «Cacao Maravigliao«ren bila, baina inon aurkitu ez. Ondoren, bonboiak egiten dituen enpresa batek marka berri hori erosteko eskaintza egin dio RAI-ri. 750.000 dolar ordaintzeko prest daude. RAI-k, ordea, ezezkoa eman omen du. Telebistaren eragina ez da nolanahikoa, hortaz.

sasi-iragarki. falso anuncio

**Japoniarren oporrak.** Oporretan izanez gero, nonahi aurkitzen dira ekialdeko turistak: korearrak, txinarrak, japoniarrak, etab.

Turista hauek aurkitzeko, museoak eta erakustokiak dira lekurik aproposenak. Arte- klase guztiei argazkia egiten dabilen argazki-kamararen atzean beti azaltzen dira begi txiki eta estuak.

Baina, gezurra badirudi ere, japoniarrak 6'3 opor-egun dauzkate bataz beste urtean. Japoniako Lan-Ministeritzak halaxe adierazi du duela gutxi.

Japoniako enpresa gehienetan astean sei egunetan egiten da lan, eta urtearen buruan, bataz beste, 6'3 opor-egun besterik ez. Nichia Chemical Industry Ltd.-k 20 eguneko oporrak ematen dizkie beren langileei, aisialdia osasungarri dela uste baitu.

aisialdi: ocio

# ELKARRIZKETA GAIAK

Aztertzaileek honelako gaiak erabili izan dituzte elkarrizketarako:

— Etxerako lanak.
— Prentsa eskolan.
— Ikus-entzungailuak.
— Ebaluazioa irakaskuntzan
— Hezkidetza.
— Irakaslegoaren lan-baldintzak.
— Gurasoen betekizuna ikastetxean.
— Irakurketa irakaskuntzan.
etab.

# IV.2. HE2ko AHOZKO AZTERKETAK

**Proba honetan bi ariketa egin behar dituzu.**
**30 minutu izango dituzu guztia prestatzeko.**

## 1.-TESTU BATEN AHOZKO LABURPENA

Irakur ezazu arretaz alboko orrian datorren testua —apunte laburrak jasoaz, nahi baduzu—. Gero **zazpi minutu** izango dituzu haria aztertzaileei azaltzeko, testua birkontatuz. Bigarren mailako xehetasunak bazter ditzakezu, helburua **nondik-norako nagusiak** ematea baita. Idatzizko laburpena besterik gabe irakurtzea ez da onartuko; testua bera zatika irakurtzea ere ez, testua han edo hemen lagungarri gisa erabiltzea zilegi bada ere.

**OHARRA:** *Testu hauek normalean aldizkarietatik edo libururen batetik jasotako artikuluak izan ohi dira, fotokopiaturik eta orrialde bat edo bikoak.*

## 2.-AZALPEN LIBREA

Ondoko hiru gaien artean bat aukera eta presta ezazu. Gero **zazpi minutu** izango dituzu gutxi gora-behera zure ideiak aztertzaileei azaltzeko. Egizu eskematxo bat paper batean, gero zure azalpenari lotura eta ideia-jarraipen argia eman ahal izateko. Mintzatzeko orduan ezin izango duzu testu jarraitu bat irakurri.

*Hona hemen azalpen librerako erabili diren gai-multzo batzuk:*

1.-Irakaskuntzak duen balorazio soziala
2.-Erlijioa, jakintzagai bat gehiago?
3.-Zer da irakasle «ona» izatea?

1.-Zer aporta diezaioke Erreforma honek hezkuntzaren kalitateari?
2.-Jolasa aprobetxa al daiteke hobeto irakasteko?
3.-Informatika, jakintzagai ala birtateko?

1.-Behar ote da azterketarik Unibertsitatean sartzeko?
2.-Nortzuek agindu behar dute eskolan: irakasleek, ikasleek ala gurasoek?
2.-Erabiltzen ote dira ikus-entzunezkoak eskolan?

1.-Zer espero du gaur egun euskal gizarteak eskolarengandik?
2.-Zuzendaritza-lana: balorazioa, erantzukizuna...
3.-Ikasleekin egiten diren irteerak erakargarri al dira irakaslearentzat?

1.-Klaustro handiak eta txikiak: bakoitzaren abantailak eta arazoak
2.-Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrak, ikastetxe arruntetan ala berezietan?
3.-Eskolaren ardura al da sexu-heziketa?

1.-Hezkuntza formalak benetan eragiten ote du gizarte baten kulturan?
2.-Derrigorrezko hezkuntza zenbat urte artekoa behar litzateke?
3.-Irakasle ona izatea eta zure arloa ongi ezagutzea gauza bera al da?

1.-Posible ote da irakaslea ordenagailu batekin ordezkatzea?
2.-Prentsa hezkuntzarako baliabide bezala.
3.-Gure eskolek Europako edo Estatu Batuetako eskolen maila ote dute?

# V. ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK(*)

(*) Atal honetan aztertzaileen bi gauza biltzen dira: alde batetik kalifikazio-sistema nagusiaren azalpen labur bat (V.1 puntua); eta bestetik aztertzaileen esku-liburuko zati garrantzitsuenak (V.2 eta hurrengoak). Esku-liburu horretan aztertzaileen lana bideratzeko erabili ohi diren orientabide, adibide, taula eta abar jasotzen dira.

# V.1. KALIFIKAZIO-SISTEMAREN AZALPENA

## V.1.1. ERREFERENTZIA NAGUSIAK

Irakasleen Hizkuntz Eskakizunetan bi maila daude ezarrita (martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua). Lehenik eta behin hizkuntz eskakizun bakoitzaren mamia aipatu behar da.

- **HE1**: ez da euskara eta ez euskaraz irakasteko, baina euskara zerbitzu-hizkuntza legez erabiltzeko gaitasuna garantizatzen du. Irakaslea gai izango da, besteak beste, honako hauek euskaraz egiteko:
  — ikasleekin taldeka edo bakarka eskolako arazoez (jokabidea, motibazioa, emaitzak, ikasleekin edo irakasleekin izandako arazoak, familiako arazoak etab.) hitz egiteko;
  — gurasoekin, irakasleekin, hezkuntza-administrazioko langileekin irakaslanerekin lotutako gaiei buruz aritzeko (eskolaren funtzionamendua, helburuak, ikasleei buruzko iritziak, ebaluaketarako irizpideak etab.)

- **HE2**: euskara edo euskaraz irakasteko gaitasuna bermatzen du. HE1eko trebetasunez gainera, honako hauek ere betetzeko gai izango da HE2duna:
  — bere alorreko irakaskuntza euskaraz eman ikasleei, bakarka zein taldeka, azalpen majistrala eginez zein gelan eztabaida sortuaz eta jasotako galderei erantzunez;
  — eskolak prestatzeko materialak ulertu (argitalpenak, programa ofizialak, testu-liburuak, kontsulta liburuak, artikuluak, pelikulak, bideoak, zintak, irrati programak....);
  — programa orokorrak eta bere alorrekoak euskaraz idatzi;
  — fitxak, apunteak, materialak ariketak eta abar euskaraz idatzi;
  — ariketak zuzendu, txostenak idatzi eta bestelako balioespen-jarduerak.

Orohar Hizkuntz Eskakizunen inguruko arauzko erabaki nagusiak ondoko hauek dira:
— Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua (1993ko apirilaren 2ko EHAA).
— 1994ko urtarrilaren 10eko Agindua (1994ko urtarrilaren 26ko EHAA).
— 1995eko apirilaren 10eko Agindua (1995eko maiatzaren 11ko EHAA).
— 1995eko maiatzaren 9ko Erabakia (1995eko maiatzaren 23ko EHAA).

## V.1.2. DEIALDI IREKIA

Deialdi irekiaren kalifikazio-sistema zehatza ezagutzeko ikus 1995eko maiatzaren 9ko Erabakia liburu honen eraskinetan: VII. 2. atala: Arauzko erabakiak. Ondoko lerrootan era laburrean biltzen da sistema hori.

Deialdi irekiak hiru zati edo proba izan ditu: lehenengoan Aukera Anitzeko Galdera-sorta izan da. Bigarren zatian Irakurmena eta Idazmen-ariketak bildu ziren; eta lehen eskakizunean baita Ahozkoaren Ulermena ere. Hirugarren proba Ahozkoa izan da. Proba bakoitza baztertzailea izan da eta GAI edo EZ GAI moduan kalifikatu da.

Lehen proban puntuak honela banatu dira:

| LEHEN PROBA | HE1 | HE2 |
|---|---|---|
| Puntuak | 70 | 70 |
| **Gainditze-muga** | **40** | **40** |

Bigarren proban idazlanek pisu handia dute. Idazlanak zuzentzeko berariazko baremoak erabili dira (ikus aurrerago zuzenketarako irizpideak, baremoak etab.: V.2.puntua eta hurrengoak).

| BIGARREN PROBA | HE1 | | HE2 | |
|---|---|---|---|---|
| Ahozkoaren Ulermena | 0tik 5era | | ariketarik ez | |
| Irakurmena | 0tik 5era | | 0tik 10era | |
| Idazlan Laburra | Oso Gutxi<br>Gutxi<br>Nahikoa<br>Ongi<br>Oso Ongi | 1<br>2<br>4<br>6<br>8 | Oso Gutxi<br>Gutxi<br>Nahikoa<br>Ongi<br>Oso Ongi | 1<br>2<br>4<br>6<br>8 |
| Idazlan Luzea | Oso Gutxi<br>Gutxi<br>Nahikoa<br>Ongi<br>Oso Ongi | 5<br>10<br>15<br>20<br>25 | Oso Gutxi<br>Gutxi<br>Nahikoa<br>Ongi<br>Oso Ongi | 5<br>10<br>15<br>20<br>25 |
| **Gainditzeko** | **24 puntu** | | **24 puntu** | |

**Hirugarren proban**, hau da, Ahozkoan, GAI edo EZ GAI kalifikazioa ipini da.

### V.1.3. DEIALDI ITXIAK

Kalifikazio-sistema zehatza ezagutzeko ikus 1995eko apirilaren 10eko Agindua liburu honen eraskinetan: VII. 2. atala: «Arauzko erabakiak». Ondoko lerrootan era laburrean biltzen da sistema hori.

Deialdi itxiko azterketak bi zati izan ditu: Idatzizko zatia eta Ahozkoa; ez da izan, beraz, aldez aurretiko Aukera Anitzeko Galdekizunik. Azterketa gainditzeko bi zatiak gainditu behar dira.

| IDATZIZKO ZATIA | HE1 | HE2 |
|---|---|---|
| Ahozkoaren Ulermena | 0tik 5era | ariketarik ez |
| Irakurmena | 0tik 5era | 0tik 10era |
| Idazlan Laburra | Oso Gutxi 1<br>Gutxi 2<br>Nahikoa 4<br>Ongi 6<br>Oso Ongi 8<br>Bikain 10 | Oso Gutxi 1<br>Gutxi 2<br>Nahikoa 4<br>Ongi 6<br>Oso Ongi 8<br>Bikain 10 |
| Idazlan Luzea | Oso Gutxi 5<br>Gutxi 10<br>Nahikoa 15<br>Ongi 20<br>Oso Ongi 25<br>Bikain 30 | Oso Gutxi 5<br>Gutxi 10<br>Nahikoa 15<br>Ongi 20<br>Oso Ongi 25<br>Bikain 30 |
| **Gainditzeko** | **24 puntu** | **24 puntu** |

Gero, lortutako puntuaziotik idatzizko azterketaren nota ateratzen da:

| **PUNTUAK HE1/HE2** | **IDATZIAREN KALIFIKAZIOA** |
|---|---|
| 0-10 | Oso Gutxi |
| 11-23 | Gutxi |
| 24-32 | Nahikoa |
| 33-40 | Ongi |
| 41-45 | Oso Ongi |
| 46-50 | Bikain |

**Ahozko zatian** kalifikazio hauetariko bat ipintzen zaio azterketariari: Oso Gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi, Bikain. **Nahikoa** lortu behar da gainditzeko.

## Azterketaren nota orokorra

Azterketa gainditzeko, bai HE1ean eta bai HE2an, bi zatiak gainditu behar dira: Idatzizkoa eta Ahozkoa. Beraz, zati batean Gutxi edo Gutxiegi ateraz gero, azterketaren nota orokorra ere Nahikotik beherakoa izango da: Azterketaren nota orokorra ondoko mailen arabera ipintzen da, bai Idatzizko zatia bai Ahozkoa kontuan hartuta: Oso Gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi, Bikain. Zalantzako kasuetan ahozko zatia gehiago balioesten da.

### Etengabeko ebaluazioa

Azterketa ez gainditu arren, 3. moduluko zenbait azterketarik HE1 lor dezake eta 5. moduluko zenbaitek HE2. Horrela, ahozkoa gainditu baina idatzizko zatian 22 edo 23 puntu dituen ikasleak HE lor dezake baldin eta idazmenean etengabeko ebaluazio positiboa badu eta idazlanetako bat gainditu badu. Alderantzizkoa ere gerta daiteke kasu bereziren batean: idatzia gainditu baina ahozko zatian gaindituaren muga-mugan dagoen ikaslea bada, alegia, beti ere mintzameneko etengabeko ebaluazioa gainditua badu.

# V.2. IDAZLANA

## V.2.0. SARRERA

Hizkuntz Eskakizunen ebaluaziorako irizpideen artean, besteak beste, honako hauek aipa daitezke idazmenari dagokionez:

| HE1 | HE2 |
|---|---|
| *Era askotako hartzaileei (lankide, guraso, ikasleak) egokitutako testu sinpleak idazteko gai izatea, komunikazio-intentzio desberdinak dituztelarik, zalantzak argitzeko kontsulta-materialak erabiliz.*<br><br>Eta ondoren bere zehazpenean: *Irizpide honekin bilatzen da ikasketariak bere irakaslanean dituen hizkuntza egoera arruntei egokitzen zaizkien testu sinpleak idazteko gauza den ala ez egiaztatzea. Erregistro egokia aukeratu beharko du, horretarako, zuzentasunez, ortografia-arauak errespetatuz eta testuari barne-lotura eta koherentzia emanez. Ikasketariek, halaber, laguntzarako materialak erabiltzen jakin beharko dute lexiko eta ortografiazko zalantzak argitu ahal izateko.* | *Zuzentasunez eta hartzaileari ulergarri gertatzen zaion eran testu-mota desberdinak (argibideak, aktak, txoste-nak, eskutitzak...) erredakta-tzeko gai izatea.*<br><br>Eta ondoren, bere zehaz-penean: *Irizpide honen bidez ikasketariak ekoizten dituen testuetan hizkera idatziaren egokitasuna, koherentzia eta barne-loturazko baliabideen erabilera egokia eta zuzena, hiztegi-aberastasuna eta zehaztasuna eta ortografia-arauak errespetatzen dituen ala ez ebaluatuko da.* |

Aztertzaileak azterketari baten idazlana baloratzean galdera nagusi bati erantzun behar dio: noraino da ulergarria testua? Hau da, komunikazioa ezartzen da?; idazlearen asmoa argi harrapatzen da? Zeren idazlanetan era ezberdinetako errakuntzak egoten baitira, testua ulertzeko oztopo bilakatzen direnak eta, batzuetan, komunikazioa zapuzteraino eraman dezaketenak, hala nola, idea ilunak edo errepikatuak, informazioaren desordena, gramatika eta ortografia akatsak, adierazpen teknikoegiak edo arruntegiak eta abar.

Lau mailatan egingo da testuaren balorazioa:

| Azterketa-maila | Aztertzen den testuaren alderdia |
|---|---|
| 1. *Koherentzia* → | — Informazioa edo edukia |
| 2. *Kohesioa* → | — Testuaren artikulazioa edo esaldiez gaineko loturak |
| 3. *Zuzentasuna* → | — Morfosintaxia, ortografia, lexikoaren zuzentasuna... |
| 4. *Bestelakoak* → | — Egokitasuna, baliabide espresiboak... |

Ondoren irizpide xeheagoak eskaintzen dira azterketa-maila bakoitzerako:

## V.2.1. KOHERENTZIA (informazioaren aukeraketa eta egituraketa)

Atal honetan *idazlanaren adierazia* kalifikatuko da; hots, azterketariak eskaintzen duen informazioaren pertinentzia eta kalitatea, batetik, eta beronen ordena, zehaztasun eta xehetasun maila, egituraketa..., bestetik.

Esan gabe doa idatzitakoak proposatutako gaiarekin lotura izan behar duela; bestela, idazlanaren kalifikazioa «Gutxi«tik beherakoa izango da eta aztertzaileak zirkunstantzia horren berri emango du puntuazio-orrian ondoko hau idatziz: *«Ez du loturarik proposatutako gaiarekin»*.

### Informazioaren kantitatea eta kalitatea

- **Kantitatea**

Aztertzaileak begiratuko du ea mezuaren ulerkuntzarako behar diren datu guztiak, eta horiek bakarrik, ematen diren ala, alderantziz, informazio gehiegi edo gutxiegi ematen den.

| Informazio gehiegi salatzen dutenak | Informazio gutxiegi salatzen dutenak: |
|---|---|
| — Errepikapenak<br>— Erredundantziak<br>— Datu irrelebanteak idazlanaren xederako<br>— Soberazko informazioa (betelana) | — Hutsarteak adierazian<br>— Presuposizio edo datu inplizitu gehiegi, hartzaileak zertan jakin ez dauzkanak |

- **Kalitatea**

Aztertzaileak begiratuko du ea testuan eskaintzen den informazioa ona den ala, alderantziz, eskasa den. Orohar, honela deskriba litezke bi mutur hauek:

| Informazio ona | Informazio eskasa |
|---|---|
| Ideia oso-beteak, argiak, uler-garriak, zehazki formulatuak. Berehalaxe antzematen da esan nahi duena. | Ideia osagabeak, ilunak, ulergaitzak; enuntziatu generikoegiak. Irakurleak esanahia berregin behar du edo hipotesiak egin behar ditu testuan esplizituki adierazten ez dena ulertu ahal izateko. |

### Informazioaren egitura / Parrafoak

Ondoren deskribatzen diren bi muturretatik, testua zeinetara makurtzen den zehazten saiatuko da aztertzailea:

| Informazioaren egitura egokia | Informazioaren egitura eskasa |
|---|---|
| Datuen aurkezpenak aldez aurretik era-bakitako ordena baten araberako anto-lamendua erakusten du (kronologikoa, espaziala, kausa-ondorioa, orokorretik xehera...). Informazio berria era pro-gresiboan aurkezten da.<br>Parrafoek ideia oso bana garatzen dute, beste parrafoetako ideietatik ondo bereiziak; puntu eta apartez mugaturik ageri dira. | Datuen aurkezpena ordenagabea da edo gora-behera handiak erakusten ditu. Informazioa era anarkikoan aurkezten da.<br>Parrafoek ez dute osotasun-batasunik erakusten. Ideien garapena askotan eten egiten da edo han-hemenka, parrafo ezberdinen artean barreiaturik edo errepikaturik ager daitezke. Puntu eta aparteak ausaz ezartzen direla dirudi. |

### V.2.2. KOHESIOA (testuaren artikulazioa)

OHARRA: gramatika tradizionalari dagozkion puntuak —morfosintaxia, etab.— «Zuzentasuna» atalean baloratuko dira

Atal honetan aztertzaileak *edukia azaltzeko moldeari* begiratuko dio, testua osatzen duten elementuen arteko kohesio-mekanismoen edo formen ikuspegitik (loturak, artikuluak, izenordeak, sinonimoak...)

Balorazioa emateko, edozein testutan erabili ohi diren kohesiorako mekanismoak aztertuko dira bi ikuspegitatik: **zuzentasuna**, lehena, eta ugaritasuna edo **aberastasuna**, bigarrena.

Aztertzaileak bere arreta nora zuzendu behar duen erakusten du ondoko gida honek:

#### Erreferentziarako eta errepikapenerako mekanismoak

Azpiatal honetan katea idatzian agertzen diren elementuak aurretik edo atzetik esandakoarekin erlazionatzeko mekanismoen erabilera eta egoeraren testuingurua osatzen duten elementuei (pertsona, lekua eta denbora) erreferentzia egiteko prozedurak azterkuko dira:

- **Ordezkapen lexikala**
  - **Sinonimoen bidez** (aurretik aipatutakoari eremu semantiko berdintsua duen beste hitz batez erreferentzia egitea).

    Adb.: *Eskola, ikastetxe, irakastoki, zentro...*
  - **Hiperonimoen bidez** (eremu semantiko zabalagoa duten hitzak edo hitz multzoak).

    Adb.: *Ziklista > kirolari // Testu-liburu > baliabide didaktiko...*
  - **Parafrasien bidez** (kontzeptu baten baliokide semantikoa den egitura sintaktikoa).

    Adb.: *Gor > entzuten ez duen pertsona*

- **Elipsia**
  edo elementuren bat ezabatzea:

  Adb.: «*Ane ez da etorri. (...) Gaisorik dago*».

- **Determinatzaileak**

  **Artikulua** *(-a, -ak, -ok)*; «bat» eta gainerako **zenbatzaileak**; **erakusleak** *(hau, hura...)* eta abar. Hauek guztiek era askotako erlazioak ezartzen dituzte hitzen eta erreferentzien artean: ezaguna / ezezaguna, igorlea / hartzailea, hurbil /urrun...

- **Deiktikoak.**

Denbora, pertsona eta espazio harremanak ezartzen dituzte, egoera komunikatiboaren testuinguruari dagozkionak:

— **Pertsona:** igorlea *(ni, nire, nirekin...; gu, gure...)*. Hartzailea *(zu, zure, zurekin...; zuek, zuen...)*
— **Lekua:** *hemen, hor, han...*
— **Denbora:** *orain, lehen, gaur, orduan, beranduago...*
Adib.: *«Bihar bidaliko dizut atzo eskatu zenidana, hemen sobran baitaukat han behar duzuna»*

**Loturak (lokailuak eta gainerako testu antolatzaileak)**

Azpiatal honetan testuko esaldien artean era ezberdinetako erlazioak ezartzen dituzten lokailuak eta gainerako testu-antolatzaileak dira aztergai gorago aipatutako bi ikuspegietatik. Adibidez:

| | | |
|---|---|---|
| • **Emendiozkoak** (zerbait gaineratzen dela adierazteko)<br>*komak*<br>*eta*<br>*ere, ere bai, baita ere*<br>*ere ez, ezta ere*<br>*gainera*<br>*orobat*<br>*honez, horrez gain(era)* | • **Kausa-ondorioa** (arrazoiak, zergatiak eta ondorioak ezartzeko)<br>*beraz*<br>*hortaz*<br>*honen-horren-hainbestez*<br>*ondorioz*<br>*izan ere*<br>*horregatik*<br>*hau, hori dela eta* | • **Ordena**<br>*lehenik, bigarrenik...*<br>*bat, bi...*<br>*hasteko*<br>*lehenengo eta behin*<br>*ondoren*<br>*gero*<br>*azkenik*<br>*amaitzeko* |
| • **Aurkaritzakoak** (aurrekoarekiko kontra-kotasuna adierazteko)<br>*baina*<br>*ordea*<br>*berriz*<br>*aldiz*<br>*dena den*<br>*hala ere* | • **Konparazioa** (aurretik esandako zerbaitekiko analogia nahiz diferentzia seinalatzeko)<br>*era berean*<br>*modu berean*<br>*berdin*<br>*bestalde*<br>*bestera* | • **Adibide ematea** (azalpen edo adibideak emateko)<br>*adibidez*<br>*esate baterako*<br>*hau da*<br>*hots*<br>*hala nola*<br>*bestela esanda* |
| • **Espazioa** (esandakoa espazioaren koordenadetan kokatzeko)<br>*goian*<br>*behean*<br>*gorago*<br>*beherago*<br>*hemen, hor, han* | • **Denbora** (esandakoa denboraren koordenadetan kokatzeko)<br>*aldi berean*<br>*beranduago*<br>*bien bitartean*<br>*honez, horrez, harez gero*<br>*artean*<br>*ondoren* | • **Reafirmazioa/laburpena** (adierazitakoaren birformulazio edo laburpena gaineratzeko)<br>*laburtuz*<br>*hitz gutxitan*<br>*bestela esanda*<br>*izan ere* |

### V.2.3. ZUZENTASUNA (morfosintaxia, lexikoa eta ortografia)

Kontuan hartzekoak:

| HE1 | HE2 |
|---|---|
| *Mezuaren ulergarritasunerako ondorio larririk ez duten akats ortografikoak eta morfosintaktikoak erakusten dituzten ekoizpenak dira.* | *Akats ortografikoak eta morfosintaktikoak oso urriak dira.* |

*Ildo honetatik, aztertzaileak ondoren zehazten direnak hartuko ditu kontuan:*

**Morfosintaxia eta lexikoa**

Errakuntza bakanak onargarriak direla jotzen bada ere, zuzentasun akats larrien deskripzioan datozen zenbait puntutan sistematikoki huts egitea edo, sistematikoak izan gabe, puntu ezberdinetan behin eta berriz huts egiten badu, GUTXI edo OSO GUTXI kalifikazioa emango zaio azterketariari.

Era berean, lexikoaren zuzentasunari dagokionez, zenbait akats larritzat joko dira, hala nola, euskal hitz arrunten ordez erdal hitzak erabiltzea edo hitzen bat ez dagokion esangurarekin erabiltzea. (Ikus *V.5 atala:* «AKATSAK, akats larrien deskripzioan «Hitzaren esparrua»).

**Ortografia (puntuazio-zeinuak barne)**

Kontuan hartzekoak:

- **Puntuazio-zeinuak**

Puntuazio-zeinuen arauak ez dira beti normatiboak edo objetiboak. Dena den, perpausaren antolamendu sintaktiko eta semantikoarekin zerikusirik duten puntuazio-zeinuen arau nagusien aplikazioa begiratuko da; besteak beste, perpausak ondo mugaturik dauden puntuen bidez, elkarren segidan doazen maila bereko kideak komaz bereizirik ematen diren, hitz betegarriak (bada, dena den, adibidez, beraz...) koma tartean doazen, galdera eta harridura-zeinuak beren tokian dauden, etab.

- **Ortografia:**

— Erabilera handiko hitzetako akatsak **larriak** dira beti, baita euskal ortografiako puntu konfliktiboenetan egiten direnak ere (*z-s-x / tz-ts-tx / h-Ø / g-j* eta abar).
Adb.:*«au isan sen» «asken hezkutitzean ezaten senidan besala»*

— Erabilera urriko hitzetako H letraren erabilerari dagozkion akatsak, hitz elkartuetan marratxoaren erabilerari dagozkionak, maileguetako -u eta -o bukaeretan sortzen diren zalantzak eta antzekoak **txikitzat joko dira**. Adibidez:

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Erabilera urriko hitzetako H letraren inguruko zalantzak:** | | • **Hitz elkartuen idazkera** | |
| mihura (landare bizkarroia) | miura | aurrez aurre | aurrez-aurre |
| meatze (meategia) | mehatze | egur falta | egur-falta |
| ahur (eskuaren barnealdea) | aur | ozta-ozta | ozta ozta |
| haltz (zuhaitza) | altz | zuzen-zuzenean | zuzen zuzenean |
| orbel (hosto ihartua) | horbel | irakasmaila | irakas-maila |
| auhen (atsekabea) | ahuen | legegizon | lege-gizon |
| hegi (mendiaren hegala) | egi | | |
| • **-u/-o bukaera maileguetan** | | lan(-)hitzarmen | |
| | | esku-zabal | |
| | | eskuzabal | |
| dokumentu | dokumentu | | |
| kreditu | kreditu | ortografi arauak | ortografi-arauak |
| | | Ortografia(-)arauak | |
| zentro | zentru | hizkuntz gaitasuna | hizkuntz-gaitasuna |
| dialekto | dialektu | hizkuntza(-)gaitasuna | |
| | | hezkuntza(-)sistema | hezkuntz-sistema |
| ONDO | TXARTO | ONDO | TXARTO |

### V.2.4. BESTELAKOAK

Atal honetan baloratuko dira zuzentasun, koherentzia eta abarretan ezaugarri berdintsuak dituzten idazlanen artean aldea ezartzen duten bestelako abardurak, ondoren zehazten direnak:

#### Baliabide espresibo orokorrak

— Hizkuntz sistema malgutasunez eta erraztasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten duen konplexutasun sintaktikoa.
— Lexikoaren jatortasuna (lexiko zaindua), aberastasuna eta zehaztasuna.
— Idazlearen ausardia, testuaren elaborazio maila, orijinaltasuna.

#### Egokitasuna

Honako hauei erreparatuko die aztertzaileak:

— Adierazpen kolokialegien edo formalegien agerrera diharduen gai-testuinguruetarako.

# V.3. AHOZKO PROBA

## V.3.0. SARRERA

Hizkuntz Eskakizunak egiaztatzeko Hezkuntza Sailak emandako ebaluaziorako irizpideetan, besteak beste, honako hau dator mintzamenari dagokionez:

| HE1 | HE2 |
|---|---|
| *Aldez aurretik zehaztu gabeko elkarrizketa informaletan parte hartu ahal izatea eta eskola-inguruaz edo irakaslanari buruzko gaien inguruko aurrez prestaturiko eztabaidetan esku hartu ahal izatea.*<br><br>Ondoren, bere zehazpenean, beste hau dator laburturik: *Irizpide honen bidez ikasketariak dituen ideiak argiro antolatu eta adierazteko eta hartzaileak ulertzen duen eta egoerari eta helburuari egokia zaien diskurtsoa produzitzeko duen gaitasuna neurtu nahi da. Era berean, ikasketariaren ahozko adierazpena zuzentasunaren aldetik neurtuko da.* | *Eskolaz kanpoko nahiz barneko mundua aipagai duten era ezberdinetako elkar-truke komunikatiboetan parte hartzeko gai izatea, diharduen gaien inguruko informazio egokia emanez, bere ikuspuntu eta iritziak azalduz, arrazoituz eta defendatuz eta komunikazio-egoeraren aldaera desberdinei egokituz.*<br><br>Ondoren, bere zehazpenean, beste hau dator laburturik: *Irizpide honen bidez (aipatutako gaiei buruz eta egoeretan diharduenean) bere ahozko ekoizpenaren zuzentasuna, zehaztasuna, jariotasuna eta ebakera neurtu nahi da eta, orobat, gaiarekiko adekuazioa lexikoaren aldetik, bere ideiak era logiko eta egituratuan azaltzeko gaitasuna eta bere hizkera komunikazio-egoera desberdinei egokitzekoa.* |

Azterketarien ahozko ekoizpena baloratzeko ondoko bost alderdi hauei erreparatuko die aztertzaileak:

| Azterketa-maila | Aztertzen den testuaren alderdia |
|---|---|
| 1. *Osagai morfo-fonetikoa* → | Ebakera, azentua eta doinuera |
| 2. *Zuzentasuna* → | Arau morfosintaktikoen erabilera zuzena |
| 3. *Lexikoa* → | Lexikoaren aberastasuna eta zehaztasuna |
| 4. *Jariokortasuna* → | Abiadura, etenak eta mezuaren berrantolaketak |
| 5. *Bestelakoak* → | Informazioa edo edukia. Baliabide espresiboak |

Ondorengo orrialdeetan ahozko proba baloratzeko irizpide xeheak eskaintzen dira atalez atal:

## V.3.1. OSAGAI MORFO-FONETIKOA

Atal honetarako erreferentziatzat euskara batuan diharduen jatorrizko hiztunaren ahoskera hartuko dugu, eta eredu zehatzagoa ematearren, irrati-telebistako profesionalena (1). Hortaz, zenbat eta gehiago hurreratu hauen ahoskerara, orduan eta kalifikazio hobea emango zaio azterketariari.

(1) Ahoskera bezalako gai korapilatsu eta gutxi aztertu honetan, nahiz eta neurri batean eztabaidagarria izan, eredu hau aukeratu da, batetik, erreferentzia bat, edozein dela ere, ezinbestekoa baita eta, bestetik, berau eginkizun honetarako egokia eta aproposa baita eta edozein aztertzailek ezagutzen baitu.

Ahozko proban, osagai morfo-fonetikoari dagokionez, ondoko azpiatal hauek dira bereziki zaindu eta baloratu behar direnak:

- Ebakera:
- Prosodia: azentua / intonazioa
- Hiato problematikoak

Hona hemen azterketariaren ahoskera ebaluatzeko zenbait irizpide xehe:

**Ebakera (fonemen burutzapena / hotsen elkarketa)**

- **Fonemen burutzapena**

Azpiatal honetan euskal fonemen burutzapen egokia behatu behar da, ondoko hauek aintzat hartuz:

— <**z**> eta <**s**> ez bereiztea ez da akastzat hartuko.
— <**tz**> eta <**ts**> ez bereiztea ez da akastzat hartuko.
— <**j**> kontsonantearen ebakera ezberdinak onartzekoak dira: **[x] [y] [z]** [xan, yan, zan].
— <**g**> grafia daramaten erdal maileguetan **[x]** eta **[g]** ebakerak, biak, onestekoak dira.
Adb.: *biologia* > [bioloxia] eta [biologia] ; *genesi* [xenesi] eta [genesi].
— <**il**>ren ordainez **[y]** ahoskatzea («yeismoa»), euskal fonetika zuzenaren kontra joan arren, ez da kontuan hartuko.
Adb.: *neskatila* > [neskatila] —burutzapen zuzena— eta [neskatiya], akastzat hartuko ez dena.

Oharra: «Bestelakoak» atalean sarituko da, ordea, <**z**> eta <**s**>, <**tz**> eta <**ts**> bereizten dituen azterketariaren ahoskera eta <**il**>ren burutzapen zuzena.

Ondoko hauek ebakerako **akats larritzat** hartuko dira:

- < **tz** > erdarazko < **ch** >ri dagokion hotsaz ahoskatzea.
  Adb.: *aldatzen* > *aldachen.*
- <**z**> <**x**> balitz bezala sistematikoki ahoskatzea.
  Adb.: *zuen* > *xuen; zulatu* > *xulatu; zarata* > *xarata...*
- <**ge, gi**> daramaten euskal jatorriko hitzetan **[x]** ahoskatzea.
  Adb.: *ogi, gezi* > *oji, jezi...*
- Erdarazko *«cerro»* edo *«zona»* moduko hitzetako hasierako **[Θ]** soinua zenbait hitzetan ahoskatzea.
  Adb.: *asimilacio, palatalizatu, zigarro...*
- *Hitz bukaerako leherkari gorren burutzapen «arraroak»:*
  *Adb.: Nik* > *niz, nig, nit, ni-ø...*
  *dut* > *duz, duk, dud...*

Baita hitz artekoak ere:
Adb.: *erritmo* > *errizmo, errikmo...*

Azken puntu honetakoak azterketariaren artikulazio-organoen arazo somatiko gaindiezinaren ondorio diren neurrian, azterketa batzordeburuari jakinaraziko zaio. (Nolanahi ere, berau ez da behin ere arrazoi bakarra izango azterketariren bati «Gutxi» kalifikazioa emateko).

- **Hotsen elkarketa**

Edo hitzak elkartzean sortzen diren aldaketa fonetikoak.

Ondoan deskribaturik dauden era honetako aldaketak EZ eta BAIT partikulek aditz laguntzaileari erastean eragiten dituztenak dira:

| | | | |
|---|---|---|---|
| EZ+B→EZP: | ezpadator, ezpalitz | BAIT+D→BAIT: | baitaude, baitira |
| D→EZT: | eztago, eztira | Z→BAITZ: | baitzara, baitzaio |
| L→EL: | eluke, elitzateke | L→BAIL: | bailuke, bailiteke |
| Z→ETZ: | etzuen, etzaizkio | N→BAIN: | bainaiz, bainago |
| N→EN: | enator, enoa | G→BAIK: | baikara, baikintezke |
| G→EZK: | ezkara, ezkinen | | |

Arau fonetiko hauek ez errespetatzea ez da akastzat hartuko atal honetan; hala ere, «Bestelakoak» atalean sarituko da errespetatzen dituen azterketariaren ahoskera.

#### Prosodia (azentua eta intonazioa)

Azpiatal honetan ezin da irizpide xeherik eman. Dena dela, aztertzaileak honako hauek begiratuko ditu besteak beste:

— Gorago ezarritako «hiztun-ereduaren» azentubidera eta intonazio modura hurreratzen den ala ez azterketaria.
— Erdal azentuaren eragina norainokoa den; hau da, hitzak erdarazko «llanak» bezala ahoskatzen dituen ala ez. Adb.: *mintzaména, koadernóa, baserr'ia.*
— *Funtsezko tonu aldaketak ongi lotzen zaizkion adierazi nahi duenari. Ikusi behar da, beraz, ea galderak, harridurak eta esaldi sinpleak doinuera egokiz ematen dituen, batetik, eta, bestetik, ea tonua indartzen duen esaldiaren barnean garrantzitsutzat jotzen dena nabarmentzeko (galdegaia, esaterako) edo interesguneak inguruko osagarrietatik bereizteko.*

#### Hiato problematikoak

Hitz bukaerako <-**io**> hiatoari -a artikulua erastean sor daitezkeen ahoskera desegokiak: Adb.: *enumerazioa > enumerazioia, enumerazioia...*

Era honetako ebakera sistematikoak akats larritzat joko dira.

### V.3.2. ZUZENTASUNA (morfosintaxia eta lexikoa)

Kontuan hartzekoak:

| HE1 | HE2 |
|---|---|
| *Azterketariaren hutsegite morfosintaktikoek komunikazio-etenak eta gaitzulertuak sorraraz ditzake, baina bere burua zuzentzeko adina ezagutzen du gramatika.* | *Zuzentasun handiz hitz egiten du. Noizik behin mezuaren ulerkuntza eragozten ez duten hutsegite morfosintaktikoak izan daitezke.* |

Errakuntza bakanak onargarriak direla jotzen bada ere, zuzentasun akats larrien deskripzioan datozen zenbait puntutan sistematikoki huts egitea edo sistematikoak izan gabe puntu ezberdinetan behin eta berriz huts egiten badu, GUTXI edo OSO GUTXI kalifikazioa emango zaio azterketariari. Gauza bera esan dezakegu autozuzenketaz, noizbehinkakoak izanez gero

onargarriak dira, baina mezuaren ulerkuntza eragotziz gero NAHIKOA ez emateko arrazoia izan daitezke. Dena dela, akatsak eta autozuzenketak ezin ditugu zorroztasun berberaz epaitu lehenengo eta bigarren Hizkuntz Eskakizunetan.

Era berean, lexikoaren zuzentasunari dagokionez, zenbait akats larritzat joko dira, hala nola, euskal hitz arrunten ordez erdal hitzak erabiltzea edo hitzen bat ez dagokion esangurarekin erabiltzea. (Ikus «V.5.atala: «AKATSAK», akats larrien deskripzioan «Hitzaren esparrua»).

### V.3.3. LEXIKOA (aberastasuna, zehaztasuna eta egokitasuna)

Kontuan hartzekoak:

| HE1 | HE2 |
|---|---|
| *Eskola-gaiei buruzko lexiko aski garatua du, batzuetan asmatu ez arren; bestelako gaietan lexiko orokorraren jabe da, batzuetan hitz desegokiak, erdaratik hartutakoak edo parafrasiak erabili behar baditu ere.* | *Nabarmena da lexiko aberatsaren jabe dela. Bere arloko gaietan lexiko zabala eta zehatza erabiltzen du, baina nolabaiteko muga ere badu. Noiz behinkako gabezia-egoera horietan euskal itxurako ordainak erdaratik mailegatzeko, parafraseatzeko eta antzeko estrategiak garatuak ditu. Hala ere, inoiz asmatu ezina ere gerta liteke.* |

Ondoko puntuotan zentratuko da aztertzailearen arreta:

#### Aberastasuna / zehaztasuna

Azterketariak gaia garatzeko berba errepertorio nahikoa darabilen ala ez begiratuko da. Lexiko mugatua salatzen duten zenbait gertaera:

— Errepikapenak. Adb.: *erabaki bat hartzea erabaki zuen.*
— Hutsarte lexikoak: behar duen berba ez aurkitzea.
— Berba makuluen eta esangura zehazgabeko berben abusua.
Adb.: *zera, ba, baina, orduan, piska bat, gauza, egin, tresna, kontu...*

#### Egokitasuna

— Adierazpen kolokialegiak edo formalegiak agertzea diharduen gai-testuinguruetarako. Adib.: eskola bateko ikasleen gurasoei idatzitako komunikazioren batean «*kaka burutik behera egiten die zuen semeak zaindariei*» (nahi duena egiten duela adierazteko), adierazpen kolokialegia litzateke, nonbait; eta «*Gure ikasle estimatuen guraso zareten jaun-andre agurgarrioi begirunez zuzentzen natzaizue...*» bezalako adierazpenak, formalegiak.

### V.3.4. JARIAKORTASUNA (abiadura, etenak eta berrantolaketak)

Kontuan hartzekoak:

| HE1 | HE2 |
|---|---|
| *Hizkeran gutxienezko jariotasuna izango du, inoiz osatu gabeko esaldiak eta etenak gertatu arren.* | *Hizkera jariakor eta uniformea, ez derrigor jatorrizko euskaldunak adinakoa, baina bai honek onargarritzat joko lukeena.* |

Jariakortasunaren hiru alderdi hauek begiratuko dira:

**Abiadura**

Hiztun guztiek ez dute hitz-jario eta etorri bera: batzuek beste batzuek baino motelxeago hitz egiten dute. Gainera, hiztun berberak bizkorrago edo mantsoago hitz egin dezake, egoera zein den. Zaila da, beraz, neurri-patroi bat ezartzea (2). Dena den, azterketariari jatorrizko euskaldunak onargarri joko lukeen gutxienezko abiadura eskatuko zaio. Aztertzailea bere senaz, gutxi gora-beherako estimazioez eta azterketariaren ihardunak sortarazten dion inpresioaz (erosotasuna, nekea...) baliatuko da azpiatal hau baloratzeko.

**Etenaldiak**

Katea mintzatuan barrena eten batzuk derrigorrezkoak dira (arnasa hartzeko, unitateak bereizteko, eta abar egiten direnak); beste batzuk, aldiz, aukerakoak (efektu erretorikoak sortzekoak, adibidez). Badira beste batzuk, hizkuntz sistemaren kontrol mugatuaren ondorio, komunikazioa astun bihurtzen dutenak eta mezuaren harrera galaraz dezaketenak. Eten hauek gaitzestekoak dira. Adibidez:

- Batera eman beharreko hitzen artean etenak egitea:
  — Aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean: *Lehengoan ikusi ... zintugun.*
  — *Sintagma banaezinetan: bere ... etxean; zazpigarren ... pisua; beste ... orri ... bat.*

Galdegaiaren eta aditzaren artean egitea: *Etxera ez, automobila hartzera ... nindoan.*

- *Konparatiboetan etena lekuz aldatzea: Peru Anton ... baino trebeagoa da.*
- Hitzaren barruan etenak egitea: *zu...regana; ekarri zen...ituzten.*

***«Oihartzunak»* eta berrantolaketak**

Hiztun trebeenek ere, tarteka bederen, huts egiten dute oharkabean. Nekeak, urduritasunak, interes ezak eta abarrek eragindako iharduerazko errakuntza horiez ohartu bezain laster, zuzentzen saiatzen da hiztuna, atzera joaz esandakoa berrantolatzeko. Beste zenbaitetan esaldia modu batean hasi eta erdian dagoela, bukatu gabeko esaldiari «norabide» berria ematen dio. Ahozko hizkuntzaren fenomeno hauek onargarriak dira, bakanka gertatzen direnean.

Autozuzenketa neurturik egiten denean onargarria bada, neurriz kanpo egiten denean, hizkuntz sistemaren kontrolik eza salatzen du eta komunikazioa galarazi egiten du.

---

(2) HE2ko mailaren pareko hizkuntza arrotzen (ingelesa, kasu) ikasleei jatorrizko hiztunek darabilten abiadura motelena eskatzen zaie gutxienez. Euskarari dagokionez, ezagutarazi den azterketa bakarraren arabera (HABE, Mintzamena lantzen. 1985), jatorrizko euskalduna 95-140 hitz/min.-ko abiaduran mintzatzen da. Gutxienezko abiadura hori eskatuko zaie, bada, HE2ko azterketariei. Azterketa honetan ez dira, hala ere, minutuak eta hitzak kontatuko. Datu honek duen balio bakarra bateratze saioetan erreferentzia gisa har dezakeena da.

### V.3.5. BESTELAKOAK

**Koherentzia (gaiarekiko atxikimendua, informazioaren kalitatea, testuaren egituraketa)**

Ataltxo honetan hauexek dira aztergai: azterketariak eskaintzen duen informazioaren pertinentzia eta kalitatea, batetik, eta beronen ordena, zehaztasun eta xehetasun maila, egituraketa..., bestetik (testuaren aspektu hau baloratzeko, ikus gorago, idazlanaren ebaluazioari dagozkion irizpideetan, koherentziaz esandakoa, beti ere kontuan harturik ahozko hizkeraren ezaugarriak direla eta, askoz ere malguago aplikatu behar direla han zehaztutakoak).

**Baliabide espresibo orokorrak**

— Hizkuntz sistema malgutasunez eta erraztasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten duen konplexutasun sintaktikoa eta elaborazio maila.
— Solaskidearen arreta erakartzeko eta interesa pizteko, eraginkorragoa izateko, azalpen osatuago eta zehatzagoak burutzeko eta abarretarako baliabide erretorikoak, orijinaltasuna eta ausardia.

**Hizkuntzaren sistema fonologikoaren kontrola**

Euskal fonema «zailen» burutzapen zuzena sarituko da atal honetan.

# V.4. PROBAK BALORATZEKO IRIZPIDEEN LABURPENA

| IDAZLANA BALORATZEKO IRIZPIDEAK |
|---|
| 1. KOHERENTZIA (informazioaren aukeraketa eta egituraketa)<br>• **Informazioa.** Mezua ulertu ahal izateko behar diren datuak ematen ditu? Informazio larregi edo gutxiegi ematen du? Kontraesanik dago enuntziatuen artean?<br>• **Egitura.** Informazioaren ordenamendua logikoa da? Ba al dago errepikapenik, informazio hutsarterik edo etenik?<br>• **Parrafoak.** Parrafo bakoitzak ideia ezberdin bat garatzen du?<br><br>2. KOHESIOA (testuaren artikulazioa)<br>• **Loturak.** Testu zatien arteko erlazio logikoak (kausa-ondorioa, ordena, emendioa, aurkaritza...) adierazten dituzten lokailuak eta testu antolatzaileak ondo erabilita daude?<br>• **Ordezkapenerako mekanismoak (izenordainak, erakusleak, zenbait adberbio...).** Ba al dago errakuntzarik izenordainen eta erakusleen erabileran? Elementu bat berriz aipatzeko baliabide ezberdinak erabiltzen ditu ala beti berbera?<br><br>3. ZUZENTASUNA<br>Zenbat akats morfosintaktiko, lexiko eta ortografiko larri dago?<br>• **Morfosintaxia / lexikoa.** Testua ulertzea galerazten duten akatsak asko dira? Hizkuntzaren arau morfosintaktiko nagusiren batean sistematikoki huts egiten du? Hitz guztiak berezko esanahiaz erabiltzen ditu beti?<br>• **Puntuazioa / ortografia.** Puntuazio akats larririk (punturik eza, justifikaziorik gabeko komak sujetoaren ondoren, komarik gabeko aposizioak...) dago? Galdera eta harridura zeinuak ondo erabiltzen ditu? Hitz arruntetan akats ortografiko larririk ageri da?<br>• **Hitzen ordena.** Esaldia osatzen duten hitzak ordena logiko eta ulergarrian ezarrita daude?<br><br>4. BESTELAKOAK<br>• **Baliabide espresibo orokorrak.** Konplexutasun sintaktikoa; aberastasun eta zehaztasun lexikoa; idazlearen ausardia; elaborazio maila; orijinaltasuna...<br>• **Erregistroa.** Ba al dago gaiarentzat baldres edo arruntegi / teknikoegi edo konplexuegi gertatzen den adierazpenik? Idazlearen tonua familiarregia edo zuzenegia / distanteegia da jasotzailea zein den kontuan harturik?<br>• **Idazlanaren presentazioa**. Marjinak eta lerroak zuzenak dira? Kaligrafia ulergarria da? Tilulua, atalak, parrafoak... ondo bereizirik daude? |

## AHOZKO PROBA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

1. OSAGAI MORFO-FONETIKOA
   - **Ebakera.** Fonemak ongi burutzen ditu? Erdal maileguetarako lege fonetikoak errespetatzen ditu? Ahoskera itxiegia erakusten du?
   - **Azentua / Doinuera.** Nabarmena al da ama-hizkuntzaren eragina hitzen azentuan eta esaldien intonazioan? Esanahia eta doinuera bat datoz?
   - **Hiato problematikoak.** -io bukaerari artikulua erastean zuzen ahoskatzen du?
2. ZUZENTASUNA
   - **Morfosintaxia.** Arau morfosintaktiko nagusiak (ergatiboa, aditzaren komunztadura, laguntzaile mota, juntagailu eta menderagailu nagusiak...) ondo menderatzen ditu?
   - **Lexikoa.** Hitzak dagokien esanahiaz erabiltzen ditu?
3. LEXIKOA
   - **Aberastasuna / Zehaztasuna.** Berba ezberdin ugari erabiltzen ditu ala berba multzo txiki batera mugatzen da? Esanahi zabalegiko berba zehazgabeak eta berba makuluak asko dira? Hitzak asmatu ezina gertatu zaio?
   - **Egokitasuna.** Gaiarentzat kolokialegi edo formalegi gertatzen diren adierazpenak erabiltzen ditu?
4. JARIAKORTASUNA
   - **Abiadura.** Astiro mintzatzen den jatorrizko hiztun baten pareko abiaduraz hitz egiten du? Diharduen abiaduragatik nekoso egiten da haria segitzea?
   - **Etenaldiak.** Zalantza eta erraztasun eza salatzen duten etenak egiten ditu? Isiluneak betetzeko «eee...», «mmm...» bezalako betegarriak aspergarri gertatzen dira?
   - **Berrantolaketak.** Neurriz kanpoko berrantolaketak egiten ditu?
5. BESTELAKOAK
   - **Koherentzia.** Behar diren datuak era ordenatuan eskaini ditu, informazio larregi edo gutxiegirik eman gabe? Ba al dago errepikapenik edo kontraesanik esandakoen artean?
   - **Baliabide espresibo orokorrak.** Konplexutasun sintaktikoa, baliabide erretorikoak, orijinaltasuna...
   - **Bestelakoak.** Fonema «zailen» burutzapen zuzena.

# V.5. AKATSAK

## • Akatsen baioespena

Azterketariek idazlanetan nahiz ahozko probetan egiten dituzten akatsak era askotakoak izaten dira; batzuk munta handikoak edo «larriak» eta beste batzuk ez hain larriak edo garrantzi gutxiagokoak. Ez dira, beraz, denak berdin baloratuko. Akats baten garrantzia hiru irizpide nagusi hauen arabera baloratuko da:

**1.-Noraino oztopatzen duen mezuaren ulergarritasuna.** Larriagoak dira gaitzulertuak sortzen eta mezuaren harrera galarazten dutenak ulergarritasunean ondoriorik eragiten ez dutenak baino. Azken hauek garrantzi gutxiagokoak dira, irizpide soil honi dagokionez.

**2.-Zein den akatsak ukitzen duen hizkuntz sistemaren egitura.** Irizpide honen arabera, larriak dira oinarrizko arau morfosintaktiko edo ortografikoetan eta maiztasun handiko hitzetan egiten direnak. Maiztasun urriko hitzetan edo egitura sintaktiko konplexuago edo bitxiagoetan egiten direnak ez dira hain garrantzitsuak.

**3.-Noraino den sistematikoa.** Akats batzuk *«hutsak»* dira —iharduerazko akatsak alegia—, urduritasunak, estuasunak edo arreta faltak eragindakoak; beste batzuk, berriz, *«errakuntzak»* edo egitura morfosintaktikoren baten kontrolik ezak eragindakoak. Lehenengoak ez dira sistematikoak izaten eta ,askotan, azterketariak berak zuzentzen ditu idazlana berrirakurtzean (edo esandakoaren berrantolaketak eginez, hizketan ari denean). Hauek ez dute, beraz, aparteko garrantzirik, neurriz gertatzen badira. Bigarrenak, ordea, sistematikoak izaten dira eta garrantzitsuagoak, arau morfosintaktiko, ortografiko edo lexiko-item jakin batzuen kontrol osagabea erakusten baitute.

## • Akatsak hizkuntz trebetasunen eta Hizkuntz Eskakizunen arabera

Orohar, akatsen garrantziari nahiz kopuruari dagokienez, Hizkuntz Eskakizun bereko idazlanetan zorrotzago jokatuko da, eta ahozko azalpenetan malguago.

Era berean, Hizkuntz Eskakizunei dagokienez, HE2an zorrotzago jokatuko da, eta HE1ean malguago.

Ondoren, idazlanetan agertuz gero, larritzat jotzen diren zenbait akats deskribatzen dituzten zenbait taula datoz:

## IDAZLANETAKO AKATS LARRIAK

### Hitzaren esparrua

| akatsak | adibideak |
|---|---|
| • Kategoria gramatikalen aldaketa | • *Barrez / negarrez egin (barre/negar egin)*<br>*Bi ohiuka entzun ziren*<br>*Arrantzale nekatuta bat (arrantzale nekatu bat)*<br>*Hobeto da horrela (hobe)*<br>*Zu baino nekatutako nago (nekatuago)* |
| • Erdarazko maileguen inguruko erabilera eskasak<br>— a artikulua erastea ahaztea<br>— s pluralgilea<br>— a femeninoarena ez ezabatzea | • *Pegamento bota behar dut ondo itsasteko*<br>*Azken zentso egin dutenean...*<br>*Botos lortzeko kanpaina*<br>*Celosen sustraia hortxe dago*<br>*Etiketas erabiliz*<br>*Gimnasia moderna*<br>*Erreakzio kimika* |
| • Hitzari ez dagokion esangura eratxekitzea | • *Doktoreen zenbakia (kopurua)*<br>*Nire aitak (gurasoak)*<br>*7 seme dauzka (seme-alaba)* |
| • Euskal hitz arrunten ordez erdal hitzak erabiltzea | • *Non daude tijerak?*<br>*Utzi mesa gainean* |

**Aditza**

| akatsak | adibideak |
|---|---|
| • Aditzaren komunztadura ez errespetatzea | • *Gizonak ikusi dut*<br>*Lilburu batzuk erosi zuen* |
| • Laguntzaile mota gaizki hautatzea | • *Kalean ikusi dit*<br>*Zer ipintzen da liburuan?*<br>*Kezkatzen zait*<br>*Hau gaizki funtzionatzen da* |
| • Aditzaren aspektua, tempusa (hipotetikoa barne) edota modua gaizki erabiltzea | • *Atzo gelan egoten ginen (egon ginen)*<br>*Garaiz heldu nahi nuen, baina ezin dut (ezin izan dut)*<br>*Lehen esan nuen bezala (esan dudan)*<br>*Orain pozik egingo nuen (egingo nuke)*<br>*Esango banioke (esango banio)*<br>*Sartu zarete barrura! (zaitezte)*<br>*Goaz etxera!* |
| • Ordena gaizki. | • *Ez nahi du etorri*<br>*Joango behar du* |
| • Nominalizazioak gaizki egitea | • *Ez daki patata tortila egitea*<br>*Programatzera ikasi du*<br>*Jotzera hasi da*<br>*Mendira joan gustatzen zaio*<br>*Etxera joatea agindu zion* |
| • Partizipioari lotzen zaion -ta atzizkiari pluralaren marka erastea | • *Nekatutak gaude* |

**Deklinabidea, sintaxia...**

| akatsak | adibideak |
|---|---|
| • Determinatzailearen inguruko akatsak | • *Mutila hori*<br>*Mutilak hauek* |
| • Zenbait kasuren erabilera okerra -(r)ik, -(r)entzat, ... | • *Ez daude gailetarik*<br>*Hori nirentzat, gurentzat da* |
| • Izen propioak | • *Nekanearekin etorri da* |
| • Bizidun / bizigabeak | • *Txakurrera hurbildu* |
| • Mugagabea | • *Istripurik gerta ez daitezen*<br>*Zenbait liburuak*<br>*Edozein mutilari* |
| • -a itsatsia | • *Tontakeri bat*<br>*lau pertson* |
| • «ere» partikularen erabilera okerrak | • *Ere bai esan zuen*<br>*Ekarri zuen ere...* (eta antzekoak)<br>*Bilbon egon naiz eta Donostian ere*<br>*Ez dut ezer ere ez egin* |
| • -ela partikula erlatibotzat ematea | • *Ezagutzen dut gizon bat Parisen bizi dela* |
| • zehar galderak gaizki egitea | • *Ez dakit zer ordu da*<br>*Noiz itzuliko naizela galdetu dit* |
| • Galdera zuzenak zehar galderaren -n atzizkiarekin ematea | • *Nola esaten den hau?*<br>*Aizu, zer den hau?* |
| • Hitzen ordena desegokia | • *Daukat etxe bat mendian*<br>*Lokalizatzeko baserria da gehiegi*<br>*Beste herriko gizon bat (herriko beste gizon bat)*<br>*Ekonomiko arazoak* |
| • Subordinazio-atzizkiak gaizki eranstea | • *Dezakela / dezakeela*<br>*Nuenela / nuela* |
| • Posposizioen inguruko erabilera okerrak | • *Biok artean*<br>*Ikasturtearen zehar*<br>*Epearen kanpo aurkeztu du lana* |
| • Nola /nolako; Bezala / bezalako | • *Nola da zure etxea?*<br>*Hori nirea bezala da*<br>*Jon zu bezala da* |
| • Beste | • *Goazen beste lekura (leku batera)* |
| • Elkar | • *Elkar egon ziren* |
| • *Ber-* morfemaren inguruko akatsak | • *Patxi berak kontatu du*<br>*Hauteslea berari jausi zaio boto-papera*<br>*Etxe bertatik irten zen* |
| • Kopuruak / fetxak | • *Urtarrilak 13an*<br>*1900: mila bederatziehun (eta bederatziehun)*<br>*erdi litro* |

# V.6. IDAZLANETARAKO ETA AHOZKO PROBARAKO BAREMOAK

Aurreko orrialdeetan zehatz-mehatz ematen diren neurpideak ondoren datozen lau taulen bidez aplikatu behar dira; horretarako:

**Idazlanak**

Testu idatziak ebaluatzerakoan arlo desberdinak hartuko dira kontuan: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, zuzentasuna, bestelakoa, gaiarekiko atxekimendua, ... Arlo desberdin horiek era integratu baten bidez ematen dira aplikatu behar den baremoan. Baremo horretan proposatzen diren mailaz mailako deskribapenak benetako ekoizpenen hurbilpentzat hartu behar dira.

Nota globala kalkulatzeko honela jokatuko da: baremoan datozen deskribapenetatik hurbilena aurkitu beharko da eta kalifikazioa horren arabera eman. Deskribatutako mailak haeuxek dira: **Oso gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi**. Horrez gain, deialdi itxietan, idazlanen bat erabat apartekoa bada, **Bikain** kalifikazioa ere eman ahal izango zaio.

**Ahozko proba**

Proba hau kalifikatzerakoan arlo desberdinak hartuko dira kontuan: osagai morfo-fonetikoa, zuzentasuna, lexikoa, hitz jarioa, bestelakoa, gaiarekiko atxekimendua, ... Arlo desberdin horiek era integratu baten bidez ematen dira aplikatu behar den baremoan. Baremo horretan proposatzen diren deskribapenak benetako ekoizpenen hurbilpentzat hartu behar dira.

Nota globala kalkulatzeko honela jokatuko da: Baremoan datozen deskribapenetatik hurbilena aurkitu beharko da eta kalifikazioa horren arabera eman. Deskribatutako mailak hauexek dira: **Oso gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi**. Horrez gain, deialdi itxietan, ahozko ekoizpenen bat erabat apartekoa bada, **Bikain** kalifikazioa ere eman ahal izango zaio.

Dena dela, ezinbestekoa dugu kontutan hartzea «Nahikoa» dela baremo hauen abiapuntua eta «Gutxi» nota emateko ekoizpenak —idatziak zein ahozkoak— ez dituela zertan bete «Gutxi» sailean agertzen diren ezaugarri guztiak, aski dela atal batean edo bestean betetzea.

Deialdi irekian Gai/Ez Gai moduan kalifikatiko da Ahozko proba.

## IDAZLANAK HE1

| Deskribapena | Nota |
|---|---|
| • Testu oso ona. Sinplea dela esan badaiteke ere, oso gutxitan sortarazten dio tentsioa irakurleari.<br>• Informazio, gertaera eta argudio errelebanteak aurkezten ditu era erakargarrian; ideia nagusi nabarmenak eta ongi garatuak. Mezuaren haria erraz segitzen uzten duen testu egituraketa logikoa.<br>• Aditz-forma eta gramatika-egitura konplexuagoetan ere oso akats gutxi antzematen dira. Baliabideetan oraindik mugaturik badago ere, hizkuntz sistema zuzentasunez erabiltzeko trebetasuna erakusten du. Ortografi akats gutxi.<br>• Lexiko orokorra eta eskolaren esparrukoa menderatzen ditu. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu. | OSO ONGI |
| • Testu ona. Bere sinpletasunean, ongi eta erraz ulertzen da eta gutxitan sortarazten dio tentsioa irakurleari.<br>• Informazio, gertaera eta argudio ongi aurkeztuak; ideia nagusi aski argiak, gehienetan ongi garatuak. Mezuaren haria esfortzu larregirik gabe segitzen uzten duen testu egituraketa egokia.<br>• Aditz forma eta gramatika egitura nagusiak ongi erabiltzeaz gain testua borobiltzeko forma aberasgarriak erabiltzen ditu. Gramatika eta ortografi akatsen bat izan dezakeen arren, horiek ez dira oztopo testua ulertzeko.<br>• Lexiko orokorra eta eskola-giroko berarizkoa ongi ezagutzen ditu, noizean behin mugak eta hitz desegokiak antzeman badaitezke ere. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu. | ONGI |
| • Testu ona. Apartekoa eta oso-osoa izan gabe, orohar ongi ulertzen da, irakurlearengan tentsio handirik sortu gabe.<br>• Informazio nahikoa, ongi garatua, esanguratsua eta era egokian egituratua aurkezten du. Hala ere, idearen baten garrantzia edo borobiltasuna dudazkoa gerta daiteke edo daturen bat ondo lotua ez egotea.<br>• Arau morfosintaktiko eta ortografiko nagusiak ondo erabiltzen ditu. Forma konplexuagoetan eta erabilera urriagoko hitzetan akatsak ager daitezke, baina ez dute gehienetan testuaren ulergarritasuna baldintzatzen.<br>• Lexiko orokorra eta eskola-giroko berarizkoa ezagutzen ditu, batzutan mugak eta hitz desegokiak antzeman badaitezke ere. | NAHIKOA |
| • Irakurleari tentsioa sortarazten dion testua; honek askotan arazoak ditu idatzitakoa ulertzeko edota sinpleegia iritzi diezaioke.<br>• Informazioa, gertaerak eta argudioak aurkezten dituen arren, euren garapena edo ideien arteko lotura desegokia izan daiteke, argitasuna edota errelebantzia falta dakieke edo testuaren egituraketa eskasa izan daiteke.<br>• Arau morfosintaktiko eta ortografiko nagusi gehienak kontrolatzen dituen arren, horietan ere behin baino gehiagotan huts egiten du. Hizkuntz baliabideen eskasiak nahiz gramatika eta ortografi akatsen maiztasunak gaitzulertuak edota egonezina sortaraz dezakete irakurlearengan.<br>• Lexiko mugatua eta zehazgabea. Gaizki hautatutako berbak edo erdarakada nabarmenak ager daitezke. | GUTXI |
| • Irakurleari tentsio handia sortarazten dion testua; honek etengabe arazoak ditu idatzitakoa ulertzeko edota guztiz sinplea iritzi diezaioke.<br>• Informazio elementu batzuk eta zenbait gertaera eta argudio aurkeztu arren, ez da gai ideia osabeteak eta argiak adierazteko edo testuaren egituraketa eskasarengatik ezin da mezuaren haria segitu.<br>• Gramatika-egitura nagusi gutxiren kontrola erakusten du. Adierazpen ohikoenetan ere akats morfosintaktiko edota ortografikoak ager daitezke.<br>• Lexiko mugatua eta zehazgabea. Berba okerrak edota erdarakada nabarmenak ager daitezke. Muga nabarmena antzematen da gaia gutxieneko zehaztasunez garatzeko. | OSO GUTXI |

# AHOZKO PROBA HE1

<table>
<tr><th>Deskribapena</th><th></th><th>Nota</th></tr>
<tr><td>• Gai da ahozko zeregin arrunt gehienak erraztasunez burutzeko; solaskideak gutxitan somatzen ditu zailtasunak azterketariak bere ideiak adierazten dituenean.<br>• Aditz forma eta gramatika egitura konplexuagoetan ere oso akats gutxi antzematen dira. Baliabideetan oraindik mugaturik badago ere, hizkuntz sistema zuzentasunez erabiltzeko trebetasuna erakusten du.<br>• Lexiko orokorra eta eskolaren esparrukoa menderatzen du. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.<br>• Jatorrizko hiztunaren abiadurara heldu ez arren, hizkera jariakor eta uniformea erakusten du.</td><td rowspan="2">Doinueran amahizkuntzaren kutsua izan dezakeen arren, ahoskera onargarria du.</td><td>OSO ONGI</td></tr>
<tr><td>• Gai da ohiko komunikazio-egoeretan ahozko zereginak, orohar, erraztasunez eta erosotasunez burutzeko, nahiz eta solaskideak batzutan zailtasunak somatu.<br>• Aditz forma eta gramatika egitura nagusiak ongi erabiltzeaz gain bere ideiak borobiltzeko forma aberasgarriak erabiltzen ditu.<br>• Lexiko orokorra eta eskola-giroko berarizkoa ongi ezagutzen ditu, noizean behin mugak eta hitz desegokiak antzeman badaitezke ere. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu.<br>• Hizkera oraindik motela, baina nahiko erregularra, solaskidearengan oso gutxitan egonezina sortzen duena.</td><td>ONGI</td></tr>
<tr><td>• Gai da elkarrizketan parte hartzeko, gertaerak eta esperientzia pertsonalak komunikatzeko eta bere iritziak adierazteko, nahiz eta batzutan solaskideak zailtasun handiak somatu. Hala ere, gehienetan, komunikazioa aurrera ateratzen du.<br>• Arau morfosintaktiko nagusiak, oro har, zuzentasunez erabiltzen ditu, eta batzutan forma aberasgarriak ere bai. Inoiz akats larriak eta txikiak antzeman badaitezke ere, akatsok ez dute mezuaren harrera eragozten.<br>• Gai orokorrei eta eskola-girokoei buruzko lexiko aski garatua, batzutan mugak eta hitz desegokiak (txarto hautatutakoak, erderakadak, etab.) antzeman arren.<br>• Hizkera askotan motela eta ez uniformea erakuts dezake, baina ez solaskidea aspertarazterainokoa.</td><td>Gehienetan ondo ahozkatzen du. Baliteke zenbait fonema gaizki burutzea eta azentuan eta intonazioan ama-hizkuntzaren eragin handia izatea.</td><td>NAHIKOA</td></tr>
<tr><td>• Zailtasun handiak elkarrizketan parte hartzeko. Nahiz eta gertaerak, esperientzia pertsonalak eta bere iritziak nola edo hala adierazteko gauza izan, darabiltzan hizkuntz baliabideen eskasiak askotan zapuzten du komunikazioa eta ez dio biderik ematen azalpen edo arrazonamendu luzexkak egiteko.<br>• Egitura nagusi batzuk ondo menderatzen baditu ere, beste asko ez ditu ondo kontrolatzen edo akats larri etengabeek gaitzulertuak edo ernegua eragiten dituzte maiz solaskidearengan.<br>• Lexiko mugatua eta zehazgabea. Gaizki hautatutako berbak edo erdarakada nabarmenak ager daitezke.<br>• Hizkera oso motela eta irregularra; etenaldi eta berantolaketa ugari.</td><td rowspan="2">Baliteke mezuaren ulerkuntzarako arazo diren zenbait fonemaren burutzapen «bitxiak» agertzea edo gaztelaniaren mendeko doinuera erakustea.</td><td>GUTXI</td></tr>
<tr><td>• Zailtasun ia gaindiezina elkarrizketan aritzeko eta bere iritziak edota jarrera pertsonala adierazteko, nahiz eta esaldi solte batzuk ongi burutu. Baliteke gertaeraren bat edo bere esperientzia pertsonalarekin zerikusia duten zenbait kontu jakinetan nolabaiteko trebetasuna erakustea.<br>• Oso hizkuntza sinplea erabiltzen du edo akatsak oso ugari eta sistematikoak dira.<br>• Oinarri-oinarrizko lexikora mugatzen da. Berba okerrak, mailegu bitxiak edota erdarakadak maiz erabil ditzake. Muga ia gaindiezina erakusten du esan nahi duena gutxieneko zehaztasunez adierazteko.<br>• Hizkera oso motela, zatikatua eta oso irregularra, komunikazioa erabat zailtzen duena.</td><td>OSO GUTXI</td></tr>
</table>

## IDAZLANA HE2

| Deskribapena | Nota |
|---|---|
| • Testu borobila, ia inolako zailtasunik gabe irakurtzen dena.<br>• Informazio, gertaera eta argudio errelebanteak aurkezten ditu era erakargarrian; ideia nagusi nabarmenak eta ongi garatuak. Mezuaren haria erraz segitzea uzten duen testu egituraketa logikoa.<br>• Ez dago lexiko, ortografia, puntuazio eta gramatika akats larririk; idazlanak hizkuntz sistema ia erabateko zuzentasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten du. | **OSO ONGI** |
| • Testu oso ona eta landua, irakurlearengan oso gutxitan zailtasunak eragiten dituena.<br>• Informazio, gertaera eta argudio ongi aurkeztuak; ideia nagusi aski argiak, gehienetan ongi garatuak. Mezuaren haria esfortzurik gabe segitzea uzten duen testu egituraketa egokia.<br>• Irakurleak akats txikiak eta —oso noizbehinka— larriren bat soma ditzake; nolabaiteko limitazioak soma daitezke hizkuntz sistema zuzentasunez erabiltzeko. | **ONGI** |
| • Testu ona eta landua, zenbaitetan irakurlearengan nolabaiteko tentsioa sortu arren.<br>• Informazioa, gertaerak eta argudioak egokiro aurkeztu eta garatzen ditu, nahiz eta irakurleari zenbaitetan kosta dakiokeen ideia nagusiak euren euskarri direnetatik bereiztea; zenbaitetan gerta liteke ideiak arrazoiturik ez egotea. Testu egituraketa nahikoa mezuaren haria segitzeko.<br>• Irakurleak lexiko, ortografia eta gramatikaren aldetik akatsak eta hizkuntz sistemaren erabilera nolabait mugatua somatu arren, honek guztiak ez du gehienetan testuaren ulergarritasuna oztopatzen. | **NAHIKOA** |
| • Irakurleari tentsioa sortarazten dion testua; elaborazio maila bat erakusten badu ere, irakurleak batzutan arazoak ditu idatzitakoa ulertzeko.<br>• Informazioa, gertaerak eta argudioak aurkezten ditu, baina askotan argitasun eta euskarri eskasarekin; ideien arteko lotura desegokia eta iluna izan daiteke edota testu egituraketa eskasa; zailtasunak mezuaren haria segitzeko.<br>• Lexikoaren, ortografiaren eta gramatikaren erabilera desegokia, irakurlearengan zenbaitetan interferentziak eta gaitzulertuak sortarazten dituena. | **GUTXI** |
| • Irakurleari tentsio handia sortarazten dion testua; nahiz eta testua oso sinplea ez izan, irakurleak askotan arazoak ditu idatzitakoa ulertzeko.<br>• Informazio elementu batzuk eta zenbait gertaera eta argudio aurkeztu arren, ez da gai ideia osabeteak eta argiak adierazteko. Gerta liteke testu egituraketa argirik ez egotea eta mezua segitu ezin izatea.<br>• Irakuleak berehalaxe antzematen du lexiko, ortografia eta gramatika akats larri ugari, askotan ernegua sortarazten diotenak. | **OSO GUTXI** |

## AHOZKO PROBA HE2

| Deskribapena | Nota |
| --- | --- |
| • Ez du inolako eragozpenik azalpen konplexuak egiteko edo bere ideiak xehetasunez adierazteko.<br>• Euskara batuan diharduen jatorrizko hiztunarenarekin pareka daitekeen ahoskera.<br>• Oso akats gutxi eta gehienak iharduerazkoak eta ez-sistematikoak.<br>• Lexiko zalaba eta zehatza bai bere lanbideari dagozkion gaietan bai gai orokorrei dagozkienetan.<br>• Mintzagai orokorretan nahiz bere lanbideari dagozkienetan jatorrizko hiztunarenera asko hurbiltzen den hizkera jariakor eta uniformea. | OSO ONGI |
| • Bere lanbideari dagozkion hozko zeregin guztiak erraztasunez egiten ditu.<br>• Euskara batuan diharduen jatorrizko hiztunarenera asko hurreratzen den ahoskera, ama-hizkuntzaren eragina soma daitekeen arren.<br>• Noizean behingo akatsak; egitura gutxi batzuren kontrol osagabea, baina ez gaitzulertu larriak eragiteko bestekoak.<br>• Bere lanbideko nahiz ohiko gizarte harremanetako gaietan lexiko zabala eta zehatza darabil aparteko arazorik gabe, nahiz eta noizbait zailtasunak somatu eta egiten duen aukera egokiena ez izan<br>• Hizkera jariakor eta uniformea, nahiz eta nabaria izan jatorrizko hiztuna ez dena; inoiz edo behin zalantzati ager daiteke; hitzak bilatu beharrak eta esanaren birformulazioak etenak eta desorekak sor ditzakete. | ONGI |
| • Irakaslanak orohar eskatzen dituen ahozko zereginak burutzeko gai da, baita ideia konplexu samarrak adierazteko ere.<br>• Ahoskera gehienetan onargarria jatorrizko hiztunarentzat; fonemak ondo burutzen ditu; azentuan eta intonazioan ama-hizkuntzaren eragina izan dezake.<br>• Zuzentasunez hitz egiten du, noizik behin mezuaren ulerkuntza orohar eragozten ez duten akats morfosintaktiko larriren bat izan dezakeen arren.<br>• Lexiko orokor aberatsa; bere lanbideari dagozkion gaietan lexiko zabala eta zehatza erakusten du, nolabaiteko muga soma badaiteke ere; noizbehinka asmatu ezina gerta liteke edo dagokion euskal hitzaren ordez erdaratik mailegatutakoaz baliatu beharra.<br>• Hizkera jariakor eta uniformea, ez jatorrizko hiztunarena adinakoa, baina honek onargarritzat joko lukeena. | NAHIKOA |
| • Ideia konplexuak adierazteko zailtasun nabariak ditu.<br>• Zenbaitetan ahoskera ez onargarria, nahiz eta entzuleak esaten zaiona gehienetan erraz ulertu ahal izan; gerta liteke zenbait fonema gaizki burutzea; azentuan eta intonazioan ama-hizkuntzaren eragin nabaria erakuts dezake.<br>• Arau morfosintaktiko nagusi gehienak kontrolatzen baditu ere, akats txiki eta larriek tentsioa eta gaitzulertuak sortarazten dituzte solaskidearengan.<br>• Lexiko mugatua; zailtasunak hitzak aukeratzerakoan; gaia aurrera ateratzeko besteko hitz errepertorioa erakusten badu ere, muga nabariak somatzen dira bereziki aldez aurretik prestatu gabeko topikoez aritzen denean.<br>• Hizkera askotan motela eta irregularra entzulearengan egonezina sortaraz dezakeena; zalantzati agertzen da eta noiz behinka komunikazioa eten ere egin daiteke. | GUTXI |
| • Ahozko azalpen traketsa edo nekagarria solaskidearentzat.<br>• Baliteke mezuaren ulerkuntzarako arazo diren zenbait fonemaren burutzapen «bitxiak» agertzea edo gaztelaniaren mendeko azentua eta intonazioa erakustea.<br>• Oinarrizko aditz forma eta gramatika egituretan ere akatsak antzematen dira. Arau morfosintaktiko askoren kontrol osagabea. Komunikazioa maiz galarazten dezaketen akats txikiak eta larriak.<br>• Lexiko murritza: oinarrizko hiztegira mugatzen da; alor honetan erakusten duen gabeziak ez dio biderik ematen bere lanbideari dagozkion gaietan gutxieneko zehaztasun, sakontasun eta zabaltasunez euskaraz aritzeko.<br>• Hizkera irregularra eta motelegia, esaldi laburretan izan ezik; oso zalantzati. | OSO GUTXI |

# VI. ERANTZUNAK

## VI.1. DEIALDI IREKIKO ERANTZUNAK

### HE1: AAG

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **C** | 11 | **A** | 21 | **A** | 31 | **C** | 41 | **D** | 51 | **D** | 61 | **B** |
| 2 | **B** | 12 | **D** | 22 | **A** | 32 | **C** | 42 | **D** | 52 | **A** | 62 | **C** |
| 3 | **D** | 13 | **C** | 23 | **D** | 33 | **D** | 43 | **C** | 53 | **D** | 63 | **C** |
| 4 | **C** | 14 | **A** | 24 | **C** | 34 | **C** | 44 | **A** | 54 | **C** | 64 | **C** |
| 5 | **D** | 15 | **C** | 25 | **B** | 35 | **A** | 45 | **A** | 55 | **B** | 65 | **D** |
| 6 | **B** | 16 | **A** | 26 | **A** | 36 | **B** | 46 | **B** | 56 | **B** | 66 | **D** |
| 7 | **D** | 17 | **B** | 27 | **B** | 37 | **A** | 47 | **A** | 57 | **B** | 67 | **A** |
| 8 | **A** | 18 | **B** | 28 | **D** | 38 | **B** | 48 | **D** | 58 | **D** | 68 | **D** |
| 9 | **C** | 19 | **A** | 29 | **C** | 39 | **C** | 49 | **C** | 59 | **A** | 69 | **C** |
| 10 | **B** | 20 | **D** | 30 | **C** | 40 | **A** | 50 | **B** | 60 | **C** | 70 | **B** |

**HE1: Ahozkoaren ulermena** (Angiozarko eskola)

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| **D** | **B** | **C** | **A** | **B** |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| **C** | **C** | **B** | **D** | **A** |

**HE1: Irakurmena** (elkarrizketa Abraham Olanorekin)

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| **A** | **C** | **A** | **C** | **B** |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| **A** | **D** | **B** | **A** | **D** |

**HE2: AAG**

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **C** | 11 | **A** | 21 | **B** | 31 | **B** | 41 | **C** | 51 | **C** | 61 | **D** |
| 2 | **A** | 12 | **B** | 22 | **C** | 32 | **D** | 42 | **A** | 52 | **A** | 62 | **B** |
| 3 | **B** | 13 | **D** | 23 | **A** | 33 | **B** | 43 | **C** | 53 | **C** | 63 | **C** |
| 4 | **D** | 14 | **C** | 24 | **B** | 34 | **B** | 44 | **D** | 54 | **C** | 64 | **A** |
| 5 | **A** | 15 | **D** | 25 | **C** | 35 | **B** | 45 | **C** | 55 | **C** | 65 | **C** |
| 6 | **A** | 16 | **C** | 26 | **D** | 36 | **A** | 46 | **C** | 56 | **D** | 66 | **C** |
| 7 | **A** | 17 | **A** | 27 | **C** | 37 | **D** | 47 | **A** | 57 | **C** | 67 | **A** |
| 8 | **C** | 18 | **A** | 28 | **A** | 38 | **A** | 48 | **B** | 58 | **B** | 68 | **D** |
| 9 | **A** | 19 | **B** | 29 | **B** | 39 | **C** | 49 | **D** | 59 | **D** | 69 | **B** |
| 10 | **D** | 20 | **A** | 30 | **C** | 40 | **A** | 50 | **A** | 60 | **C** | 70 | **D** |

**HE2: Irakurmena** (Arma, tiro, pun!)

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| **A** | **A** | **D** | **D** | **C** | **B** | **B** | **C** | **B** | **B** |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| **B** | **C** | **A** | **A** | **D** | **A** | **D** | **B** | **B** | **D** |

## VI.2. LEHEN DEIALDI ITXIA: ERANTZUNAK

**HE1: Ahozkoaren ulermena** (Baserria eskoletan)

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| **D** | **A** | **B** | **A** | **A** |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| **D** | **D** | **D** | **A** | **A/B/C/E** |

**HE1: Irakurriaren ulermena** (Idazleak ikastetxeetara)

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| **B** | **C** | **D** | **B** | **A** | **B** | **B** | **A** | **C** | **A** |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| **B** | **B** | **A** | **C** | **D** | **A** | **C** | **D** | **C** | **A** |

**HE2: Irakurriaren ulermena** (Argitalpen uholdea / Zurietan zuriena)

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **1. testua** | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| | **C** | **B** | **A** | **D** | **C** |
| **2. testua** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| | **A** | **B** | **A** | **B** | **B** |

## VI.3. BIGARREN DEIALDI ITXIA: ERANTZUNAK

Deialdi irekikoak berberak, AAG izan ezik.

# VII. ERASKINAK

# VII.1. ESTATISTIKA-LABURPENA

## DEIALDI IREKIA

| | HE1 | HE2 |
|---|---|---|
| Aurkeztuak | 1.619 | 1.412 |
| 1.proba gainditu | 1.349 | 949 |
| 2. proba gainditu | 923 | 592 |
| Ahozkoa gainditu | 784 | 469 |
| Gainditze-tasa | 48,4 | 33,2 |

## 1. DEIALDI ITXIA

| | HE1 | HE2 |
|---|---|---|
| Aurkeztuak | 226 | 261 |
| Gainditzuak | 152 | 154 |
| Gainditze-tasa | 67,3 | 59,0 |

## 2. DEIALDI ITXIA

| | HE1 | HE2 |
|---|---|---|
| Aurkeztuak | 208 | 245 |
| Gainditzuak | 120 | 132 |
| Gainditze-tasa | 57,7 | 53,9 |

# VII.2. ARAUZKO XEDAPENAK

## LEHEN ZEHAZTAPENA

**47/1993 DEKRETUA, martxoaren 9koa, irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena. (apirilaren 2ko EHAA)**
(.................)

### II. ATALBURUA.- HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

*2. atala.*-Lanpostua lortzeko eta bertako lana betetzeko beharrezko diren euskararen ezagutza mailek finkatutakoa da irakaspostuetako hizkuntza eskakizuna.

Hizkuntza eskakizuna finkatzeko, izaera orokorreko hizkuntza trebetasunak sartuko dira (ahozko eta idatzizkoaren ulermena edo adierazpena), baita 4. eta 5. ataletan adierazitako helburuak beteko direla bermatzeko izan eta zuzenean irakaskuntzarekin lotuta daudenak ere.

*3. atala.*-Irakaspostuei ezarriko zaizkien hizkuntza eskakizunak bi dira: 1. hizkuntza eskakizuna eta 2. hizkuntza eskakizuna.

1. hizkuntza eskakizuna ez euskarazko ez euskaraz irakaskuntzak ematen ez dituzten irakasleek betetako irakaspostuei ezarriko zaie, baina euskara zerbitzu hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna bermatuko da. 2. hizkuntza eskakizuna euskarazko edo euskaraz irakaskuntzak ematen dituzten irakasleek betetako lanpostuei ezarriko zaie, eta euskara zerbitzu hizkuntza eta irakaskuntza hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna bermatuko da.

*4. atala.*-1.HE-ko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:

— ikasleekin bakarka edo taldean irakaskuntza iharduerarekin zerikusia duten gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: besteak beste, jokabide, motibazio, ikasketetan lortutako emaitza, beste ikasle batzuekin eta irakasleekin izandako arazo eta ikasketak egiteko familiako giroaz aritzeko;

— ikasleekin bakarka edo taldean beren adineko arazoekin eta interes bereziekin zerikusia duten gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: familiako arazo, adiskidetasuna, nortasuna, zein bere heldutasunerako bidean izan dezaketen beste edozein arazoz aritzeko;

— gurasoekin, irakasleekin eta hezkuntza administrazioko langileekin, hizkuntza maila egokian nahiz eta teknikoa ez izan, honako gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: eskolaren funtzionamendu, helburu, pedagogiako jokabide, ikasturteko egitarau, ikastaroari eta zehazki ikasleari buruzko iritzi, eskolako orduko eta orduz kanpoko iharduera, ebaluaketarako irizpide, lortutako emaitza eta, orokorrean, pedagogia lanari eta ikastetxearen funtzionamenduari buruzko gaietaz aritzeko.

*5. atala.*-2. HE-ko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:

— 1. HE-rako zehaztutakoa euskaraz egiteko;

— bere ikasgaiko edo alorreko irakaskuntzak ikasleei, bai bakarka, zein taldeka, euskaraz emateko, dela azalpen majistrala eginez, zein gelan eztabaida sortuaz eta jasotako galderei erantzunez;

— eskolak prestatzeko edo ikasleek irakurtzeko probetxugarriak izan daitezkeen euskarazko argitalpenak, programa ofizialak, testu liburuak, kontsulta liburuak, artikuluak eta abar ulertzeko;

— irakasgaiarekin zerikusia izanik eskolak prestatzeko probetxugarria izan daitekeen ahozko materiala euskaraz ulertzeko (besteak beste, pelikulak, bideoak, zintak, irrati programak);

— programa orokorrak eta bakoitzaren alorreko programazioa euskaraz idazteko;

— eskolak emateko fitxak, apunteak, materialak, ariketak, ebaluazioko ariketak eta abar euskaraz idazteko;

— ariketen zuzenketa, txostenen idazketa eta ikasleen lana baliostatzeko beste edozein iharduera euskaraz egiteko.
(.................)

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

**AGINDUA, 1994ko urtarrilaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Irakaslegoaren Euskalduntze Alfabetatzerako IRALE Programaren ebaluazio-bidea arautu eta irakasleen hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko probak edukinez eta formaz zehazten dituena. (urtarrilaren 26ko EHAA)**
(.................)

I ERASKINA

1.-HE1 EGIAZTATZEKO EBALUZIO-IRIZPIDEAK

Hizkuntz eskakizunak zedarritzeko irizpideak finkatzen dituen 47/1993 Dekretuak ezartzen dituen hizkuntz gaitasunen arabera HE1 egiaztatu ahal izateko honako ebaluazio-irizpide hauek erabiliko dira:

A) Gaitasuna frogatu behar deneko hizkuntz egoerei dagokienez.

Irakasle-ikasketariak HE1 egiaztatuko badu, eskola-inguruan, hau da, eskolan ohizko diren egoeretan hizkuntz gaitasuna baduela erakutsi beharko du, konkretuki ikasleekiko elkarrizketan (banaka nahiz taldean), gurasoekin, gainerako irakasleekin eta Hezkuntza Administrazioko pertsonalarekin dituen harremanetan.

B) Komunikazio-gaiei dagokienez

B.1.-Ikasleekiko elkarrizketan

— Irakaslanarekin zerikusirik duten gaietan: ikasleen jokaera, motibazioa, eskola-lorpena, beste ikasle eta irakasleekin izan ditzaketen bestelako arazoak eta etxean duten ikas-giroa, besteak beste.

— Ikasleek, zein bere adinean, dituzten arazo eta interesekin loturik dauden gaietan: familiako, lagunekiko nahiz nortasun-arazoetan; era berean heltze-prozesuan izan dezaketen beste edozein alderdi esanguratsu.

B.2.-Beste irakasleekin, ikasleen gurasoekin eta Hezkuntza Administrazioko pertsonalarekin dituen harremanetan.

— Eskolarekin loturik dauden gaietan: pedagogiazko helburu eta orientabideak, ikasturtearen programazioa, ikasturteari buruzko iritzia orohar eta ikasle bakoitzari buruzkoa, eskola barneko nahiz eskolaz kanpoko ekintzak, neurketa-irizpideak, lortutako emaitzak eta, orohar, pedagogia-lanarekin eta ikastegiaren funtzionamenduarekin loturik dauden gaietan.

c) Hizkuntz trebetasunei dagokienez.

1.-Kanal anitzetik igorritako ahozko testuetako informazio nagusia jasotzea.

Irizpide honen bidez ahozko mezuetan dauden oinarrizko ideiak ulertu diren ala ez egiaztatu nahi da. Komeni da, horretarako, eskola-inguruan ohizkoak diren hizkuntz egoeretan erabili diren testuak erabiltzea.

2.-Eskola-inguruan ohizkoak izanik eta orohar irakaslanarekin loturik dauden gaiei buruzko testu idatzietako informazio nagusia beste inoren laguntzarik gabe antzematea.

Irizpide honekin ikasketariak zailtasun-maila eta luzera desberdinetako testu idatzietatik informazioa jasotzeko duen gaitasuna neurtu nahi da, beti ere luze-zabalean erabilgarri diren testuetan: aktak, zirkularrak, jakinarazpenak, eskutitzak, buletinak, ikasmaterialak...

3.-Testu idatzi nahiz ahozkotan daudekeen hizkuntz elementu ezezagunen eta informazio inplizituen esanahia deduzitzea.

Irizpide hau aurreko beste biekin loturik dago. Ikasketariak testu idatzi eta ahozkoak zenbateraino ulertzeko gai den neurtu nahi da. Arreta berezia hartuko da ikasketaria testuan ezagutzen ez dituen hizkuntz elementuen esanahia bereganatu eta egiaztatzeko gai den ala ez neurtzerakoan, horretarako testuingurua, bere kultur jakituria, prozedura analitiko eta etimologikoak edo bestelako baliabideak erabiliz, adibidez benetan ulertu den egiaztatzeko testuan atzera egitea edo kontsulta-materiala erabiltzea. Era berean testuinguruagatik elementu inplizituak ateratzeko edo testuaren hitzez hitzezko esanahiaz haratago ulertzeko duen gaitasuna (igorleak izan dezakeen zeharbidezko intentzioa, ironia...).

4.-Aldez aurretik zehaztu gabeko elkarrizketa informaletan parte hartu ahal izatea eta eskola-inguruaz edo irakaslanari buruzko gaien inguruko aurrez prestaturiko eztabaidetan esku hartu ahal izatea.

Irizpide honen bidez ikasketariak dituen ideiak argiro antolatu eta adierazteko eta hartzaileak ulertzen duen eta egoera eta helburuari egokia zaion diskurtsoa produzitzeko duen gaitasuna neurtu nahi da. Era berean, ikasketarien ahozko adierazpena zuzentasunaren aldetik neurtuko da, eta mintzajardunean etenik gerta ez dadin lagunduko zaio: galderak eginez, argudioak emanez, txandaka mintzatuz...

5.-Era askotako hartzaileei (lankide, guraso, ikasleak) egokitutako testu sinpleak idazteko gai izatea, komunikazio-intentzio desberdinak dituztelarik, zalantzak argitzeko kontsulta-materialak erabiliz.

Irizpide honekin bilatzen da ikasketariak bere irakaslanean dituen hizkuntza egoera arruntei egokitzen zaizkien testu sinpleak idazteko gauza den ala ez egiaztatzea. Erregistro egokia aukeratu beharko du, horretarako, zuzentasunez, ortografia-arauak errespetatuz eta testuari barne-lotura eta koherentzia emanez. Ikasketariek, halaber, laguntzarako materialak erabiltzen jakin beharko dute lexiko eta ortografiazko zalantzak argitu ahal izateko.

6.-Eskuratutako hizkuntz ezagupenak erabiltzeko gai izatea, ikasprozesuan autonomia indartzeko autozuzenketa-prozeduara zenbaitez baliatuz.

Irizpide honen bitartez neurtu nahi dena zera da: ikasketariak berak edo bere lankideek egin ditzaketen akatsak, ahoz nahiz idatziz, identifikatzeko, eta, zenbaitetan, zuzentzeko gai den ala ez.

## 2.-HE2 EGIAZTATZEKO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Hizkuntz eskakizunak zedarritzeko irizpideak finkatzen dituen 47/1993 Dekretuak ezartzen dituen hizkuntz gaitasunen arabera HE2 egiaztatu ahal izateko honako ebaluazio-irizpide hauek erabiliko dira:

A) Gaitasuna frogatu behar deneko hizkuntz egoerei dagokienez.

Irakasle-ikasketariak HE2 egiaztatzeko badu, eskola-inguruan, hau da, eskolan ohizko diren egoeretan hizkuntz gaitasuna baduela erakutsi beharko du, konkretuki ikasleekiko elkarrizketan (banaka nahiz taldean) eta gurasoekin, gainerako irakasleekin eta Hezkuntz Administrazioko pertsonalarekin dituen harremanetan. Orobat, eta oroz gain, bere gaia edo arloa euskaraz irakasteko gai dela erakutsi beharko du.

B) Komunikazio-gaiei dagokienez.

Irakaslanarekin ikasleek dituzten arazo eta interesekin eta eskolako jardunarekin loturik dauden gaiez gainera Eraskin honetako HE1-i buruzko atalean ezarri den bezalaxe ikasketariak HE2 egiaztatuko badu bere jakintzagai edo arloa azaltzeko trebetasuna erakutsi beharko du.

C) Hizkuntz trebetasunei dagokienez.

1.-Ahozko edozein testutako ideia nagusiak eta berariazko informazioa jaso eta horren edukia ahoz nahiz idatziz adieraztea.

Irizpide honen bidez zera neurtu nahi da: erabilpen-esparru desberdinetan (giza-harremanak, komunikabideak, Administrazioarekiko harremanak, ikasgelan erabiltzen den hizkuntza...) benetan erabiltzen diren testuen nondik norakoaz eta bigarren mailako informazioaz jabetu diren ala ez; testuak beti ere aktualitatea, kultura, irakaslana orohar hartuta edo irakaslearen jakintza gaiarekin zerikusia duten gai bereziagoak izango dute ardatz; irakaslea, honenbestez, informazio hori kritikoki analisatu, berrantolatu eta bere ekoizpenetan erabiltzeko gai izango da, ahoz nahiz idatziz.

2.-Ikasleak darabilen hizkera estandarretik asko urruntzen ez den euskalki batean ekoiztutako ahozko testuetako nagusiki zein gai azaltzen diren ulertzea.

Ikaslearen ikastetxea kokaturik dagoen eskualdeko euskalkian ahoz ekoiztutako testuak orohar ulertzen dituen ala ez neurtu nahi da. Hizkera estandarretik oso urrun ez dauden benetako edo egokitutako testuetan adierazitako ideia nagusiak eskuratu dituen egiaztatu nahi da. Testu horiek eskola-ingurutik atereak izango dira.

3.-Era askotako testu idatzietako informazio nagusiaz eta xehetasunez jabetzea, informazio inplizitua eratorriz. Kalitate eskaseko testuak direnean, akatsak, koherentzia-ezak, e.a. antzematea, bai edukiari bai alderdi formalagoei (ortografia, zuzentasuna...) dagokienez, testu horiei buruzko bere iritzia azalduz.

Irizpide honen bidez ikasketariak bere irakas-jardunarekin loturik dauden testu idatziak ulertzeko bereganatu duen trebezia neurtuko da, testuan ezezagun gerta dakizkiokeen elementu esplizituak testuinguruagatik zuzen interpretatzeko eta hitzez hitzezko esanahiaz haratago ulertzeko duen gaitasuna kontuan hartuz. Era berean, bere ikasleek kalitate eskasaz ekoiztutako testuak kritikoki irakurtzeko eta behar izanez gero testuok hobetzeko orientabideak (akatsen zuzenketa, testuaren egokitzapena, e.a.) emateko gaitasuna zenbateraino bereganatu duen begiratuko da.

4.-Bere jakintza-gaiarekin loturik dagoen gai bati buruzko azalpena egitea. Argi eta era ordenatuan mintzatuz, aurrez prestaturiko eskema edo gidoia garatuz, informazioa eta argudioak era logikoan aurkeztuz, egiten zaizkien galderei erantzunez, irakasmaila bakoitzak (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza...) eta irakaskuntza-arlo bakoitzak dituzten ezaugarri eta berezko formak kontuan hartuz.

Irizpide honekin ikasketariak aurrez erabakitako eskema edo gidoia erabiliz bere jakintzagaiari buruzko gai baten inguruan dituen ideiak antolatu eta era logikoan azaltzeko eskuratutako gaitasuna zenbaterainokoa den neurtu nahi da, horretarako hizkera jariakor eta zuzena erabiliko duelarik. Orain esandakoaz gain bere hizkeraren zehaztasuna, ebakera eta egiten zaizkion galderei ihardestean emandako erantzunak egokiak diren ala ez ebaluatuko da, bere irakasmailak eta beren arloan dituzten berezko ezaugarriei atxekiz.

5.-Elkar-eraginezko elkarrizketetan parte hartzea, eskola barneko munduaz nahiz eskolaz kanpoko diharduten gaien inguruko informazio egokia emanez, bere ikuspuntu eta iritziak azalduz, arrazoituz eta defendatuz eta komunikazio-egoeraren aldaera desberdinei egokituz.

Irizpide honen bidez eskola-giroko informazioa (adibidez errendimendua, ikaslearen jarrera, ikastetxearen funtzionamendua, programen egokitzapena...), eskolaz kanpokoa (eguneroko bizimodua, aktualitatea) eta komunikazio-egoera desberdinei buruzkoa (elkarrizketa arrunta, klaustro edo bestelako bilerak) azaltzeko gai den ala ez neurtu nahi da. Bere ahozko ekoizpenaren zuzentasuna, zehaztasuna,

jariotasuna eta ebakera; gaiarekiko atxekimendua hiztegiaren aldetik; era logiko eta egituratuaz dituen iritziak azaldu eta bere hizkera komunikazio-egoera desberdinei egokitzeko gaitasuna neurtuko da (solaskide-kopurua, komunikazio-intentzioa eta testuinguruko beste elementu batzuk).

6.-Zuzentasunez eta hartzaileari ulergarri gertatzen zaion eran testu-mota desberdinak (argibideak, oharrak, aktak, txostenak, eskutitzak...) eta bere arlo edo jakintza-gaiarekin loturik dauden ikasmaterialak (fitxak, apunteak, eskemak, neurketa-probak...) erredaktatzea, iturri anitzeko informazioa integratuz eta testuari barne-lotura ematen dioten baliakideak (lokailuak, aditz tempusak, e.a.) erabiliz.

Iturri idatzi nahiz ahozkoetatik informazioa jaso, sintetizatu eta era egokian idatziz aurkezteko gauza den neurtu nahi da. Ikasketariak, hortaz, bere jakintza-gaiarekin loturik dauden euskarazko materiala ezagutu eta erabili beharko du. Ekoizten dituen testuetan hizkera idatziaren egokitasuna, koherentzia eta barne-loturazko baliabideen erabilera egokia eta zuzentasuna, hiztegi-aberastasuna eta zehaztasuna eta ortografia-arauak errespetatzen dituen ala ez ebaluatuko da.

7.-Ikasketariak eskuratutako ezagupen linguistiko, soziolinguistiko, estrategiko eta diskurtsiboak erabiltzea, antozuzenketazko prozedurak zorrotz erabiliz.

Elementu linguistiko eta diskurtsiboak (menpeko perpausak, nominalizazioak, bere arloari dagokion lexiko berezia, lokailuak) ezagutu eta erabiltzean eskuratutako heldutasun-maila neurtu nahi da. Kalitate oneko hizkuntz ekoizpena burutu eta behar izanez gero hobetu, eta berak edo bere lankideren batek, ahoz nahiz idatziz, egin ditzakeen akatsak identifikatu eta zorroztasunez eta kritikoki zuzentzeko gai izango da.
(.................)

## DEIALDI ITXIEN KALIFIKAZIO SISTEMA

**AGINDUA, 1995eko apirilaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, IRALE programan liberatuta dauden irakasleen hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko azterketen kalifikazio-sistema arautzen duena. ( maiatzaren 11ko EHAA)**
(.................)

*1. atala.*-HE1eko azterketaren zati eta ariketa desberdinak era honetan puntuatuko dira:

1. Idatzizko zatia:

| | |
|---|---|
| — Ahozkoaren ulermena: | 0tik 5 puntura |
| — Irakurriaren ulermena: | 0tik 5 puntura |
| — Idazlan laburra: | *Oso Gutxi*-ri puntu 1 dagokio<br>*Gutxi*-ri 2 puntu dagozkio<br>*Nahikoa*-ri 4 puntu dagozkio<br>*Ongi*-ri 6 puntu dagozkio<br>*Oso Ongi*-ri 8 puntu dagozkio<br>*Bikain*-i 10 puntu dagozkio |
| — Idazlan luzea: | *Oso Gutxi*-ri puntu 5 dagozkio<br>*Gutxi*-ri 10 puntu dagozkio<br>*Nahikoa*-ri 15 puntu dagozkio<br>*Ongi*-ri 20 puntu dagozkio<br>*Oso Ongi*-ri 25 puntu dagozkio<br>*Bikain*-i 30 puntu dagozkio |

Idatzizko zatiaren kalifikazio orokorra kalkulatzeko ariketen puntuazioak batuko dira eta ondoko taula aplikatuko da:

0tik 10era: *Oso Gutxi*
11tik 23ra: *Gutxi*
24tik 32ra: *Nahikoa*
33tik 40ra: *Ongi*
41etik 45era:*Oso Ongi*
46tik 50era: *Bikain*

2. *Ahozko zatia:*

*Oso Gutxi*
*Gutxi*
*Nahikoa*
*Ongi*
*Oso Ongi*
*Bikain*

2. *atala*.-HE2ko azterketaren zati eta ariketa desberdinak era honetan puntuatuko dira:

1. Idatzizko zatia:

— Irakurriaren Ulermena: 0tik 10 puntura

— Idazlan Laburra:
*Oso Gutxi*-ri puntu 1 dagokio
*Gutxi*-ri 2 puntu dagozkio
*Nahikoa*-ri 4 puntu dagozkio
*Ongi*-ri 6 puntu dagozkio
*Oso Ongi*-ri 8 puntu dagozkio
*Bikain*-i 10 puntu dagozkio

— Idazlan Luzea:
*Oso Gutxi*-ri puntu 5 dagozkio
*Gutxi*-ri 10 puntu dagozkio
*Nahikoa*-ri 15 puntu dagozkio
*Ongi*-ri 20 puntu dagozkio
*Oso Ongi*-ri 25 puntu dagozkio
*Bikain*-i 30 puntu dagozkio

Idatzizko zatiaren kalifikazio orokorra kalkulatzeko ariketen puntuazioak batuko dira eta ondoko taula aplikatuko da:

0tik 10era: *Oso Gutxi*
11tik 23ra: *Gutxi*
24tik 32ra: *Nahikoa*
33tik 40ra: *Ongi*
41etik 45era: *Oso Ongi*
46tik 50era: *Bikain*

2. *Ahozko zatia:*

*Oso Gutxi*
*Gutxi*
*Nahikoa*
*Ongi*
*Oso Ongi*
*Bikain*

*3. atala.*-Bai HE1 eta bai HE2ko azterketa gainditzeko bi zatiak gainditu beharko dira, Idatzizkoa eta Ahozkoa. Azterketaren nota orokorra ondoko mailen arabera ipiniko da:

*Oso Gutxi*
*Gutxi*
*Nahikoa*
*Ongi*
*Oso Ongi*
*Bikain*

Bai zati idatzian, bai ahozkoan oinarrituta ipini behar den nota orokor hori erabakitzerakoan zalantzarik balego, ahozko zatia gehiago balioetsiko da.

*4. atala.*-Azterketa-batzordeak IRALE programan liberatuta dauden ikasketarien txanda-amaierako balioespenak izango ditu eskueran. Balioespen horiek kasu hauetan aldatu ahal izango dute azterketaren nota orokorra:

a) Idatzian 22 edo 23 puntu lortu dituzten azterketariak, beti ere bi Idazlanetariko bat bederen eta Ahozko zatia gaindituta badituzte.

b) Ahozko azterketan «gutxi» kalifikazioa izanik ere, gaindituaren muga-mugan dagoen kasu bereziren bat, beti ere Idatzizko zatia gaindituta badu.
Kasu hauetan txanda-amaierako balioespena hartuko da kontuan, hain zuzen ere, HE1eko azterketan 3. moduluko balioespena eta HE2ko azterketan 5. modulukoa.

*5. atala.*-Laugarren atalean zehazten diren azterketari horien kasuan honela jokatuko da: azterketariak suspenditu duen azterketa-zatiari dagokion balioespena begiratuko da. Azterketariak Idatzizko zatia suspenditu badu, idazmenari dagokion balioespenari begiratuko zaio. Ahozko zatia suspenditu badu, aldiz, mintzamenari dagokion balioespena hartuko da kontuan. Arlo horretako txanda-amaierako balioespena positiboa denean, azken hau nagusituko da azken balioespen globala ematerakoan. Berraztertze-lan hau azterketa-batzordeak edo, batzordeburuak hala nahi izanez gero, haren barnean horretarako moldatzen duen batzorde txikiago batek, burutuko du.

*6. atala.*-Azterketarien azken ebaluazioa azterketa-batzordeak emango du «gai» edo «ez gai» moduan eta Agindu honetan esandakoaren arabera.

*7. atala.*-Hala nahi duen azterketariari ahozko zatia grabatuko zaio. Horrek, besteak beste, erreklamazio-kasuetan kalifikazioa zuzen jarri dela ziurtatu ahal izatea ahalbideratuko du

*8. atala.*-Azterketaren maila arauz finkaturik dagoenera egokitzen dela ziurtatzeko, notak jakinarazi aurretik azterketen ehuneko bat bigarren aldiz kalifikatuko da. Ahalmena ematen zaio Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari atal honetan ezarritakoa garatzeko neurriak har ditzan.

*9. atala.*-Kalifikazio-sistema hau aplikatzeko behar diren balorazio-irizpideak lantzea Epaimahai Bateragileari dagokio.
(.................)

## DEIALDI IREKIAREN KALIFIKAZIO SISTEMA

**ERABAKIA, 1995eko maiatzaren 9koa, Hezkuntza sailburuordearena, 1995. urtean HE1 eta HE2 hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko azterketa irekietarako deia egiten duena.(maiatzaren 23ko EHAA)**
(.................)

*3. atala.*-1994ko urtarrilaren 10eko Aginduaren 11. atalak ezartzen duenaren arabera, hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko azterketek bi zati (bata idatzizkoa eta bestea ahozkoa) eta hiru proba izango dituzte, hirurak apartekoak eta kanporatzeko izaerarekin.

*4. atala.*-Lehen hizkuntz eskakizuneko (HE1) zati eta probak eta beren puntuazioa honela ezarrita gelditzen dira:

a) Idatzizko fasea

1. proba: aukera anitzeko proba bat izango da. Honen bitartez irakurriaren ulermenarekin eta hizkuntzaren erabilera egoki eta zuzenarekin zerikusia duten alderdiak baloratuko dira. Probak 70 galdera izango ditu eta gainditzeko gutxienez 40 asmatu beharko dira. Proba honen gehienezko iraupena ordubetekoa izango da.

2. proba: ahozkoaren ulermen, irakurriaren ulermen eta idazmen-ariketak izango ditu. Proba honen ariketak honela kalifikatuko dira:

1. Idatzizko zatia:

| | |
|---|---|
| — Ahozkoaren ulermena: | 0tik 5 puntura |
| — Irakurriaren ulermena: | 0tik 5 puntura |
| — Idazlan laburra: | *Oso Gutxi*-ri puntu 1 dagokio<br>*Gutxi*-ri 2 puntu dagozkio<br>*Nahikoa*-ri 4 puntu dagozkio<br>*Ongi*-ri 6 puntu dagozkio<br>*Oso Ongi*-ri 8 puntu dagozkio |
| — Idazlan luzea: | *Oso Gutxi*-ri puntu 5 dagozkio<br>*Gutxi*-ri 10 puntu dagozkio<br>*Nahikoa*-ri 15 puntu dagozkio<br>*Ongi*-ri 20 puntu dagozkio<br>*Oso Ongi*-ri 25 puntu dagozkio |

Proba «gai» edo «ez gai» moduan kalifikatuko da. «Gai» kalifikazioa eskuratzeko gutxienez 24 puntu lortu behar dira. Azterketa honen gehienezko iraupena 3 ordukoa izango da.

b) Ahozko fasea (3. proba): Ahozko trebetasunak azterketabatzordeko gutxienez bi kideren aurrean erakutsiko dira. «Gai» edo «ez gai» moduan kalifikatuko da.

*5. atala.*-Bigarren hizkuntz eskakizuneko (HE2) zati eta probak eta beren puntuazioa honela ezarrita gelditzen dira:

a) Idatzizko fasea

1. proba: aukera anitzeko proba bat izango da. Honen bitartez irakurriaren ulermenarekin eta hizkuntzaren erabilera egoki eta zuzenarekin zerikusia duten alderdiak baloratuko dira. Probak 70 galdera izango ditu eta gainditzeko gutxienez 40 asmatu beharko dira. Proba honen gehienezko iraupena ordubetekoa izango da.

2. proba: irakurriaren ulermen eta idazmen-ariketak izango ditu. Proba honen ariketak honela kalifikatuko dira:

1. Idatzizko zatia:

| | |
|---|---|
| — Irakurriaren ulermena: | 0tik 10 puntura |
| — Idazlan laburra: | *Oso Gutxi*-ri puntu 1 dagokio<br>*Gutxi*-ri 2 puntu dagozkio<br>*Nahikoa*-ri 4 puntu dagozkio<br>*Ongi*-ri 6 puntu dagozkio<br>*Oso Ongi*-ri 8 puntu dagozkio |
| — Idazlan luzea: | *Oso Gutxi*-ri puntu 5 dagozkio<br>*Gutxi*-ri 10 puntu dagozkio<br>*Nahikoa*-ri 15 puntu dagozkio<br>*Ongi*-ri 20 puntu dagozkio<br>*Oso Ongi*-ri 25 puntu dagozkio |

Proba «gai» edo «ez gai» moduan kalifikatuko da. «Gai» kalifikazioa eskuratzeko gutxienez 24 puntu lortu behar dira. Azterketa honen gehienezko iraupena 3 ordukoa izango da.

b) Ahozko fasea (3. proba): Ahozko trebetasunak azterketabatzordeko gutxienez bi kideren aurrean erakutsiko dira. «Gai» edo «ez gai» moduan kalifikatuko da
(..................)

*9. atala.*-Bi hizkuntz eskakizunak egiaztatu nahi dituzten azterketariek eskakizun biei dagozkien probak egin beharko dituzte. Hiru azterketak gainditzeak kasuan-kasuan HE1 edo HE2 egiaztatzea ekarriko du, gai edo ez-gai guztizko kalifikazioarekin.

*10. atala.*-Probaren bat gainditu bai baina denak gainditzen ez badira, egindakoa ez da kontuan hartuko aurrerago egin daitezkeen hizkuntz eskakizunen egiaztapen-prozesuetan.
(..................)

# EUSKARA ZERBITZUKO ARGITALPENAK

**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

## 1.-GLOTODIDAKTIKA LANAK

*a) Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak*

— **Hizkuntzen Irakaskuntza: Topikoak eta Metodologiak**. *N. Gardner* (1).
— **Hizkuntzen Irakaskuntza: Gramatika Ariketak.** *J.A. Mujika* (2).
— **Hizkuntzen Irakaskuntza: Mailaketa Gramatikala**. *I. Olaziregi* (3).
— **Hizkuntzen Irakaskuntza: Zenbait Artikulu** (5).
— **Hizkuntz Jolasak**. *M. Sainz - I. Olaziregi* (15).
— **Trebatzen. OHOko Goiko Ziklorako Hizkuntz Ariketak**. *M. Sainz* (23).
— **Euskalkiz Euskalki.***R.M. Pagola* (19).
— **Euskararen Oinarrizko Hiztegia. Maiztasun eta Prestasun Azterketa**. *J.M. Etxebarria. - J.A. Mujika* (31).
— **Oinarrizko Hitzak. Euskarazko Hitz Erabilgarrienak**. *I. Olaziregi* (34).

*b) Bideo-gidoiak/ Txotxongiloak/ Musika*

— **Haurrak Euskalduntzen Giñolaren Bidez I.** *I.M. de Lezea - Kukubiltxo* (6)
— **Haurrak Euskalduntzen Giñolaren Bidez II**. *I.M. de Lezea* (9).
— **Ipuin Zahar eta Berriak**. *L. Iriondo* (10).
— **Jolasean.** *I. Urbieta* (11).
— **Amonaren Ipuinak.** *E. Genua* (12).
— **Ipuin Gehiago**. *A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada* (13).
— **Eskolarako Ipuinak eta Txotxongiloak.** *I.M. de Lezea* (14)
— **Kontu Kontari.** *L. Iriondo* (20).
— **Musika Hezkuntza Eskolaurrean.** *I. Urbieta* (21).

*c) Gaitasun-agiriak*

— **Euskararen Gaitasun Agiria. Programa.** (7).
— **Euskaltzaindiak Batasunerako Eskaini dituen Erabakiak** (8).
— **Irakasleen Hizkuntz Eskakizunak. 1994ko Azterketak** (42).
— **EGA. 1993-94ko Azterketak** (43).
— **Irakasleen Hizkuntz Eskakizunak. 1995eko Azterketak** (44).

*d) Ebaluazioak eta hizkuntz testak*

— **EIFE 1. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina**. *J. Gabiña - R. Gorostidi - R. Iruretagoiena - I. Olaziregi - J. Sierra*
— **EIFE 2. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina.** *J. Sierra - I. Olaziregi* (33).
— **EIFE 3. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina**. *J. Sierra - I. Olaziregi* (36).
— **HINE. Hizkuntza Idatziaren Neurketa Eskolan.** *J. Sierra -I.Olaziregi* (38).
— **Galbahe E1 Hizkuntz Testa** (B eta D ereduetako OHOko 2. mailarako). *I Olaziregi-J. Sierra* (26).
— **Galbahe E2 Hizkuntz Testa** (Beta D ereduetako OHOko 5. mailarako). *I Olaziregi - J. Sierra* (25).
— **Galbahe C1 y C2. Tests de Lengua** (gaztelaniazko testak OHOko 2.eta 5. mailetarako) *J. Sierra - I. Olaziregi* (27).

— **Zortzi-A Hizkuntz Testa** (A ereduko OHOko 8. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (28).
— **Pir-5 Hizkuntz Testa** (B eta D ereduetako eskolaurre-amaierarako). *I. Olaziregi - J. Sierra*. (30).
— **Euskara Probak. Irakurmena eta Idazmena** (OHOko 8. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (37).
— **Pruebas de Lengua. Comprensión Lectora y Expresión Escrita** (8° de EGB). *J. Sierra - I. Olaziregi* (39).

## 2. HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA

— **Bizkaieraren Idatzizko arauak. Deklinabidea eta Aditza**. *A. Arejita - J.M. Irazola - J. Uriarte* (1).
— **Euskal Aditza: Bizkaiera eta Batua.** *J.M. Irazola* (2).
— **Bizkaierazko Joskera.** *A. Arejita - J.M. Etxebarria - J.M. Irazola - J. Uriarte* (4).
— **Hezkuntza Administrazioko Hiztegia.** *I. Olaziregi - J.M. Berasategi - M. Zalbide* (5).

## 3. ZABALKUNDE LANAK

*a) Euskal Ikasmaterialgintza (EIMA programa)*

— **Idatzizko Ikasmaterialen Bilduma 1994.** *B. Basterretxea - I. Olabarria - M. Zalbide* (38).
— **Ikus Entzunezko Ikasmaterialen Bilduma 1994.** *P. Mendizabal - I. Olabarria - M. Zalbide* (39).
— **Hezkuntza Softwarearen Bilduma 1996.** *P. Mendizabal - I. Olabarria - M. Zalbide* (41).

*b) Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntzea (IRALE programa)*

— **IRALE. 1995-96ko Aurkezpen Txostena**

*c) Normalizazio legearen garapena (NOLEGA programa)*

— **Euskal Girotze Egonaldietarako Eskuliburua.** *Askoren artean* (16).
— **Eskola-Antzerkia 1.** *I. Artola. - J.M. Berasategi* (18).
— **Eskola Antzerkia 2.** *I. Artola. - J.M. Berasategi* (30).
— **Eskola Antzerkia 3.** *I. Artola. - J.M. Berasategi* (31).
— **Eskola Antzerkia 4.** *I. Artola. - J.M. Berasategi* (40).
— **Eskola Hiztun Bila.** *B. Basterretxea etab.* (28).
— **Sagastiberri. Urruzuno literatur lehiaketako lan sarituen bilduma** (1986tik 1995era).
— **Goazen Barnetegira** (Bideoa).
— **Euskal Girotze Barnetegiak** (Bideoa).
— **Euskal Girotze Barnetegiak.** *Askoren artean* (34).
— **Ikastetxeen Errotulazioa.** *C. Lobo - I. Artola - J.M. Berasategi* (37)

*d) Bestelakoak*

— **Euskal Irakaskuntza: 10 Urte.** *M. Zalbide etab.* (24).

**Oharra:** Parentesi artean jasotzen da liburu bakoitzak kasuan kasuko sortan duen zenbakia.

Irakasleen hizkuntz eskakizunak

EK15020243

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Salneurria: 1.000 PTA.